


Antton Kazabon

Jose Joakin Mitxelena

bertsolaria



Jose Joakin
Mitxelena
bertsolaria
(1924-1988)

Auspoa Liburutegia

242

SENDOA ARGITALDARIA

Ugaldetxo

Tels. (943) 49 35 51 - 49 35 52 - 49 35 53

Fax (943) 49 35 48

20180 OYARZUN (Gipuzkoa)

Antton Kazabon

Jose Joakin
Mitxelena
bertsolaria
(1924-1988)

Auspoa Liburutegia
(1996)

Argazkiak: Rafael Labandibar.
Sendoa argitaletxea.

© SENDOA ARGITALDARIA

ISBN: 84-89080-45-3

Legezko Gordailu: Na.: 1.910-1996

Inprimaketa: Gráficas Lizarra, Lizarra

MITXELENA

BERTSOLARIA GOGOAN

Jose Joakin Mitxelena Agirrezabala (1924-1988), Oiartzungo bertsolaria, beroni azken agurra egin genion haretan, oroit-idazki moduko bat eskaintzea erabaki genuen, liburuska bat haren bertsoak jasoko zituena, gerorako akordagarri. Ongi merezia zuen Mitxelena bertsolariak leku bat gerrondoko bertsolarien zerrendan. Eta haren izena gordetzeko non aurki toki hoberik "Auspoa" bilduman baino?

Gauzak horrela, lehen urratsak ematerakoan, hasiera-hasieratik izan genuen Antonio Zavalaren baietza, Mitxelena bertsolariaren lagunok egiaz eskertzen duguna. Eta lanak banatzerakoan nire esku geratu zen hitzaurre-lana. Eta esan dezadan, gogotik egingo diodala, baina ez lan teknikoa, baizik eta aspaldiko adiskide honen oroitzapenak gogora ekarriz tajutua.

1. PLAZAN EGIN ZUEN LEHENENGO SAIOA

Begien aurrean daukat. Anaiarteko guda negargarria bukatu zela eta, 1939 ko apirilaren aurrene-



Jose Joakin Mitxelena.

tan, festa alaiak ziren Oiartzunen, beste herrietan bezala. Eta ospakizunen artean, gogoan dut bertsolariak jarri zituztela Kontsejupean. Iragarrita zegoen zein ziren bertsogintzan ariko zirenak: Juan Jose Saiburu eta Juan edo Pello Zabaleta Erreterikoak eta Krisostomo Pikabea eta Migel Ibañez, Oiartzungoak. Arratsaldeko bostak ingurua zen. Jendea bildurik saioa egingo zen oholtzaren aurrean. Eta Krisostomo azaltzen ez zenez, gero eta urduriago antolatzaileak. Azkenean, hutsunea betetzeko dei hau egin zen plazan: “Ez al-da hemen beste inor bertsoan egingo lukeenik laukotea osatzeko?” Lehenengo urduritasuna pasatakoan, Iturriotz auzokoak hasi ziren Jose Joakin Mitxelenari deika eta bultzaka, berak har zezan bertsolari plaza. Une haretan 15 urte zituen Jozakinek, jendaurrean egingako lehen bertsoaldi hartan.

Zernolako bertsosaioa izan zen ezin nik esan, umea nintzenez. Baina gogoratzen naiz nolako arrakasta izan zuen mutikoteak. Hala adierazten zuen jendearen esamesak: hain gaztea eta hain maila onekoa.

Bertso-saioa bukatutakoan tabernara joan ziren bertsolariak, gu, umeteria, atzetik ginela. Bi gauza dauzkat gogoan Saiburuk Mitxelenari orduan esanikoak: bata, “gu eginahaletan aritu gaituk, baina hi ere izan haiz gu adina”; eta bestea: “nire kontsejurik nahi badek, hau esango diat: ez harrotu. Harrokeria dek bertsolariaren kontrariorik haundiena”. Ezin uka begi luzekoa zela Saiburu zaharra.

Beraz, Mitxelena bertsolariak Oiartzunen egin zuen plazako bere lehenengo bertso-saioa, apirilaren aurrenetan, 1939an, 15 urte besterik ez zituela. Gauza garbia da, berezkoak zituela bertsogintza publikorako ahalmena eta dohaiak.

2. GAZTETAN IZAN ZUEN BERTSO-GIROA OIARTZUNEN

Gauza pare bat aipatu nahi nituzke Mitxelena bertsolariaren gaztetako bertso-ikasketei buruz. Eta lehenengoa giroa da. Harek plazan estreinako z kantatutakoaren ondoren, urte gutxira Basarri etorri zen Oiartzuna “batallón de trabajadores” horietako batera. Lesakako bidea egiten aritu ziren, errezildarra Aritxulegiko barrakoietan bizitzen zelarik.

Bertso-zaletasuna betidanikoa izan bada ere Oiartzunen, asko sutu zen zaletasun hori Basarri gure artean zegoela. Espetxe-giroan egonik ere, jaitzen zen Oiartzuna, zigor-egoera hartatik ihes egiteko eta bere guztizko kantu-irrikari bide emateko. Bestalde, ordea, asetzen zuen, aldi berean, oiartzuar lagunek sentitzen zuten bertso-egarria, sasoi-ko Basarri batek egiten zuen zerbitzu ezin-hobearen emaitza betean. Eta berebiziko kantu-suspertzea eman zen gure herrian Basarriri esker.

Jose Joakin Mitxelenak han-hartan Basarrirekin izaniko harremanak ez ditut gogoan. Bai ordea orduko bertso-giroa gure herrian. Buruz ikasi genituen bertso-zaleok Basarrik jarritako bertsoak: “Nork egin du gure galde”, beren bizimoduari umore gozo eta baikorrez jarriak; “Nere biotzak gaur sentitzen du”, Oiartzungo inguruari jarriak; “Lesakako pestetan ginan San Ferminez”, egin zuten festaren pasadizu zelebrea aipatuz. Gehiago ere bai: jendetza biltzen zen errezildarraren alboan berau kantuz hasten zenean tabernetan eta leku agerikoetan. Hizbide zen bertsolaritza gure herrian, susperraldi on bat izan zuen jendaurreko bat-bateko bertsogintzak, zaletasuna sortu ezezik, ikasbide bat izan zen gure artean. Han hartu zuten ongarria bertsotarako gogoazuten gazteek, eta horien artean Jose Joakinek.

Baina bertso-ikasketak giro bat baino zer bait gehiago eskatzen du: orduko pedagogi legetan maisu batekin, era informalean bada ere, aritzea behin eta berriz, maneju guztiak ikasteko. Neronek entzun izan nion Mitxelena bertsolariari, haren maisua beren osaba Joakin Mitxelena izan zela. Astelehenetan edo, feri eguna izaten baitzen egun horretan, tabernan biltzen zirela, Joxe Mari Iriarte "Prantxexa", Lexoti etab., saio luze eta eraskotakoak osatuz. Hori izan zela Mitxelena bertsolariaren eskola. Aipatu beste xehetasunik gabe ematen dut berri hau, pentsatuz argitasunik ematen duela Joxe Joakinen bertso-ikasketak zein izan zitezkeen antzemateko. Oso herrikoia, oso bizia, oso sistematu gabea, tradizio baten arabera.

Badu gure bertsolariak beste ezaugarri bat oso gaztetatik datorkiona: herria bertsoz zerbitzatzeko zeregina eta gogoa. Oroitzen naiz nola, 1944ko eguberrietan, jaiotza bizia auzoz-auzo ibili zen; kamioi batean sartuak misterioa eta kantoreak, eta hauen artean sona hartzen hasia zen gure Jose Joakin Mitxelena. Koroak abestu ondoren, han egin zuen bere saioa bertsolariak ere, usuariozko diosala koplatuaren antzera. Oso gazterik hasi zen herria bertsoz zerbitzatzeko, ofizio honi hil arte eutsi ziolarik, eta nola gainera! Herri mailan oso gaztetatik hartu zuen bertsolari onarpena, kantuzko zeregina bete ahal izateko baimen nahitaezkoa.

3. HERRITIK KANPORAKO EMANALDIAK

Bistan denez, Basarrik eta Uztapidek zabalduzko esparrua izan zen Mitxelenaren bertso gintzako barrutia. Hala ere, albo-herriek gehiago ukitzea

bidezkoa zenez, Beterrian du, eta bereziki Oartso zaharrean, berean, bere bertso-bezeroen jendaldea. eta azpimarratzekoa hau ere: soldaduska Igantzin egin zuenez Mitxelenak, oso harreman estuak zituen Bortz Hiriak inguruko bertso-zaleekin, saio asko eta asko, gerora ere, lurralde honetan egiten baitzituen, Bidasoa ertzeko ingurune honetan.

Hegoaldean bertsolari txapelketarik egiten ez bazen ere, beti izaten ziren lehiaketak eta norgehiagokak. Eta horrelakoetan han azaltzen zen beti Oiartzungo Mitxelena; eta saio horiei esker balioztapen bat jaso zuen Jose Joakinek bertsolari munduan. Hasiera hartako nire orotzapenak gai honi buruz ez dira ugariak, seminarioan nengoenez ikasketak egiten. Hala ere, esan dezaket, ez zuela arras-kasta gehiegirik ukan, ez Tolosako sariketa sonatuan, ez Ifarraldeko txapelketetan ere, epai-mahaikoen erabakiak kontuan hartzen baditugu behintzat.

Hala ere, gogoan dut nola Santo Tomasetako bertsolari norgehiagokan lehenengo saria irabazi zuen, Uztapideren aurretik gainera. Gero Eibarren gertatuko zen bezala, hemen ere doinuen eta bertso-moldeen auzia sortu zen epailarien eta kantarien artean. Epai-mahaikoak doinuren bat erabiltzera behartu zituzten saioa burutzeko. Eta, Xenpelarren doinu zaharretakoren bat izanik, Mitxelena bakarretakoa zen horren berri zekiena, eta saioa tajuz egin zuena. Nire orduko oritzapenak dira. Eta zenbait doinu ezagutzea eta erabiltzea jaioterriko tradizioak emaniko aberastasuna zuen Mitxelenak, eta gerora ere nabarmenduko zaio dohain hori, doinuekiko erreztasuna, baita kantu berrietan ere.

Dena den, Basarri eta uztapide bertsolaritzari bide bat zabaltzen ari ziren herriz-herri. Eta Mitxelena eragiletako bat da mugimendu horretan, nahiz eta bigarren mailakoa, noski. Hala ere, oso

gaztedanik egin zuen herriarekiko zerbitzu eutsia eta jarraikia, hartzaile askorekin harreman zabalak izanez. Honen ondorioz, bere bailaran ezezik izan zuen onarpen zabal bat, Gipuzkoa mailan batez ere. Ezinbesteko konplizitatea hauxe, bertso-zalearen eta bertsolariaren artekoa alegia, koblakari-bokazioa loratu eta garatuko bada.

4. EZTANDA OIARTZUNEN 1952KO SANISTEBANETAN

Lekukoa naizenez, eta Mitxelenaren bertsolari bizitzan esanahi handiko gertaera izan zenez, hemen aipatzen dut Mitxelenak eta Basarrik, gure herriko festetan, izan zuten saio garratz eta haserrekorra, nolerebait esatekotan. Nik neuk oroitzapenak baizik ez ditut idatziko, irizpideak eta balioztapenak gaia hobeto sakondu nahi duenaren esku utziz.

Hizbide bizia zebilen herrian, urtero bezala festetan kantatuko zuten bertsolarien izenak programan ematerakoan, Mitxelenarena ez zettorrelako, nahiz eta beste lauren izenak aipatzen ziren. Hori izan zen herrian marmarra sortu zuen gertakaria. Alkate jaunak jakin zuelarik zenbait bertso-zaleren urduritasuna, esan zuen ez zuela inolako eragozpenik Mitxelenak kanta zezan, eta hala egingo zela.

Eguna etorri zenean, goizparteko saioan ez zen ezer gertatu, ohiko bidetik joan zenez dena. Arratsaldean, ordea, biztu zen sua. Nork zeinekin kantatuko zuen bikoteak egiten hasi zenean Basarri, Mitxelenak behartu zuen Basarri berarekin kantatzera. Saio gogorra izan zen, nik ikusi dudan haserrekorrena. Azkar batek; eta azkarragoa bestearen erantzuna. Pika-pelean bi, zinetan, baina bertsozko moldetan ekinez. Jendea bero, bi aldetara, baita

herritarren artean ere, inoiz gutxitan ematen den tentsiopean. Ezin ahaztu bi bertsolariok tenperamentu indartsuko gizonak zirela, arrazoitarako gizonak, sentiberatasun ikaragarria zutela biok jendearen egoerari barne-erantzun bat emateko, eta ez zela txantxetakoa han-hartako giroa.

Mitxelenak salatzen zuen, bera Basarrik bazterturik zeukala, eta honek ukatu egiten zuen Mitxelenak emaniko ikuspuntua. Zenbat xehetasun solte esan dezaket orain, baina aspaldiko kontuak direnez, ez naiz aski fio ene oroitzapenez, eta aspaldi bukatutako auzia dela esan behar bestalde. Bertsoak ere entzun izan ditut orduan kantatutakoak omen zirenak: ez naute ase orduko auziaren azalpengarri bezala. Baina interesgarriak dira alderdiren bat ematen badigute ere. Askoz korapilatsuagoa izan zen han ikusi, entzun eta sentitu genuena. Basarrik eta Mitxelenak esan dezaket, beste hamabost urtean ez zutela elkarrekin plazan kantatu: eta hau izan zen Manuel Lekuonaren apaizgintzako urre-eztaiak Oiartzunen ospatu zirenean, 1967an. Gauzak ongi aldatu ziren hamabost urte horietan.

Orduerdiko saio garratz hartan handizu bat lehertu zen. Gure gogoanean markaturik geratu zen bertsolaritzako historia azkenaldikoan, bertsolarien arteko diferentziak garbitzeko plazan izan den saiorik sonatuenetakoa. Ondorio modura, azpimarratu nahi nuke, Mitxelena polemikoa gerta zitekeela, eta bereari sutsuki eusten ziola, baita bertsolari lagunekin haserreak izateraino ere. Baina erants diezaiodan honi, zuzena izan nadin, bihotz ikaragarritzko gizona zela Jose Joakin, ontasun handikoa. Baina diplomazia ez zen sekula izan bere dohaietakoa.

5. TXAPELKETAK

Jose Joakinek maila ona agertu zuen gerrondo hartan, hegoaldean eginiko txapelketetan. Gogora dezaket, eta gehiagoko beste xehetasunik gabe, 1960.go txapelketan parte-hartzeko saioan, Gipuzkoako txapeldun izan zela, eta beraz, finalean aritzeko eskua ukan zuela. Ez zen arratsaldeko saiora pasa, Azpillaga izan zelarik egun hartan ezustekoa eman zuena.

Hurrenez sariketa bera antolatu zutenean, 1962an, Gipuzkoako txapeldun izan zen Hernanin, lortu zuelarik Donostiako azken-saioan guztizko eskubidez sartzea. Finaleko saioan, goizpartean irabazi zuen arratsaldeko saiora pasatzea, nahiz eta goizeko freskotasunik azaldu gabe bere bazkalondoko ekitaldian.

Azkeneko aldiz finale batean esku-hartu zuen 1965ean, goizeko saioan lortu zuelarik berriro ere arratsaldekoan ari ahal izatea, nahiz eta hemen ere, aurreko txapelketan bezala, ez zuen maila gorakorik agertu bazkalondoko ariketan. Ez zuen zorte hobea izan 1967koan, sailkatu ez zenez azken saioan kantatu ahal izateko.

Bertsolari txapeldunek, lehenik Basarrik eta gero Uztapidek, tratamentu berezia zuten txapelketen arautegian. Eta horiek Gipuzkoako txapelketan parte ez harturik ere, nahiko zaila zen Gipuzkoatik sartzea finalean, probintzian bertsolari ugariago eta hobeak zeudenez, beste lurraldeetan baino, inori ezer kendu gabe. Esan nahi dugu meritu ezinukatu zuela Gipuzkoatik azken-ekitaldian sartzeak. Eta hori Mitxelenak hiru aldiz lortu zuen.

Gehiago oraindik, eta askoz zailagoa zena, lortu zuen bitan arratsalderako saiora pasatzea, aurreko

txapeldunarekin nork azkenean jokatu erabakitze-ko egiten zen egun osoko norgehiagoka estuan.

Mitxelena ez zen lehen mailako bertsolaria, baina goikoen artean izendatzeko aitormena ez zitzaion inoiz ukatu hirurogeigarren hamarkadako plazako bertsolaritzan. Mitxelenaren bertsogintzan gutxi nabari zen idatzizko estiloaren eraginik eta presen-tziarik. Eta beraz, ahozko munduko bertsogintza zen berea: bizia, baina akastuna. Eta hori bai, tradizio altxorretik asko zuen testugintza tradiziozkoa. Horregatik, ez zen arrakastatsua izan bere bertsogintza, baina bai harridura bat baino gehiago sor-tzen zuena, batez ere haren euskalkiko eta hizkera-ko hiztun eta kantazale ginenon artean.

6. ETENALDI LUZEA

Nahiz eta ogibidez Pasaiako portuan lan egin Mitxelenak, era askotara saiatzzen zen bertsolari oiartzuarra bizimodua ateratzen. Lantegiarekin batera, bertsoei ateratako irabaziak eta beste zere-gin ezin-deklaraturuzkoak. Asko behar zuena bazen ere gorputzez, ez zen gutxiago haren ahalegina non-dik zer aterako bizimodua aberasgarri eta eroso egiteko.

Nik ez dakit deklaratu-ezinezko lanak oker joan zitzaizkiolako edo, behintzat erretegi bat jartzea era-baki zuen, guk “Atamitx” izenez ezagutu duguna. Jose Joakin burubelarri sartu zen lanbide berria aurrera ateratze alde; baina hor hasi zen bere ber-tsozko zerbitzu eta emaitzen beherakada nabarmena. Eta hala izan behar gainera.

Hamar urte zen bertsolarien zirkuitutik kanpo, nahiz eta plazaren bat edo beste, herri-inguruan,

nola edo hala betetzen zuen, sukaldaritzako lanak une batez eten-eta. Baina ondorio jakinak ekarri zizkion bertsogintzarako. Handik hamar urtera berriro plazara agertzen hasi zenean, bide luze eta esanahitsua bete zuen euskal bertsoak: bertsolaritza sozialaren ibilbidea eta azken urteotako bertsolaritzaren berritzea eta erakundetze mailan agertutako egitura gaurkotuak.

Mitxelena agertu zen 1980ko txapelketara, baina gaixoaldi batek erasoturik, sariketa utzi eta etxera joan behar izan zuen. Baita ere ahalegindu zen gure Mitxelena modan zeuden bertsolariekin lagunartetan, frogaketak egiten, uste zuelako bera iturri bizi-ko bertsolaria zela eta beste egungo asko ur bildukoak, depositukoak. Berak hori uste zuen arren, ideia berriak zekarzkien gaurko bertsogintzarako hurrengo belaunaldiak. Tenka horretan bizi izan zuen bere munduko azkenaldia. Askok ginen haren bertsokera, ugaria eta bizia, batez ere ahotik ahorkoa eta luzea, estimatzen eta gozatzen genuenak, halakoa baitzen haren oparotasuna. Baina ez zen sekula sartu idatzizkoen eraginpean; eta euskarak azkenaldi honetan dituen eskakizunei esker, aurkitzen zuen eragozpenik haren bertsoak onarpen bete izan zezan. Zerbait horrela esan daiteke bere bertso eskola dela-eta. Baina gustagarria zen haren arrazoiketa luzea eta sakona, haren baliabide-ugaritasuna, haren tradizio otina hainbat xehetasun etnografiko eta hizkuntzazko ispilatzen baitzituen.

7. AZKEN AGURRA

Azken oroitzapena haren hiletetakoa dut. Oartzungo eliza, handietan handia, leporaino jen-

dez, gure gogoanean ezagutu den betekadarik handiena. 1988ko abenduaren bosta zen ehorzketa eguna. Neronek eman nuenez meza, hitzaldikoan esan nituen zenbait xehetasun, une honetan errematerako ongi datozenak. Hona bertsolariari buruzko ikusmoldeak:

“Herrian eskuratua zeukan kantuzko zeregina. Herriko bertsolari ofiziala izan dugu denbora luzean, ia berrogei eta hamar urte, kantuzko zerbitzuan herri barruan jardunez.

Jaietan, omenaldietan, ospakizunetan, lagunartean... han genuen Jose Joakin, gizartea sendotuz, lagunartea jantziz eta edertuz... kantatu du lekurik umilenetan, eta goraiatu ditu gizon-emakume apalak eta gordeak, ezkutuko emakume eskergarriak... Bihotz handia jartzen zuen herriko norbait eskeretzeko zenean.

Eta herritik kanpora izen bat eta leku bat irabazi zuenean bertsolariak, beti zerbitzatu zuen eta bete oiartzuarren bertsozko eskea. Badakit jaioko direla berriak. Eta ziur nago, baita ere, gaur galdu duguna, gaur mintzen gaituena, eredu on gertatuko dela herria kantuz zerbitzatu nahi duten bertsolari gazteentzat”. Egin nuen homiliatik jasotako esaldiak ditut, une honetan adierazgarri izan litezkeelakoan hemen jarriak.

Ikaskuntzak alde batera utziz, gaur bildu ditudan oroitzapen hauek laguntza bat izan nahi dute, liburu honetako bertsook bapatean sortu zituena zernolako gizona zen, zernolako kondaira izan zuen bertsolaritzaren esparruan, zernolako bertsojera zen harentzat guztizkoena. Pintzelkada batzuk diraguk eman ditugunak. Jose Joakin Mitxelenaren bertso-akordagarri bat herriarentzat uzten dugun honetan, sarrera bat izan nahi lukete ahalegin honi erantsia: gerorako gera dadila, behar den zirkuituan

sartuta, garaikide zituen beste bertsolariekin batera. Zeregin bat zen guretzat hau, eta gaur sentitzen dugu zorra kitatutakoaren lasaitasuna eta poza.

Juan Mari LEKUONA
(1996-X-12)



*Mixelena,
Oartzungo bertsolari ofiziala denbora luzean.*

Argibide pare bat

Mitxelenaren bertsoen bilduma era askotara egin zitekeen. Guk ez ditugu onenak aukeratu, ez dugu selekzio zorrotzik egin. Besterik gabe, garai ezberdinetakoak biltzen saiatu gara. 60ko hamar-kadakoak, 70ekoak eta 80koak edo azkenaldikoak.

Saioekin ere berdin egin dugu. Egoera, giro eta mota ezberdinetako bertsoak bildu ditugu. Txapelketakoak, jaialditakoak, librekoak, bazkal edo afal ostekoak...

Beste norbaitek, beste aukeraketa bat egingo zuen. Eta oraindik ere egin dezake. Hau, liburuska bat besterik ez baita. Eta, behar bada, Mitxelenaren bertsoz liburu gehiago ere bete daitezke, bertsolari eta bertsozaleen gozamenerako.

Gure bertso-iturriak, hauek izan dira, eta berauentzat gure esker ona: J. Mari Iriondo, J. Dorronsoro, Laxaro Azkune, Zaldubi, A. Zabala eta A. Kazabon.



Badator, badator ziria.


ZAPIAIN SAGARDOTEGLAN

A stigarragako Zapiain Sagardotegian, Bertsolari taldetxo bat bildu zen behin. Goizeko hirurak aldera, saioa noizbait bukatu behar eta, Mitxelenak honela bota zuen bere azken bertsoa, etxeko alabari bizkarretik helduta, etxera abiatzerakoan:

Bertsoa bagenduen
hitz eta hortzean,
nola puntu luzean
ta berdin motzean,
pena bat daramakit
nere bihotzean:
kupel denetan ezin
ari zipotzean.

* * *

1952. urte inguruan, San Luis egunez, Luistarren festetan, eta Berrobin kantatu omen zion bertso hau Mitxelenak Txomin Garmendiari. Hau lehendabiziko aldiz ari zen bertsoan herriko plazan, eta ondoren, elizara joatekoa zen bezperetara.




A. Irigoienek gaia. Mitxelena bertsua.

Nere esana gazte maitea
behar zenduke ikasi,
etzaitezela inoiz ibili
elizatikan ihesi.
Ta gaurko hontan plazatutzea
omen daukazu lehenbizi
eta suerte on bat izateko
erreguiozu San Luisi.

* * *

1959ko Azaroaren 8an Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko ari zen Eibarren. Mogel zenaren omenezko festak goratuz, bederatzi puntutako bertsoz kantatzeko eskatu zitzaizkien bertsolariari. Mitxelenak bakarrik egin zuen agindutakoa:

Eibar aldera, jaunak,
bildutzeko geunden,
festa bat egin behar
zelako hemen,
euskeraren zaletan
askotxo bait geunden
galdu xamartu, baina,
ez da galdu arren!
zer indar dakarren
begiratuarren
egin zagun aurren
gero zer datorren
holako festak eiten
badira Eibarren.



Kaxka, Lopategi, Amuriza, K. Lizaso, Mitxelena eta Xanpun.

Tolosan:

Uztapide, Baserri, L. Txiki eta Mitxelena

Beotibar Pilotalekua (1963-II-3)

Txileko eskalearen gaian, azken-puntu politak tolestatzen ditu Mitxelenak. Bertsoaren bukaerak dexente zaintzen ditu, nahiz eta berak ez zuen hori esaten. Mitxelenak zioenez, ez bait zuen bertsoaren bukaerarik inoiz pentsatzen. Hasi, segi eta bukatu. Bukaera bidean etortzen omen zitzaion.

Bakoitzak atera bitza bere ondorioak, bi bertso horiek kantatu ondoren.

* * *

Agurrak

Uzt.: Lau Bertsolari hastera goaz
kantatzen bertso berriak
behar bezela laguntzen badu
guk daukagun iturriak
gaur aukera ona nola jarri dun
guretzat Tolosa herriak
ongi-etorriak izan zaitezte
entzule maitagarriak.

Bas.: Anai arreбок entzun zazute
Basarri zaharraren boza
zuek aurrean ikusi eta
nik sentitzen dedan poza
frontoi honetan bizirik dago
oraindik euskal bihotza
zorioneko Euskal Herri ta
zorioneko Tolosa.

L. Tx.: O, Beotibar! gaur egin zera
zorionaren estalpe
hain tokiz haundi izanagaitik
dana puntaraino bete
enuen uste bertsolaritza
hoinbeste zanikan maite
o, Tolosa ta inguroak
denok ondo al zerate?

Mitx.: Gaur zenbat kristau euskaldun onek
ikusi degun Tolosa?
zuek aurrean hemen jarrita
guretzako-re zer poza!
lehen ez duanak gaur entzungo du
euskaldunaren abotsa
esan liteke gaur piztu dala
Tolosa zaharran bihotza.

* * *

Gaia: Txilen eskale bat aurkitu dute hotzak hila,
baina, koltxoipean miloi bat eta gehiago peso zeuz-
kan. Bina bertso.

Uzt.: Zerbait esan behar Txile alderako
eta ez nago trankila
miloi bat koltxoi azpian eta
zebilen limosnan bila,
ta atzenian honek dionez
da kalean hotzak hila
era hortako bizimodua
zakur batentzat dedila.

Bas.: Esan dituzte Txileko baten
nahigabeak eta penak
azken onikan ez du izaten
sekula kristau zekenak
miloi bat peso pasiak zitun
han gordeak zituenak
hementxe ere askotxo daude
hori egiten dutenak.

L. Tx.: Alde batera pena hartzen du
kristau on baten bihotzak
gizon bat mundutik aldentzea
horrelako heriotzak;
miloi ta gehio pesuak edu-
kirik eskalean poltsak
hauxe da gauza penagarria:
kaminuan hil du hotzak.

Mitx.: Txile aldeko eskale hori
hain gendun gizon noblia
bai omen zuan gaurko aberats
askorek daukan doblia
miloi bat peso omen zedukan
koltxoi azpian gordia
nahi nuke ni neu baldin banintza
haren moduko pobria.

- Uzt.: Holakorikan izaten zanik
nik ez nekien lehenago,
beraz batzuek dirua dute
bizia baino nahiago
miloi bat peso koltxoi azpian
ta eskatzen zuen gehiago
hil bada honen animarentzat
salbaziorik ez dago.
- Bas.: Haren animan kontra, Manuel
etzaiozula eraso
komeni bada goiko juezak
hartuko zuen txit gozo;
Elur ta jelaz beteagatik
euskal mendi eta baso
ni berotuko nitzake bapo
baneuka miloi bat peso.
- L. Tx.: Holako batek ez du merezi
ez negar eta ez txalo
hobego zuen zuen dirua
hobeki ibili balo
beraren kulpaz bide ertzean
gelditu da betiko lo
esaera degun bezela beti
zuhurraren poltsak bi zulo.
- Mitx.: Gizona hura zer izango zan
neure antzemandanda nago
bere burua gozatutzeko
etzeukan hainbeste gogo
ni miloi bat hor pesoren jabe
nerori baldin banengo
berari su emango nioke
hotzak hil baino lehenago.

Zizurkil - 1965-V-9

Pedro Mari Otañoren Omenaldian

Bazkalondoan:

*Basarri, Uztapide, Uranga, Azpillaga, Lopategi,
Lasarte, Joxe Lizaso, Hernani Txiki, Garmendia eta
MITXELENA.*

Mitxelenak ez gaitu gehiegi ohitu, metafora eta
mantzeko irudi literarioetara. Baina, tarteka
baditu horrelakoak ere. Bere ondorengo bigarren
bertsoan bat aurki dezakegu, P.Mari Otaño eta
ondorengo bertsolariak erabiliz egiten duena.

...

ta esan gentzake gu geradela
arbola hartako hostuak

* * *

Bas.: * Neskabila bat genduen kantuz
gure aurreko aldean
bihotzak pozez jarri dizkigu
malkoak ezin gordean
arreta pixkat hartu zazute
Baserriren esanean
gaur ere euskerak indarra hartu du
Pedro Marin izenean.

* Lurdes Iriondo.

- Uzt.: Zizurkil herri jatorra zala
ezagutzen gendun lehendik
ni Oiartzunen bizi naiz eta
pozik etorri naiz handik
pozez beterik joan ere egin
beharko degu hemendik
ikusirikan euskarak arnas
piskat badula oraindik.
- Uran.: Gaur Zizurkila ailegatzeak
neri emana dia poz
ikusitzen det frontoi guztia
beterikan anai hurkoz
gazte maiteak, euskal kontuan
begiak beterik malkoz
gu zahartu xamar egin gera baino
gazte politak badatoz.
- Mitx.: Bertsotan zerbait esan nahi eta
ezin hartu det patxara
hainbesteinoko poztasun bat gaur
sartu bait zait bihotzera
asko geundezen geure euskera
joan zala heriotzera
hoi pentsatuta gaixo etorria
sano joan leike etxera.
- Azp.: Guk ere parte hartu nahi gendun
Otañoren omenean
eta gazte bi etorri gera
Bizkaiaren izenean
Otaño jarri beharko degu
hontaz guzien gainean
pozezko malko asko ikusten da
honelako egunean.

- Lop.: Sarri askotan gu euskaldunak
ibilitzen gera penez
holako jaiak ipintzen gaitu
noiz-behinka itxaropenez,
Euskal Herria gaur ernari da
Pello Mariren omenez
Mila zorion eskeintzeizuet
bizkaitar danen izenez.
- Las.: Hitzegiteak askotan ez du
neke edo arazorik
seme umilak, gu ezin izan
ez bagendu gurasorik
esan leiteke bildu generala
euskal sendi bat osorik
aspaldi hontan ez gendun pasa
holako egun gozorik.
- Liz.: Euskaldunaren bihotz xamurra
horra gaurkoan gizendu
gure euskara premiz dagola
lehenago batek esan du
honez aurrera saia gaitezen
zertan isilik egon gu
gauza onari erasotzeko
behin ere ez da berandu.
- Her.: Errekaldeko seme jatorra
gure aita Pedro Mari
begira egon naiz zuk hain maitea
zendun *Bernardo* zaharrari
ilunpetatik bistaratuak
badituzu mila egi
izarrak asko dirade baino
zu zara danen ilargi.

- Bas.: Gaurko egunez Pedro Mariri
emango diogu ondra
Pello Errota maitearena
etorriko da gerora
urte askotxo da zu Otaño
sartu zinala zulora
goitik ikusten baldin bazaude
egon zindezke gustora.
- Uzt.: Pello Mari hura handia izan zan
ta umila eta apala
harrokeririk etzuen baina
bertsotan etzan makala
pentsatu gero gaur hemen danok
gustora ari generala
pena bat daukat: holako egunak
bakan izaten dirala.
- Uran.: Gogoratzen naiz, behin Astorian
Uztapideren puntua
aprobau nahirik Juradu jaunak
anai honen talentua
Pedro Maria Otaño zuan
guretzat izendatua
gaurtikan bera egin liteke
bertsolarien santua.
- Gar.: Hauxe da egun alaia eta
hau da egun pozgarria
gizon bat goratu nahirikan
nekatuaz eztarria
zeru goietan ikusitzen det
baratz bat maitagarria
zorionekoa bere semeak
maiterik duan herria.

Mitx.: Pedro Mariren lehengo sustraiak
ez daude hemen ahaztuak
danok dakite utzi zitula
aurrerako arrastuak
bere intxaurra bezela bera
har dezala Gipuzkuak
ta esan gentzake gu geradela
arbola hartako hostuak.

Azp.: Gure lurraren maitalea zan
Otañotar Pedro Mari
gu ere hala gera guztiok
lagun zaiogun elkarri
Haren hezurak Cordoban daude
behar litzazke ekarri
ta Errekaldeko intxaur handien
azpiko lurrean jarri.

Lop.: Santu nahi dute Pello Maria
lehen ta oraingo aiskideak
geure artean behar ginuzke
haren hezur errimeak
euskal usaia beti izan daian
Euskal herriko ahaideak
eta guk ere segi ditzagun
har jarritako bideak.

Las.: Etorri gera Pedro Mariren
jaia ospatzeko iritzian
hildakoekin bat oroitzen da
bihotzetik umiltzian
beste munduan pisten omen da
berriro hemen hiltzian
gauza horren berri jakingo degu
alkarregana biltzian.

- Liz.: Berriro zerbait hitzegin gabe
ixilik ezin det etsi
bihotza daukat eztarrin eta
nik barruan ezin eutsi
Otaño zana zero goitaino
bertsotan zaigu iritsi
haren osaba Joxe Bernardok
ez al du ezer merezi.
- Her.: Ikaragarri gustatu zaida
Azpillagaren asmua
hura izan bai zan hizkuntza hortan
bertsolai danen burua
maite zituen beraren lurra
Jaungoikoa ta zerua
Danen artean bildu liteke
hura ekartzeko dirua.
- Uzt.: Berriro ere kantatutzero
nola gauden behartuta
zueri entzunerazi nahian
goaz abiak hartuta
hainbeste entzule euskaldun hemen
nola diran juntatuta
gaurko despeida ein beharko degu
pare bana kantatuta.
- Bas.: O! Pedro Mari maitagarria
entzuten egongo zera
ta gure martxa zuk badakizu
lehendik gutxi gora behera
paretxo bana kantatu eta
orain bagoaz etxera
Zizurkildarrak behartu ezkerok
berriz etorriko gera.

Liz.: Behartutzean aritzen gera
bertsuakiko lanetan
berrizko ere eskaintza eginez
hasiak gera gaur bertan
zuen aurrean ezin aspertu
litake hemen hizketan
gaurkoan behintzat gu ez gihoaz
etorritako penetan.

Mitx.: Jolas eder bat entzun dezute
esan duana Basarriz
eta Otaño hor dadukagu
gaztea zaneko irudiz
behartzen bazerate serbitzera
etorko gerala berriz
hoi dana baino hobe litzake
bera etorriko balitz.

Gar.: Urrezko letraz izenda leike
gaur hemen egindako lana
hamaika malko gozo jendeak
gaur badaduka emana
maixu handi bat urte batzuek
dala mundutik juana
beraren alde esan dezagun
denak aita-gure bana.

Las.: Lan egiteko etorri gera
asmorik gogorrenian
ta Pedro Mari aipatu nahirik
hizketik xamurrenian
pena bakarra daukagu, Jaunak
bihotzaren barrenian
orain etxera joan beharra
garairik ederrenian.

- Lop.: Despedida hau egin gaberik
gustora ez ginan joango
Zizurkildarra gure bihotza
nola ez diegu emango
Pedro Marian omenez ez da
ezerra sobra izango
gaba guztian segitutare
nahiko ez bagenuke esango.
- Uzt.: Bukatu dira ia oraintxe
bertsolarien indarrak
ta erretira kontuan ere
ez gera mutil zabarrak
badakizute nola geraden
etxera juan beharrak
agur anai ta arreba danak
ondo izan Zizurkildarrak.
- Bas.: Azken agurra eman behar det
honek esan dun moduan
etxeratzerik ez genduke nahi
oso garai beranduan
O, Pedro Mari! egon zaitea
zu lasai betiko luan
toki eder bat prestatu zazu
laister gaituzu onduan.
- Liz.: Egun sentia heldu ta laister
honuntz egin degu murgil
heldu gerade honuntza eta
geroztik hemantxe nabil
alkarrentzako maitetasunik
oraindikan ez zaigu hil
agurtzen zaitut Pedro Maria
agurtzen zaitut Zizurkil.

Mitx.: Pedro Marirek egin bai zuan
euskaldun danen itzala
religiozko lanetan ere
dakigu txarra etzala
eta gu ere beran bidetik
horren bila gabiltzala
gaur Zizurkilen gauden guztiak
berak ikusi gaitzala.

Gar.: Nere txanda-re etorri da ta
kantatu nahi det zeoze
Zizurkiltarrei besarkada bat
agurtzerako hementxe
munduaren aurrean izen haunditan
jarri zerate oraintxe
anai ta arreba bihotzekoak,
urte askotan holaxe.

Las.: Pedro Mari nik agurtzen zaitut
ahal nezakien umilen
ikusirikan zure ondoren
jendea nola dabilen
herri maite hau bixitatzeko
desiaturik nenbilan
agur anaiak agur arrebak
ondo izan Zizurkilen.

Lop.: Seguru nago Pedro Maria,
guri begira zaudela
zeure laguntza eskeini nahirik
galduak ginan bestela
agur bihotzez Zizurkildarrak
ondo bizi zaitezte
zeuen txokoa maite zazute
Pedro Mariak bezela.

Azp.: Agur Otaño eta Zizurkil
pena haundiz azkenian
berriz-e lasai deitu dezake
premia dezutenian
gaur bezelaxe etorriko naiz
moto txar baten gainian
ta hankaz ere berdin nator ni
besterik ez dagonian.

Anoetan, 1968-II-4

100.000,- pezetako
TXAPELKETA

Odolari kantatutako bi bertso hauetan, argi eta garbi ageri da Mitxelenaren sermoietarako joera nabarmena.

Saio batean zehar ez bazuen zerbait erakusteko aukera garbirik, besterik ezean, azken agurra aprobetxatuko zuen bere sermoitxoa botatzeko.

* * *

Loteriaren gaiaren inguruan kantatu zituenak, bere-bereak ditu. Bertso luzea, bederatzi puntutakoa, bertso zaila ...

Tarteko sari handia zegoenean, Mitxelenek arriskatu egiten zuen. Hemen, gaiari ere ongi heltzen dio, lehenengo bertsoan bere kasua esplikatuz.

Bigarreanean, bitan botatzen du -naz- errima bezela, eta bakoitzak erabaki dezala poto den ala ez.

Nolanahi ere, bederatzikoak eta hiru, gaur egun ez dira nolanahi entzuten bapateko saioetan.

* * *

Pobrea eta aberatsaren arteko elkarrizketa honetan ere, indar handiz kantatu zituen Mitxelenak bere hiru bertsoak. Xanpunek ezin izan zion jarraitu inolaz ere, doinu eta neurri zail horietan.

Mitxelenak, gutxitan izaten zuen errimatzeko arazorik, eta izan ezkerore ere, laster irekiko zuen bere hitz berrien hiztegitxoak, daduzki edo eguzkitza-ren antzekoak boteaz.

* * *

Gaia: *Odolari 2* bertso

Mitx.: Beure esangai dana
nik dadukat hola
itxuraz dagola
guztien gauza da ta
baizaigu ajola
ahaztu ezin zaiguna
sekula inola
mesedea bat bestei
egiten diola
biziak salbatutzen
dituan odola.

Odol onekua da
beurez euskalduna
hoi da ezaguna
ta pruebak emateko
ez da garai juna
batek sobrate leza
besteak ez duna
ta salbatutzekezer
auzoko laguna
horixe da guztiok
eman behar deguna.

Iriondo:

Atzoko periodikoak zionez, loterian zure zenbakiari 3 miloi tokatu zaizkio. Pozaren pozez zure etxe zaharrari su eman diozu berria behar zenuela ta. Baina, gaurko periodikoak dio: atzo oker bat izan genduan zenbaki hontan. Barkatu.

Mitx.: Zerbait esan nahi nuke
neuria goguan
atzo hau zegoan ba
periodikuan
nik neukan loteritxo
bat bai poltxikuan
berdin-berdina zegon
hango numeruan
ekustera juan
ta poza barruan
miloiak orduan
ai, uste munduan
ta nere etxe zaharra
nik erre nuan.

Nere ustez jantzita
nengoen txanponaz
hau ikusi nuenez
engainatu naz
millonaio bezela
ne-burua famaz
gehio egin beharrik
ez nuala lanaz
pentsatuta joanaz
jo dedan kanpanaz
ta bide baldanaz
zaharrai su emanaz
orain batere gabe
gelditua naz.

Gizon batzuen kulpa
izango da hori
ezin leitake kulpa hoi
ez eman neri
lehen-ez nintzan dirudun
ta orain-e eri
negon pixka hartatik
naiz behera erori
badaukat komeri
begiak neargarri
launtzera etorri
zenbait etxe ta herri
gelditua bait naiz ni
ez zahar ta ez berri.

* * *

Xanpun - Mitxelena

Xanpun: familia aberatsean jaioa.

Mitxelena: “ pobrean jaioa.

Mitx.: Gure bizimodua
badakite noski
gabiltza itsuski
pobriak hola gera
hamartatik zazpi
zenbaiten jaio ordu
bait zaio eguzki
besteak bizi danen
itzalak daduzki
nik ere badadukat
nahigaberik aski.

Xan.: Sanoki mintzo zira
emaiten nau lotsa
inez harrabotsa
bainan ez uste izan
naizenik mentsa
gure kasuan ere ba dirade
bai naski nun pentsa
ez uste izan bizia
denikan arrosa.

Mitx.: Guk geure izerditik
daukagu langintza
hortan behar mintza
pobriak ordu danez
behar baitu zintza
lehen esan dedan gisan
hauen eguzkitza
zeinek lezazien ba
horren edukitza
aberatsa jaiota
ederki zabilitza.

Xan.: Izan aberats edo
hor dago hondarra
egin eut oldarra
errex ukan nezake
zuk duzun nigarra
ez pentsatu gero dirua dela-ta
dutala indarra
denek hemen badegu
bat besten beharra.

Mitx.: Pobriaren etxeak
Jaunak luzaro
ezin du igaro
nonbaitik behar luke

bai zenbait anparo
etxe onian jaio
zana hobeto dago
goxotikan bilatzen
du zenbait mokado
ta egunero hamarrak
jo bitartian lo.

Xan.: Hau pobrea da eta
bai badu malura
zer du errenkura
gose bazara etorri
ni nagon lekura
pobre izatiak honentzako naski
ez dauka malura
aberatsaren onduan
beira honen ardura.

Tolosan, Zepairen omenezko jaialdia

Saio honetan, bertsotako lekzio ederra ematen digute Garmendia eta Mitxelena. Ederki erakusten digute elkarri nola erantzun behar den. Ez lagunaren azken puntua bertsoaren hasieran errepikatu eta gainera paseaz. Bere azken puntuan, haren azken puntuko arrazoari erantzunaz, baizik.

Garmendia: ...

Holako pranko lehen-e bagaude
berririka hartu gabe.

Mitxelena: ...

Granuja bat gehio ez al da egongo
lehen asko dauden lekuan

* * *

Agurra

Mitx.: Notizi gutxi dira mundu har-
tatik honuntz bidalduak
dudik ez dana ez du balio
ez letra ta ez abuak
baino ikusirik Euskal Herriak
beretzat dauzkan goguak
gure Zepairek zeru gaisetik
gaur entzungoitu txaluak.

* * *

Gaia, Iriondok: Mitxelena, mutil zahar pikaroa,
fraile sartu nahian, Garmendiaren konbentura
zoaz. Garmendia konbentu horretako Superiorra.

Mitx.: Zerbait esan nahi nizuke, aita,
tokatzen zaidan modura
ardi galdu bat izateko ni
jaio bait nintzen mundura,
urteak joanda zer izan naizen
orain heldu zait burura,
zahartzarorako txokuan bila
nator zure konbentura.

Gar.: Adixkidea behin behardare
hitzegingoizut xuabe
lehenago oroitu bazina
zuretzako zendun hobe,
bestetarako gauza etzera ta
honuntz etorri zerade,
holako prango lehen-e bagaude
berririkan hartu gabe.

Mitx.: Eman didazun erantzunakin
sentitutzen det kolkuan,
lehengora beira hementxe nago
begiak erdi malkuan,
pozaren pozez zure atea
zabaldukouzulakuan
granuja bat gehio ez al da egongo
lehen asko dauden lekuan?

Gar.: Adixkidea, hizketa hoiek
ez dira oso ziurrak,
guk nahi ditugu geuren etxean
bihotz umil ta xamurrak,
aita honek esaten dituanak
ez dira noski gezurrak:
Haragi danak munduarentzat,
konbenturako hezurrak.

Mitx.: Lehen esan dizut mutil gaixto bat
izan naizela gaztetik,
orain bide hoi alde bat utzi
ta joan nahi nuke bestetik,
nere gorputza ondo eramanda
anima garbiaraztetik,
zuk aindutako danak ingoitut
zerua irabaztetik.

Gar.: Garai batean sasoi ederra
zuk zenduan jolasteko,
besten beharrik etzendun noski
bazter guztiak nahasteko,
orain gogoratu al zera zu
bide onetik hasteko,
hau gabe-re hor bada lekua
zerua irabazteko

* * *

Iriondo: Mitxelena, zuri izugarrizko zorra dizun lagun bat zubitik bere burua botatzera doala ikusi duzu.

Mitx.: Nere lagun zahar errukalgarri
egiten zaitut ikusi
ze itera zoaz lehendabiziko
behar nazu adierazi;
zorragaitikan etzaitezela
bizirik galtzera hasi,
berandu beden ordaindukouzu
eta mundu hontan bizi.

Hartzeko dizut zerbaite baino,
ni ez nago bihotz juna
beti izan naiz gizon gozua
eta bihotzez biguna,
pena litzake zor batengatik
galtzea nere laguna
danen aurrean barkatzen dizut
gaur neri zor didazuna.

Mundu hontako zor tristeakin
zeurerik ez galdu horra,
nik fina zala badatik eta
egiten dizut aitorra,
bizi zaitea lasairo eta
izan euskaldun jatorra,
hiltzen bazera animarentzat
eiteuzu betiko zorra.

* * *

Hala ere, diruarekiko maitasuna edo diruzaletasun apur bat ere nabari da bere ondorengo bertso hauetan. Dirua gordetzeko joera eta dirua pilatzeko irrikia, gure zahar gehientsuenak bezelaxe.

Iriondo: Danean dalako eta ez danean ez dalako,
dirua izaten da zoritxarrez gehienetan kezka nagusia.

Agi.: Langilea naiz, behartsu damat
nere denhora guzia,
baina halere nik ez nuke nahi
bidegabe irabazia
orain Panplonan gerta danakin
nago bildurtzen hasia
hontaz aurrera gasta zazute
sortzen dezuten guzia.

Xal.: Batzuek eskas dutela eta
besteak soberarekin
diru galduaren izaria
seguru non den ez jakin
alde hortatik segurua naiz
etxean behinik behin
gure kezka oker guziak
da diru gutxiarekin

Mitx.: Gure Agirrek esan duana
ez diot gaizki iritzi
kaja ahorrosentzat ejemplo ona
ez du honek erakutsi
aberastuta jende gutxiarekin
hemen eiten dik irrintzi,
aurrez gastatzen duna asko dek
sobratzen duena gutxi

Agi.: Beraz, Xalbador, zu ere sarri
zabiltz estuasunean
ondoez txarrak izaitetuz
diruik ez daukazunean
baina Panplonakoa baino hobeto
zaude oraingo unean
degunarekin etxean bizi
denok maitetasunean.

- Xal.: Eta diruak maitetasuna
beti ezin dio bete
maitetasuna joaten baita
dirua denean maite,
baina horretaz segurikan nik
seguru-seguru nauke
gure etxerat ez da inor etorriko
hoinbeste milioi eske.
- Mitx.: Arlotiaren etxe txokoan
badegu mila dolore
Ugartena hortan gaurko egunean
pixkat sufritutzen daude
baina uste det gizonan jabe
eingo dirala gero-re
diru duana hobeto zegok
berriz libratutzeko-re
- Agi.: Nekazari naiz, dirua egiten
nik det lanikan zailena,
baina uste dut neu nagoela
denetatik trankilena;
hirukote hontan bat badaukagu
oso trapu dabilena,
ikusten nago laister ostuko
digutela Mitxelena.
- Xal.: Ai, Mitxelena! baldin bazira
zu diruz horrela bete
hobe zenduen hutsik gelditu
hola lasai etzitaue
baldin diru asko baduzuta
zuk lasaitasuna maite
ea zerori izaten zaren
hurrengo aldiko Ugarte.

Mitx.: Konpondu erraz bilatzen ditu
Mitxelenan pekatuak,
esaten dute ote gaudezen
txanpon batzuk eindakuak,
bildur piskabat ematen nau bai
Ugartei gertatutakuak
hoi gerta ez dedin guardia eiteko
hartukoituz ETakuak.

* * *

Agirrerekin bikote latza osatzen zuen Mitxelenak. Saio on asko burutu zuten elkarrekin. Behar bada, nahiz eta bertsoan izan, gogor antzean esango genuke.

Batez ere, Agirreren "... zeu izango zinake ikuiluko ganaurik handina" hori, fuerte xamarra izan zitezkeen. Baina, biak ere jotzaile apartak zirenez, bazezkiten bertsoan esandakoa bertsoan hartzen.

* * *

Iriondo: Agirre, baserritarra; Mitxelena, baserria famatuz, kalean bizi dana.

Agi.: Lan astunak ez baitu
uzten hainbat grazi
ahal dala nekatzerik
ez baitu merezi,
zuk zer egiten dezun
antzematen hasi,
baserria famatu
ta kalean bizi.

- Mitx.: Kalean bizitzen naiz
jaunak egunero
ta orain bezelaxe nik
desio det gero
baserritikan txarrik
orain ez da espero
laneko gogo pixkat
eduki ezkerro.
- Agi.: Lagun zahar Mitxelena
etzaude flakua
ni ez nago ez noski
zu bezelakua
zutzat ere badago
mendan lekua
baina ez dezu izango
holako lepua.
- Mitx.: Etzaitezela hasi
hemen negarrakin
baserri dana ez dago
zuekin bakarrakin
baserritar asko gaur
daude indarrakin
zilborra eta lepo
ondo edarrakin.
- Agi.: Hoiiek faltako dute
lanerako grina
hola meioratzeko
da gauza jakina,
zu ikuilu batean
hasiko bazina
zeu izango zinake
ganaurik haundina.

Mitx.: Baserritarren eran
daukagun aukeran
ganadu bezala hau
hartuko det bera,
zenbaiti jaten ere
alferrikan eman
uste det gizontzeko-re
hau txarra ote dan.

* * *

Esnesaltzailearen doinuan kantatu zituen bi bertso sail hauek. Askotan erabiltzen zuen doinu hori. Eztarria gogor astinduz aritu zen hauetan ere. Sei puntutako bertsoan gustora iharduten zuen Mitxelenak, batez ere, txapelketetan eta sarietan. Eta horrelakoetan, bederatzikoan ere, igual.

Benetan, bi bertso sail hauek, irakurtzeko eta kantatzeko baino, entzutekoak dira. Izugarriak benetan, Mitxelenak kantatzeko zeukan garra eta indarra.

Eta arrazoiak ere, sinpleak, baina, hunkigarriak:

...
Hemen ondo zerate
ta ez zaitezte hil.

...
Beste inon ez dago
hau bezelakorik.

* * *

Iriondo: Ametsari bi bertso.

Mitx.: Munduko gora-beherak
hola eginda daudez
kristauaren legez,
hoiek jarriak dira
Jainkoaren bidez,
edozein orduetan
egiten da amets
batzutan igual hor
gorputzan ahuldadez,
ta esnatzen danean
beuretzat ezerez. (bis)

Amets eitea, jaunak,
ez dago itsuski,
askotan eguzki
engainotarako
berak badaduzki
hortan galdutzen gera
hamartatik zazpi
ametsaren obra onak
berekina baleuzki
gu ez ginake denok
ez biziko gizki. (bis)

* * *

Iriondo: Orain dala 200 urte lo hartu zenuen eta
gaur esnatu zera.

Mitx.: Gauza bat nahi nuke nik
hemen esan trankil
leial eta umil,
aspaldi hontan munduz

ahaztuta bait nabil
beste aldeko gauzak
hor ditut erabil
han ere badaukagu
makina bat makil,
hemen ondo zerate
ta ez zaitezte hil. (bis)

Berrehun urtez badago
zer ikustekorik
ta ez ahaztekorik,
santoz bezala nago,
jaunak, jaztekorik,
hil ta usteldutzen ez
zirudin bizirik,
baina beste mundua
daukat ikusirik,
beste inon ez dago
hau bezelakorik. (bis)

Gorputz hil oso itxuran
neuzkan berrehun urte
danak badakite
lehenago ustelduta
behar nuan nonbaite,
obra onak eginda
Jaungoikoak maite
mundutik joatea-re
nonbait nahi ez luke
berrehun urten buruan
berriz piztu naute. (bis)



Jose Joakin, bertsolari handia.

OIARTZUN - 1963-V-19

Uztapide eta Mitxelenari
OMENALDIA.

Uztapideri, Euskal Herriko txapeldun atera zelako, eta Mitxelenari, Gipuzkoako txapeldun atera zelako.

Bas.: Nik ikusten det Euskal Herriak
nola alaitzen dituzuten
eta jenderik ez da aspertzen
inoiz zueri entzuten
konturatzen naiz, anai maiteok
zenbat meritu dezuten
gaurko omenaldi zoragarri hau
ondo merezi zenduten.

Jaungoiko maite, eman zaiezu
bi laguneri osasun
hortaka gure herriak badu
makinatxo bat ontasun
konturatuko al zinan noski
hemen zein gizon daukazun
pozez zoratu zinezke orain
bihotz nereko Oiartzun.

Omenaldira etorri eta
ezin nekatu kantuan
goralmen danak eman ditezke
hiru edo lau puntuan
oraingo nere ateraldi hau
hartu zazute kontuan:
bertsoen faltik ez da izango
ondo bazkaldutakuan.

Alfontso Irigoien:

Lagun maiteak goratutzea
gauza oso ederra da
Uztapide zu igo zerade
goren-gorengo mailara
zorioneko gertatutzen da
zu bizi zaran bailara
aurrera ere egin gaitzala
Jaun zerukoak anpara.

Beste bat ere hementxe degu
lagun bat Oiartzuarra
Gipuzkoako txapelduna ta
zirikilari edarra
pentsatutzen det Oiartzuarra
gaur bera dala bakarra
ta herri honek txapeldun ere
bera zeukan ikus beharra.

TXAPELKETA NAGUSIA

1960

Mitxelenaren *agurra*

Lehendabiziko onetorria
diot hemen epai-mahaiari,
ta ondorenen neuri entzuten
dauden arreba ta anaiari;
gure bitartez bixitatxo bat
ein diote Donostiai,
egun alai bat desio diet
bildu diraden guztiai

* * *

Mitxelena eta Mattin

Puntua: Ez al zera izutzen
hainbeste jendekin?

Mitx.: Honelako lekuan
bai laike hitzegin,

honera bildu zaigu
zenbait euskaldun fin
hauek ikusi eta
bihotzak atsegin.

Puntua: Zure bizimoduaz
Konforme al zera?

Mat.: Halaka ibiltzen naiz
batetik bertzera;
Askotan hola noa
bertsu kantatzera
biharamunian aldiz
noa baratzera.

* * *

Gai Librean

Mitx.: Aizazu, Martin, gaur Donostian
hauxen da egun alaia,
zuk ere noski eukiko zendun
honera etorri nahia,
hemen kristaua lasaitutzen da
lehen zegoana daldaia,
euskaldunak-e alkar biltzeko
noizbait bagendun garaia.

Mat.: Huna jiteko goizian goizik
esnatua naiz goizean,
ordua zela gehiago ezin
egon bait nintzen etxean,
hau pentsatuta alegrantzi bat
sartu zeraut bihotzean:
Ama euskera pozik zagola
semiak alkartutzean.

Mitx.: Hemen bihotza bigundu laike
lehen izandare marmola,
iruditzen zait gaur dana dala
euskaldunaren odola,
hala ez danen bat honuntz bilduta
gertatu litake hola,
baina uste det hura berare
euskaldun einda dagola.

Mat.: Huna jin eta huna zer gauza
pasatu zaitan buruan,
zoraturikan hementxe nintzen
lagun honen inguruan,
zorian hori ezin litake
inoiz trukatu diruan,
hemen sartzian iruditu zait
sartzen nintzela zeruan.

* * *

Mitxelena: Apostu eta jokuaren kontrarioa.

Mattin: Apostu eta joku-zalea.

Mitx.: Aizazu, nere lagun Martin, gaur
eman behaizut aditza,
errukigarri da zuk aspaldian
damakizuan bizitza,
bide txarrari heldu zenion
ta ezin zerade zintza,
zorioneko joku hoiekin
leku gaiztuan zabiltza.

- Mat.: Mitxelena hunek leku onian
derauka bere burua,
eta nik ere ireki behaut
orain nere liburua,
neri betitik gustatu bait zait
joko edo pariua,
lekuz aldatzeko ez ote da
egina gure dirua?
- Mitx.: Dirua dagon bitarte, jaunak,
bat ibiltzen da dotore,
baina diruak nahigabe txarrak
ekartzen ditu gerore,
etxeari galduazte dizka
zenbat puska ta labore,
ondorenen bat sortu lezake
etxean egotekore
- Mat.: Hunek dionez, ez omen zaio
gustatutzen apusturik,
jokoa dagon leku hoieri
ez du egin nahi kasurik,
ni berriz izan nindake ezpanu
ematen harat pausurik,
berriz ere zuk egon beharko-zu
etxe zokuan sarturik.
- Mitx.: Jokularia beti izan da
jauna, kristau iluna,
alderdi horrek zorionikan
ez du ekartzen inuna
hau ere hiru behita jaitsi da
lehenago zazpi zituna,
berarengaik ez naiz erruki,
pena det andre kuttuna.

Mat.: Sekula santan ez da kexatzen
andrea nere aldean
askotan horrek ikusken bait nau
segur umore onean,
galtzen dudanian serio xamar
hasitzen naiz ni lanean,
eta berriz jai egiten degu
irabazten dutanean.

Mitx.: Begira, Mattin, nere bertsoa
botako dizut kolkotik,
zenbait jokalai ikusi ditut
beren begiak malkotik,
erremedioik ez dagoela
denbora joanda ondotik,
orain bitarte aberastua
nor ikusi da jokutik?

Mat.: Ni beti afizio onean
joku hortako lanean,
ta jarraitzeko gogoia daukat
oindik gaurko egunean,
hau beti jokoik gabe bizi da
han bere etxe barnean,
hantxe dituen diru pitarrak
galdutzeko bildurrean.

* * *

Gaia: Hiru bertso bota behar dituzu bertsolari zaharren gainean daukazun iritzia emanaz.

Mitx.: Garai bateko bertsolariak
bai bait zituzten ahalmenak,
haiek ez zitun, gaztea zan ta
ezagutu Mitxelenak,
esaten dute entzundakoak
haiek zirala onenak,
berexikoitut neuk irakurri
eta entzun nituenak.

Lehengo zaharretan esatezkeroz
hauze nuke esan behar:
gure ahotik ateratzen da
haientzako zenbat deiar,
Xenpelar zenak ere euskerai
ematen zioen indar,
eta Otaño genduna ere
ez da atzera utzi behar.

Zenbat burutan asmoa, jaunak
zenbat aldeta diran da,
lehengo zahar haiek ezagutu ezak
neurtzeko du asko lan da,
baina entzuna ta irakurria
det gogoan eramanda;
bat bereixteko, nik Otañori
dauzkat eskerrak emanda.

* * *

Puntua: Belgatarren erregin
egin da fabiola.

Mitx.: Eta hori kentzerik
ez dago inola,
han ere sartu dute
hemengo odola
urte askoan Jainkoak
zorion diola.

* * *

Txapelketa honetan Mitxelenak ez zuen pasa
lehenengo kanporaketa hau.

Azkenean, Basarrik irabazi zuen Txapela, Uzta-
pide bigarren, Azpillaga hirugarren eta Xalbador
laugarren.



Uztapide



J.J. Mitxelena



J. Perurena



J. Azpillaga



A. Narbarte



J. Mugartegi



Mattin



Xalbador

1962ko TXAPELKETA NAGUSIA

Txapelketa honetarako, aurretik, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen. Finala, Abenduaren 9an izan zen Hernanin. Sailkapena era honetan gelditu zelarik:

Txapeldun: Joxe Joakin Mitxelena

Bigarren: Joxe Migel Iztueta, "Lazkao Txiki"

Ondoren: – Txomin Garmendia
– Imanol Lazkano
– Jesus Alberdi –Egileor–
– Akilino Izagirre –Zepai–
– Manuel Uranga
– Jose Luis Lekuona –Lexoti–

* * *

Txapelketa Nagusia: - Astorian
- 1962-XII-30

Mitxelena eta Azpillaga

Puntua jarrita:

Mitx.: Oso dotorea da
Teatro Astoria...

Gizonai sortzen zaio
hemen umoria
gaurkoan eman baitzaio
bere baloria
euskaldunez beteta
leku dotoria.

Azp.: Kapoirik jan al dezu
aurten Gabonetan?

Jolasean ote dabil
ala edo brometan,
egun hoiek ditut nik
gogozko benetan,
oso gaizki ibili naiz
geroko egunetan.

Mitx.: Hiru Errege: Meltxor,
Baltasar ta Gaspar

Haiek ikusi dituzte
makina bat izar,
urte joanak inorentzat
onikan ez dakar,
haiek-e lehen ziran gazteak,
oain eongo dira zahar.

Azp.: Adanek etzun izan
amagiarrebik.

Sekula ez det entzun
holako egirik,
ez al dezu eduki
irteera hoberik?
Inork ez bagenduke
etzegon kalterik.

* * *

Ofizioan.-

-Azpillaga izango da Donostiako guardia bat, kale
kantoi batean geldi dagoena.

-Eta Mitxelena, Gipuzkoako herri txiki bateko
baserritarra. Baserritarra, kalea zeharkatzen hasten
da, eta guardiak, semaforoa gorria dagoela eta,
"Alto" maten dio.

Azp.: Komenia dan erteera honek
merezia du aitzeak,
nik zaintzen ditut Donostiako
kale erdi ta ertzeak,
baserritarren ez-jakin horrek
ekartzen ditu galtzeak,
argi gorrian pasatutzeak
dakazki heriotzeak.

Mitx.: Donosti hontan aguazil hauek
daude mesede usteko,
ahal baldin bada lurreratuta
inor hor ez ikusteko,
beste lanikan ez dadukazu
jornala irabazteko,
gure moduko ez-jakinari
nondik joan erakusteko.

Azp.: Baserritar hau honuntz etorri
aurten Santo Tomasetan,
bere urteko errenta hori
pagatutzeko ustetan,
gero kalean nonahi ibili
berak nahi duen klasetan,
halako baten ikasiko du
edukazioa zer dan.

Mitx.: Errita txarrak ein dizkidazu
litaken bide danea,
ni ez-jakina nola bait naizen
mintzatu nazu onea,
baina eskuan hartu du gerrian
zedukan zigor bat mehea,
nik pentsatu det berau ez dala
Euskal Herriko semea.

Azp.: Zuk esan dezun arrazoi hori
etzate bate gustatzen,
astoak ez du zientzirikan
hori hasi naiz kontatzen,
baserritarrak kalera etorri
eta nolanahi jostatzen,
kulpaik ez daukan gizaraxoa
nola hasiko nintzan jotzen?

Mitx.: Hobe ziraden ez egin baina
amenazoaz bai burla,
esaten zidan: -eskuan daukat
zigor bat oso mardula,
beste inorekin oraindik ez det
probatu izan sekula-
nik jo-leku ona detela eta
neroni jo behar naua.

Lau Oinak: Mina
grina
antzina
danbolina

Mitx.: Garai bateko ohitura
genduan antzina,
orduko esaera zan:
-Beti danbolina-
Hura hemendik joanak
ematen nau mina,
oso hoztu baitzaigu
lehengo zaharren grina.

* * *

Gaia: Atzo, zure semetxo bakarra trenak harrapatu zuen, eta gaur erdi hilean dago. Ama Birjina Arantzazukoari otoitz egiten diozu haurrarentzat osasuna eskatuz.

Mitx.: Pentsa zazute zer nahigabea
beraz daukan Mitxelenak,
gure etxera heldu dirade
inongo nahigabe denak,
geren aingeru horrekin gendun
geuren zoririk onenak,
momentu batez negartu gera
lehen poz irrikan geundenak,
seme txiki bat izaki eta
hura harrapatu nau trenak.

Oraindik ere bizi da baina,
nahiko lanak bai baditu,
nik nahi nukena da behinepean
bera bizirik arkitu.
Zeru gaineko Aman bitartez
Arantzazuk hoik hor ditu,
zenbat nahigabe-atsekabeak
lezazkienak hornitu,
ni oraintxe naiz premian eta
gaur emango al ditu!

Nik ez dadukat ezer gordetzeik
eta dauzkaten guzirik
Ama, zuretzat dauzkat bihotzez
gaur hemen erakutsirik,
zorion danak galduta dauzkat
semeik gabetan utzirik,
beste laguntzik ez det eskatzen
ta ez det behar besterik,
heriotzean deten seme hoi
gorde dezala bizirik.

* * *

Mitxelena eta Arozamena

Puntua jarrita.-

Mitx.: Zer dago Donostiako
gauzarik onena?

Hori da danok ondo
ekusten deguena
zorionez beteta
hemengo barrena
gaurko egunez Donostian
zoragarriena.

Aroz.: Inbiria da gauza
sendatzen ez dana.

Askotan bat bestiai
kanpoan emana,
bestela berriztikan
ixilik esana
sendatzeko errezatu
Aita-gure bana.

Mitx.: Gazterik gelditu da
mutila buru-soil

gaur horrela makina bat
munduan badabil,
eta hori kenduta
bat ez litake hil,
gauz horregatik gainekun
bizi laike trankil.

Aroz.: Erori nintzan eta
galdu nitun bi hortz

oker handiak neretzat
horregatik datoz,
bidean zegon harria,
hura ere zorrotz
zer jakinikan gabe orain
arkitzen naiz ni motz.

Ofizioan.- Hasten denak, gaia aukeratu dezake,
honoko hauetatik: Pakea, lana, maitasuna, dirua,
osasuna, gaztetasuna, adiskidetasuna, familia edo
zuzentasuna.

Mitx.: Aukera asko ipini naute
ez dakit nortan hastia,
aukera jartzen dan garaiean
ordu ederrak ezta,
ta esan naute komeni dala
bat neuretzat bereiztia,
nik aukeratzen detena det ba
osasuna ta gaztia.

Aroz.: Ikusten zaitut, Joakin maitea,
nik joan dan aspalditikan,
lanean zabiltz oso fuerte
gorputzare gogotikan,
osasun hori hartu didazu
paper guztin tartetikan,
edertasuna zerekin dezu
ez dezu ezen faltikan.

Mitx.: Gauza gehiago badiradela
esaten dute munduan,
baina, gaztia ta osasunak
zer ondo ematen duan
batek berekin daukan bitarte
ez du edukitzen goguan,
akordatutzen gera gehienak
denbora joan da onduan.

Aroz.: Ai, Mitxelenak danan aurrian
ai, ditu egiak esaten,
uste ez degula gaztetasuna
mundutik zaigu joaten,
osasuna ere okertzen bada
gaitz txarrak du eramaten,
gau eta egun eon behar genduke
Jaunai eskerrak ematen.

Mitx.: Jaungoikoari eskatzen diot
nik beti horren ondasuna
mundu honetan bizituzeko
ez da alderdi lizuna,
gizona beti sasoikoa ta
berak beti osasuna,
besterentzako eskeinitzen det
gaineko aberastasuna.

Aroz.: Gorabehera asko ikusten dira
jaio ta mundu honetan,
zer ez dakigulaik aitzen gera
makinat aldiz hizketan,
ein behar degu ondo maitatu
osasun hori benetan,
zu, Mitxelena, hola jarratu
beste berrogei urtetan.

* * *

Lau oinak: Gero
bero
egunero
espero

Mitx.: Euskal Herrian zoriona
ohi degu espero,
beti esperantzetan
hobetago gero,
euskaldunak geranak
hortan gaude bero
Amari erregutuz
gabiltz egunero.

* * *

Gaia: Hor aurrean daukazu bixigu eder bat, bixigu fresko-fresko bat. Oraintxe errea, olio, ozpin eta baratxuriz maneaturako saltsa eta guzti.

Bertsolari bakoitzak bertso bat bakarra kantatu behar du. bederatzi puntukoa, Iparragirrerren doinukoa, Aizak hi mutil mainontzi doinukoa edo Aigure antzinako doinukoa.

Mitx.: Kezka ematen digu
ein behar duguenak,
hemengo otorduak
dira ederrenak,
horko bixigu, olio
eta piperrenak,
bixiguentzat dira
gauzik beharrenak,
jan-zale gaudenak
gerade gehienak
hemen dabilenak
huts zeuzkak barrenak...
Zenbat ote gaudeze
jango gendukenak.

* * *

Sailkapena: 1.-Uztapide
2.-Basarri
3.-Xalbador
4.-Lazkao Txiki
5.-MITXELENA
6.-Arozamena
7.-Mattin
8.-Azpillaga
9.-Lopategi
10.-Zabaleta

Mitxelenaren agurra:

Nere azkenen gaurko agurrak
ditezela izartsuak,
berrizko ere danok bait gera
zorionen behartsuak,
Euskal Herriai pozaren pozez
bota dizkagu bertsuak,
ta gure urte zaharra bukatzeko
falta-ira ordu batzuak
berrian ere izan gaitezen
guziok zoriontsuak.

* * *

Bilboko Kapitot aretoan eta 1964 ko Abenduan,
1965eko Txapelketa Nagusiaren azken aurreko
saioa.

Ofizioa: – Narbarte, ehiztaria.
 – Arozamena, ehiztari-txakurra.
 – Mitxelena, erbia.

Narb.: Nik dadukaten afizioa
beti da ehizerako
txakur polit bat nola daukaten
mendi aldera joateko,
saiatu zaitez, arozamena
erbi hoi harrapatzeko
hiltzen badegu bikaina degu
Eguarrik pasatutzeko

Aroz.: Pixkat zelaien ibiltzen gera
beste batzuetan malda
nere nagusi ehiztari hauxe
oso gizon Jatorra da,
nik-e nerea gogor eingo det
orain inondik ahal bada,
tirorik gabe harrapatuko-ut
orain bizkortu ez bada.

Mitxe.: Belarri eta hanketan ere
nik ez dadukat makurrik
inoiz jotzeko beheko zokoak
ta goiko mendi muturrik,
hauen arteko orain bitarte
ez det izandu bildurrik
hemen etziok ni hilko nauen
ehiztari eta zakurrik.

Narb.: Hoi hutseiten badet deskuidoan
ez du eramango hotzikan
ehiztari honek ez du izango
behin-e horlako lotsikan,
neure aurrera etortzen bada
tirako diot pozikan
etzait iruitzen pare hartatik
aurrera joango danikan.

Aroz.: Pausu dezente egiten ditut
atzetikan segituta
nagusia ere koskan hor dago
maldatikan begituta
bialtzen badizut sasitatikan
usaiakin altxatuta,
hutseiten bauzu galduko dezu
ehiztariaren kondukta

Mitx.: Jaiotzetikan ni nola naizen
mendi gaineko piztia,
hortatik izan bait nuan neure
mundu txar honen hazia,
txakurra dago motela eta
berdin zu, ehiztaria,
hauengatikan oaindik badaukat
pixka bateko bizia.

Narb.: Gure zelaien pikardi latzak
erbiak ein ditu aurten
ehiztari hauxe hasiko baita
hemen egiak esaten
mundu honetan ez du bizirik
betikoik inork izaten
hurrengo urtean lana daukazu
nere babarrunak jaten.

Aroz.: Honek gorputzean ezaun ditu
lehenago zui jandakoak
inoizka ikusi izan bait ditut
neronek horrelakoak,
belarri handi, buru ederra
eta gorputza bapoak,
hiltzekero kartutxuk ekarri
arbola hainbestekoak.

Mitx.: Hauen baratza beteta dago
halako goxoki-janaz
ta hor dabilta,-erbi zahar hori
hil behar degu -esanaz,
nik gauez korri eiten det eta
eunez lasai egoten naz
hauen mokadu goxoa janda
gero lotara joaten naz.

Gaia: Ehun urteko gizonari, bi bertso

Mitx.: Mundu honetan gazte izanda
asko zahartutzen baitira,
baina noizbaite joan behar da
jaunak, beste alderdira,
ehun urtekin zer izan leike
aitona baten mugira?
Atera ezin egun askotan
sartutakoan kabira
beti hor dago Jaungoiko harek
noiz deitukoion begira.

Edade hortan gizona, uste det
tristetzen dala bihotzez
harentzat ordu berdinak dira
nahiz arratsalde nahiz goizez,
hezurak nagi, eskuak geldi
eta bajatua hotzez
dakiguna da beste mundua
hor daukala zuzenbidez,
Jaungoikoaren eskutarako
pozetan jarrita zaudez.

1965ko TXAPELKETA NAGUSIA

Txapelketa honetarako, aurretik, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen. Azken saioa, Tolosan jokatu zen, 1964ko Abenduaren 13an

Sailkapena:

Txapeldun.-	Jose Migel Iztueta -Lazkao Txiki-
Bigarren.-	Txomin Garmendia
Hirugarren.-	Jose Joakin Mitxelena
Ondoren:	- Jose Intxausti
	- Patxi Etxeberria
	- Kasiano Iburguren
	- Kosme Lizaso
	- Jose Mari Lertxundi

* * *

Txapelketa Nagusia.-

1965-I-1

Anoeta Pilotalekuan

Agurra

Mitx.: Nere herritar oiartzuarrok
jatorrak eta zintzuak,
urte zahar hori ongi amaitu
pozez gaude gehientsuak,
gaur hemendikan eskeintzeizuet
Mitxelenaren bertsuak,
aiton-amon ta zenbat sasoiko,
gainontzeko umetxuak,
urte berriak izan gaitzala
guztiok zoriontsuak.

* * *

Lau Oinak: Mahaia
jaia
anaia
alaia

Mitx.: Urte Berri egunak
ekartzen du jaia,
izaten da zorionez
jarritzeko mahaia,
ta alkaturik bakoitzak
beraren anaia
danok pasatzen degu
egun bat alaia.

Puntua jarrita

Mitx.: Ilargian zer dagon
inork ba al daki?

Oraindik ez digute
hori erabaki
esaten dute ikusi
behar dala aurki,
Jainkoak nahi duan arte
kontuan eduki.

Matt.: Eztia zirudien
barteko muxuak

neri poliki eman nau
etxeko atsuak,
aipatu nauzkielarik
egungo pausuak,
ez sobera maitatzeko
Gipuzkoko usuak.

Lop.: Txofer txarrak dabilta
hamabitik hamar

hargatik ez dabilta
uste bezain bakar,
gauza onik gauz horrek
sekula ez dakar,
ni hortik aparte naiz
Jainkoari eskar.

Mitx.: Umorea munduan
da gauzik onena

Eta txarrena uste det
bihotzeko pena,
pozan pozez bizi dek,
jaunak, Mitxelena
inoren inbiririk
inoiz ez duena

Mat.: Zirikatzaile onak
zeraten ezkerero...

bertzeak hala direla
nik nuen espero,
hortaratuak gira
gu hemen gaur, gero!
ta ni idurikoak
dira beste oro.

Lop.: Gipuzkoan badira
arraunlari onak

ondo ezautzen ditu
toki hontan dagonak,
hoben ekitaldiak
nola ez diran bromak,
munduan ezaun dira
holango gizonak.

* * *

Ofizioan: -Mattin, pilotaria.
-Mitxelena, artzaia.
-Lopategi, ijito aberatsa.

Zuen aurrean dagoen neskatxa gazte bati, ezkontzeko mandatu egin behar diozue.

Mat.: Hiru ezkongai bilduak gira
mahain gain huntan batera,
ta orain deliberatu dugu
andregai bat bilatzera;
pilotaria baino gizon
pulitagorik ote da?
Ni segurik hartuko nauzu
txikiz konforme bazera.

Mitx.: Beira, neskatxa, pelotatikan
etorri txarrak badaude,
ordu batzutan poza daukate
ta bestietan nahigabe,
ni artzai nabil mendi gainetan
lujo handirikan gabe,
baina nerekin biltzen bazera
ondo biziko gerade.

Lop.: Hiru dituzu zeure aurrean,
zein da hiruretan hobe?
Bat da artzaina bere ofizioz
eta pelotari trebe,
ni ijitoa arrazatikan
kotxe ederraren jabe,
ondoan nikin biziko zera
lanik bate egin gabe.

- Mat.: Nere erranak entzun zatzue
hemengo neska prestuak,
diru soilakin ez dira eiten
emakumeen gustuak
nik diruak ekarriko ditut
pilotan irazitakuak,
ta Mitxelena nahiaoko duzu
maite baituzu pixuak.
- Mitx.: Gu bizi geran borda zaharrari
eguzkiak dir dizkio
goizean jeiki orduko -eunon-
bordari esaten dio,
arkume eta gazta nahikoa
ta elkarri amodio,
nik galdetzen det nor bizi laiken
gaur gu baino hobekio.
- Lop.: Gauza horretan esango dauzut
gaur entzun behar dozuna:
haize-eguzkiak hartutzen ditut,
ederra dot osasuna,
hona hemen, bada, neska maitea,
behar dozun maitasuna,
bi hauek ezin leikie izan
nik dodan berotasuna.
- Mat.: Dirua izandare neskari etzaio,
ez, ijitua gustatzen,
bertze hau berriz mendi gainean
han dabil ardien zaintzen,
baina nerekin balin bada
neskatxa bat esposatzen,
igandero ibiliko da
herriz-herri paseatzen.

Mitx.: Lehen esan dizut, artzantza ez da
lujo handian jazteko,
baina munduko bizi-moduai
garbi asko eusteko,
ta ondorenen datoztenari
euskaraz erakusteko
leku hoberik ote litake
zerua irabazteko.

Lop.: Hara, kontseju eder hoiekin
jendea zelan prestatu,
baina aurpegi beltz eder hauxe
zuri zelan ez gustatu?
Eta gainera nere diruak
ezin gengikez gastatu,
semeak pranko nahi badituzu
ijituakin nahastu.

* * *

Gaia: Neskatx on, eder batekin ezkontzeko zeunden. Mixioak izan dira herrian eta zure emaztegaiak moja joateko erabakia hartu du. Azken agurra, hiru bertsotan.

Mitx.: Bost urte betez elkarren beira
egon gerade, Maritxu,
ta nik uste nun maitasunean
biok ginala berdintsu,
ni utzi eta beste bide bat
hartzera omen zoaz zu,
mundu hontako poztasun dana
galdu behar al didazu?

Zure gustua horrela izanda
horretan segi ahal bada,
guziok hemen jo nahi genduke
zeruko ateen aldaba,
ta orazio ta maitasunean
nahi degu egun eta gaba,
nik ez nezake kontrarik egin
hoi zure gustua bada.

Kristau arteko amodiotan
da hain gauza serbitzala,
baina danaren aurretik degu
Jaungoikoaren itzala,
lehen elkarrekin ta orain banaka
behar badegu guk hala,
berriz Jainkoak zeru handian
alkarganatu gaitzala.

* * *

Juraduak erabaki hau hartu du: Arratsaldeko saiora, Xalbador, Lazkao Txiki, Mattin eta Mitxelena pasatzen dira.

Arratsaldeko agurra.

Mitx.: Inor ez gera honuntz etorri
ez joateko sekula,
mundu pitin hau haintxe degu ba
gauza pixka eta ahula,
ta pentsatzen det guetako batek
aurten joan beharko dula,
ta zeru gainez gertatzen bada
handik lagundu deigula

Puntuak

Mitxelenari

Albiste bat dakarkit
amorez betea,
nik nahi nukiena da
zer dan esatea,
amodioa ez da
hain gauza kaltea
berak nahi didatena
neuretzat ote-a.

Abarkak eta bruxak
oso galdu dira
orain ez gera bizi
lehengo alderdira
gehienak jetsi zaizkigu
bai noski erdira
ez genduke kalteko
lehengoak balira.

* * *

Ofizioa.- Gipuzkoako herri txiki bateko larogei urteko senar-emazte baserritar batzuk, lau seme dituzte.

- Zaharrena, apaiza.
- Bigarrena, tratalaria.
- Hirugarrena, filarmonika jotzailea.
- Laugarrena, nekazaria.

Apaiza, tratalaria eta filarmonika jotzailea Donostian bizi dira, eta nekazaria, berriz, bere gura-soekin baserrian. Nekazaria, ordea, baserriko lanaz

aspertuta dago eta Donostiara etorri nahi du bizi-
tzera. Gaur, lau senideak bildu dira hemen, base-
rriarekin eta gurasoekin zer egin erabakitzeko.

- Xalbador, apaiza.
- Lazkao Txiki, tratalaria.
- Mattin, filarmonika jotzailea.
- Mitxelena, nekazaria.

Xal.: Baserri hori salba dadien
zerbaiten beharra badu,
seme guziak ezin ordea
lan egiteko izandu,
saia anaiak hantxe lanean
etxea ez dadin galdu,
nik elizatik eingo zaituztet
ene otoitzaz lagundu.

L. Tx.: Gure baserri maitagarria
maite izan degu beti,
gu Donostian biziagatik
ikusi nahi degu zuti
nik-e laguntza pozikan egin
nezake nere parteti
aita ta amai laguntzearren
tratuko irabaziti.

Mat.: Geure familia maitagarriak
lau seme pulit baditu,
soinulari itia hobe zela
neri zautan iduritu,
ta hoi zertako zere amak ere
soinua maite baitu,
hil-kanpaina baino hobe du
filarmonika aditu.

- Mitx.: Bat apaiza da kale aldean
jende gaixtoa ontzeko,
eta bestea tratalaria
ditunai sosak kentzeko,
hirugarrena soinua jota
mundua engainatzeko,
ai, zer nolako hirukoa dan
etxeari laguntzeko.
- Xalb.: Anai hauk ez ditut nik jetxiko
orai jarri naiz etsita
astean behin egiten dute
baserri hortan bisita,
nola etxia galtzen ari den
penarekin ikusita,
nihaur banoa harat lanera
sotana hortxet utzita.
- L. Tx.: Tratalariak zer sufritzen dun
aitortuko dut aizkenik,
nekazaria beti eskean,
besteak hoi egiten dik,
eta apaizak eskatuko dit
hor ez dago zer esanik,
ta aizkenean hoen akatsak
beti pagatzen ditut nik.
- Mat.: Aita ta amaren ondotikan ni
partitu nintzen hondarrik,
baserrian lana egiteko
ezpaineraukan indarrik,
baina biziak alaitasuna
ere pixka bat behar dik
zorionikan ez duk izaten
lanarekilan bakarrik.

Mitx.: Hauen hiruren karrera zer dan
nahi al zenuteke jakin?
Ni bakarrikan hor aritzen naiz
baserrian gogor ta pin,
hauek joan ta gurasoari
lore ederrez hitzegin,
ta bilatzeidan puskaik onenak
jan ta berriro aldegin.

Xalb.: Zuek hiruak maiz baserrira
zatozte lan egitera,
hazi zaituzten tokiarentzat
ez al zaizute sobera!
familiako segida ona,
otoi, ez utzi galtzera,
etxe hortatik behar ginuke
bertze apez bat atera.

L. Tx.: Baserrikoak kalera nahi du,
bestea lanetik izu,
o, tratantea, zer eiten dezun
zeorrek bakarrik dakizu,
abade anai, ahal den ongien
konpon gaitezen ni ta zu,
nere tratuko tranpa pixarrak
barkatu behar didazu.

Mat.: Geure familia hau dagon baino
alaiagoak non dira?
ama zaharra-re azkar etortzen
baita ba gure erdira,
begi-kolpean hantxe jartzen da
beti Mattini begira,
filarmonika jotzen badet nik
denak dantzan hasten dira.

Mitx.: Gue baserria lagunik gabe
daukagu lurpera juna,
hiru anaikin kontatzen det ta
bat bakarrik ez laguna,
bai apaiza ta bai tratalari
ta berdin soinua duna,
nik nahi nuke ba hoiek utzita
aitzurak astintzeituna.

* * *

Mattin eta Mitxelena.-

Gaia: Biok langileak zarete, eta Alemaniara joateko atera zaizue kontratu on bat. Hemen baino bost aldiz gehiagoko jornala eskeintzen dizute.

- Mattin, zu Alemaniara zoaz.
- Mitxelena, zuk nahiago duzu hemen segitu, gutxi irabazita ere.

Mat.: Ai, Mitxelena, lagun maitea,
gaur nago zuri begira,
hau baino leku askoz hobeak
irabazteko badira,
baina zure begiek dute
hor gelditzeko dirdira,
nik beldurrik ez daukat eta
banoa Alemanira.

Mitx.: Esaten dute urruti hoitan
dagola bizi xamurra,
ni neroni-re ez nago, jaunak,
haruntz joateko beldurra,
baina hainbeste lagun oneri
ein behar diot agurra
ta lehenbiziko gorde nahi nuke
neone jaio nitzan lurra.

Mat.: Ai, Mitxelena, esango zaitut
arrazoin horren gainean
zure lekurat etorriko naiz
gero ni-re azkenean
andregaiakin nahi du egon
beti aldamenean,
ni berriz askoz nahiago nauk
berriz heldu naizenean.

Mitx.: Andregairikan ez daukat eta
ez leza ilundu kopetik,
gizonak bere asmoak beti
beurekin izaten ditik,
aita ta ama dauzkat zahartuak
daudezenak erdi-zutik,
eta ni bertan geldituko naiz
haiei laguntzeagatik.

Mat.: Mundu hunetan bizi beharrak
baditu bere konduak
eta gu gira berriz askotan
herriz kanpo egonduak,
eta zerbait erakusten du
kurritzen degun munduak,
Mitxelenak-e hara jua eta
galduko luzke kiluak.

Mitx.: Sekulan ez naiz aberats izan
ta gaur-e nauzu pobrea,
baina etxean zer gerta ere
pezetatxo bat gordea,
gaitz gaiztoren bat sortu bailaike
osasunaren ordea,
eta bakean bizi ezkeru
zer dezute gauz hobea?

Banaka, Kartzelako lanean.-

Puntua:

Mitx.: Jainkoa lehendabizi
euskeraren hurrena.

Biak bildu beharra
daude elkarrena,
hori da gure biziak
hemen dakarrena
eta gu indartzekero
gauzeik beharrena

Gaia: Bildurrari bi bertso.

Mitx.: Mundu txar hontan bizi gerade
neronek al dakit nola!
Zenbat ordutan buru-arin ta
etzaigu batere ajola
zabarkeriak berotzen bait du
kristau bakoitzan odola,
pentsatu gabe geroko zerbait
guretzako badagola,
zuek sinistu sinismen hortan
neroni sendo nagola.

Sehaskatikan batek eiten du
amaren galdezka hotsa,
pixkat zutitzen dan garaiean
hura izaten da bildurtza!
Baina, munduan Jainkoan aurrez
ein behar bada aitortza,
mundu pitin hau nola deguan
gauza pixka eta motza,
ni gehientsuna bildurtzen nauna
izandu da heriotza.

Gaia: Orain, zure emazte hil zenaren soinekoari bi bertso.

Mitx.: Nere emazte gaixoa hil zan,
sekulan ez zait ahaztutzen,
egunez egun bizimodua
nola dihoan laztutzen,
lehen bost peztakin pasatzen eta
orain hamar gastatutzen,
orduan merke bizi ginan ta
elkar gendun jostatutzen...
Nere andrea hil zen ezkeroz
ezertxok ez nau poztutzen.

Nere emaztea hil zaidan eta
ez nago beraz ahazturik,
gela batean hortxe daduzkat
beraren gauzak loturik,
sekulan ez zait faltatzen haren
oraziozko bururik,
ez da munduan zorion hori
partuko duan dirurik...
Gure Jainkoak jarri gaitzala
berriz elkarganaturik.

Gaia: Orain kontaiguzu hiru bertsoan, txiste bat.
Ez du axolarik gordin xamarra bada ere, baldin txu-
kun kontatzen baduzu. Minutu bat daukazu txistea
aukeratzeko.

Mitx.: Bertso bat hemen kantatuko det
ta lan dauka sinistea,
gaur goizetikan hasi deguna
lana dago ekustea,
hemen bertan-e gertatu dana
sarrerak eskuz uztea,

ez al zen hobe behar zuenai
aurrean erakustea?
Behar duanak falta ta sobra
hori ez al da txistea?

Gaur Irundikan zetorren trenak
bere martxa bat harturik,
aharian gisan, hor Gaintxusketan
zeuden danak topaturik,
agintzaileak oker agindu,
baina ez zegon malurik
osasanakin gelditzen danak
nola ez daukan galdurik,
medikuk hilez emandakoak
atera dira bizirik.

Gure etxeko bizimodua
daukagu gastu debilan,
beira zazute gure andrea
zeinen zurkeriz dabilan,
gauzak lotutzen badaki harek
sokaz edo korapilan,
poltsatik ezer ez gastatzetik
ez zegon era trankilan,
litro bat ardo gaur eraman du
litro erdiko botilan.

Alfonso Irigoien, Gaijartzaileak: -Juradua bildu da eta hau erabaki du: Lazkao txiki pasatzen dela aurrera. Beraz, azken saioa, Uztapidek eta Lazkao Txikik egingo dute-

Azken Sailkapena:

Txapeldun, Manuel Olaizola -Uztapide-
Bigarren, J.Migel Iztueta -L.Txiki-

Hirugarren, Fernando Aire -Xalbador-
Laugarren, JOSE JOAKIN MITXELENA.
Bosgarren, Mattin Treku
Seigarren, Jon Lopategi
Zazpigarren, Juan Mugartegi
Zortzigarren, Migel Arozamena
Bederatzigarren, Andres Narbarte -Xalto-
Hamargarren, Txomin Garmendia.

* * *

Mitxelenaren agurra

Euskal Herria euskalduna da,
hori dadukagu, beraz,
gure sehaskan guk ez genduan
ezer ikasi erderaz;
oain ere beroi zaila degu ta
geurea daukagu erraz,
zenbat baserri-txoko ta kalez
hola egiten da jolas,
euskaldunikan ez dan lekuan
gu ez bait gerade kapaz;
euskaldun bizi behar genduke,
jaunak, egun eta gabaz,
beste batzuek atal ondoan
jarrigatik gure trabaz,
egun batzuek pasatzeitugu
kezketan eta dardaraz,
baina oraindik irri ta parra
egin gendake algaraz,
euskaldun geron guztiok anai
eiteko bagera kapaz,
gure hizkuntza lurperatutzen
oraindik ez zegok erraz.

Donostia: Astorian - 1969-IX-12 - Xalbadorren omenez

Gaia, BASARRIK: Atano X sendatu omen da eta txapelketa jokatzeko moduan jarri ere bai. Haren sozia zeranez, Mitxelena, zer diozu?

Mitx.: Zerbait esan nahi nuke pelotaz
ta entzuleak poztetik
hilabetiak pelotik gabe
pasatu zaizka bostetik
Euskal Herriko ohitura onak
zer diran hor ikustetik
edo hobeto esatearren
sinismen batei eustetik
gure eskuan degun txapela
lurretikan ez uztetik.

Bost hilabete gaixo eginda
orain dago sano bezala
bere fineziz gelditu zaigu
hezurra eta azala

min horiekin pelotan baino
gehio sufritzen duala
utzi nahi ezin bere buruan
lehen jantzitako txapela
aurten-e Jaunak nahi badu berriz
berorrek jantzi dezala.

* * *

Puntutan:

- Arozamena
- Mitxelena

- Ar. Zer moduz bizi zera
lagun Mitxelena?
- M. pasatzen det ahal dedan
bizirik onena
- Ar. ni lodi xamarra nago
zu beriz gizona
- M. egia esatea
gauzikan onena.
- M. Hi ta ni biek gaudek
kargaz gehiegizko
- Ar. nik ondo zeukat baina
hi kilotan asko
- M. galtzeko badek motel
nik haina arrisko
- Ar. Makurtu danian honi
galtzak lehertu zaizko.
- Aroz. Guk ere gaur Xalbador
behaugu aitatu

- M. Xalbadorren kontuak
ez inola ahaztu
- Aroz. bihotzetik behar diagu
hoi beti maitatu
- M. Hori ezin gizendu ta
gu ezin flakatu.
- M. Xalbador ez dek izan
bertsuaren etsai
- Aroz. horrek gaur-e kantatzeko
hemen ez zeukak jai
- M. hori egin behar genuke
euskaldunon artzai
- Aroz. Bera aitzazera etorri
horrenbeste anai.



Bi txapeldum handi, Otartzungo Kontsejupean.

OLARTZUN - 1971-VI-6

Gai jartzen: Juan Mari Lekuona

Neskamea eta ugazabaren arteko elkarrizketak ez du galtzekorik. Neskameak, Lazkao Txikik, soldata gehiago eskatzen dionean, a zer nolako erantzuna ematen dion Mitxelena ugazabak:

...

aski soldata badezu
lehen daukazuna:
kobratzen dezuna ta
kentzen didazuna.

-Jaio, bizi, hil- gaian, Mitxelenaren lehenengo bertsoko azken puntua aipatuko genuke:

...

ondo pentsata mundu hau ez da
uso-pasa bat besterik.

Berriro ere ikusten dugu Mitxelena irudien inguruan saiatzen. Beste bi bertsoetan, bere gustoko sermoi kutsuko bertso motara jotzen du:

– Denak maitakorrak izan.

– Ez gaitezen bizi, bat bestien gorrotuan ... Eta antzekoak kantatzen ditularik.

Puntutako saioan badago zer aipaturik. Esate baterako,

– Lehenengo bertsoa Mitxelenaren erantzuna:

Lazkao Txiki.- Noiztik hasita egiten
dezu rejimena?

Mitxelena .- Hoi da gauean lotan
egiten detena.

– Bigarren bertsoa Mitxelenaren errima berezia:

Mitxelena.- Ikusten al didazu
gorputz gaizkietan?

– Laugarren bertsoa Mitxelenaren hasiera berezia:

Mitxelena.- Lazkao alde horretan
zer belar ote da?

* * *

Lazkao Txiki: Neskamea

Mitxelena: Ugazaba

- L. Tx.: Beti zure serbitzari
 ta zurekin nago
 baina hola ibiltzerik
 nausia, ez dago
 zu nola zeran lehen
 baino aberatsago
 eman behar didazu
 soldata gehiago.
- Mitx.: Neskame honekin galtzen
 det nik osasuna
 hau da garbiro hemen
 entzun behar dezuna:
 aski soldata ba dezu
 leheno daukazuna,
 kobratzen dezuna ta
 kentzen didazuna.
- L. Tx.: Hau da gizon aberatsa
 ta izatez utzia
 dirua asko, baina
 oso itsusia;
 aparte diru agintzen
 dadukat hasia
 ez logratuko balu
 nahi duen guzia.
- Mitx.: Hemen sortu nahi dezu
 gezurrezko saltsa
 neskame batentzat baitu
 dozena bat tatxa
 zortziretan behar ta
 hamarretan altxa
 ta non dauden ez daki
 sukalde ta plantxa.

L. Tx.: Xirrika hasi zitzaidan
joan zan egunean
nigana bultzatu nahirik
dirua duenean
pobrea izanda ere
nik nahi det pakean
nahiz aberatsa ez izan,
garbitasunean.

Mitx.: Disimulo ederrean
bai erakusten du
gerrako bidea ondo
beronek hartzen du
ohera dihoanean
nonbaite ahazten du
kuartoko atea
zabalik uzten du.

* * *

Xalbador, Mitxelena, L. Txiki, Gorrotxategi

Gaia: Bizitza: jaio, bizi, hil

Xal.: Anai arrebak, arren entzun ba
bertsolariaren hitza
zuzen zer garen konturatu dain
mundu honetan gabiltza
Lekuona Jaunak eman bait digu
gaia hontaz gaiten mintza
ikus dezagun untsa da eta
zer den kristauen bizitza.

- L. Tx.: Jarri diguten gai hau polita
esaten zaiona bizi
nik ere hori nolakoa dan
nahi nuke esaten hasi
zahartu baino lehen ezin liteke
hemen inortxok ikusi
bizia eman zidaten aita-amak
eskertzen ditut lehenbizi.
- Gor.: Lau egun triste pasatutzeko
honuntz etorri gerade
sentitzen degun gauz hori zertan
esateke batek gorde
bizi gerade nahi degun hori
inoiz eskuratu gabe
era honetan bizitzekotan
batez jaiotzea hobe.
- Mitx.: Mundu honetan jaiio berritan
geradenean gazterik
geu baino gehio inor badanik
inork ez degu usterik
urteak joanda, mundua ikusiz
bat gelditzen da tristerik
ondo pentsa-ta, mundu hau ez da
uso-pasa bat besterik.
- Xal.: Bizia ez da kristauarentzat
esaten bezain arina
kristauaren bizia ez baita
pizti guztien berdina
hobe genduke zentzuratuta
denak saiatzen bagina
bizi garen bitartean egiten
Jainkoaren atsegina.

- L. Tx.: Jaio ginaden guziak degu
 nolabait bizi beharra
 baina sarritan nagusitzen da
 zoritxarreko indarra
 hamaika kaso ikusitzean
 etorritzen zait negarra
 Jainkoak emandako bizia
 gizonak kendu beharra.
- Gor.: Guztiok berdin jaio ginaden
 halako egun batean
 geroztikan hor diferentziak
 sortu dira bitartean
 hemen ibiliko gerade
 loreak sasi tartean
 egun batean eman zigunak
 arnasa kendu artean.
- Mitx.: Danok dakigu bakoitza gure
 lekuan nola gabiltzan
 ta bakoitzak bere gurutzea
 dauka munduko bizitzan
 ez izan gauz bat kalean eta
 bestea egin elizan
 nik eskatutzen detena hau da
 danok maitakorrak izan
- Xal.: Amarengandik izan genduen
 bizitzerako grazia
 ta ama horrek nola du egin
 Jainkuak erakutsia
 Jainkoa bera agertzen daugu
 gure eginkizun guzian
 harenganako izan dadien
 eman deraugun bizia.

L. Tx.: Txintxo ta leial izan gaitezen
guziok alkarrengana
gure Jesusek hil aurretikan
horixe zigun esana
nabaritzen da zer maitetasun
izan zuen guregana
hura da gu salbatzeagatik
bizia eman zuana.

Gor.: Gure bizitza badihoa
Jaunak, nik al dakit nora
gure bizitzan modako daude
orain droga ta pildora
nik al dakit ba zer ikusteko
gauden hemendik gerora
gero bizitzan damu ez izan
oraintxe degu denbora.

Mitx.: Zer bide dauden ondo dakigu
Jainkoan Mandamentuan
ondo sentitzen baldin baitugu
bakoitzak geure kolkuan
gero damurik izan ez dadin
bestera juandakuan
lau egun hoitan ez gaiten bizi
bat bestien gorrotuan.

* * *

Puntutan:

L. Tx.: Zer moduz bizi zera
lagun Mitxelena

Mitx.: egia esateko
al den ondoena

- L. Tx. noiztik hasita egiten
dezu rejimena?
- M. hori da gauean lotan
egiten detena.
- M. Ikusten al didazu
gorputz gaizkietan?
- L. Tx. gaizki ez dakit baina
lodia benetan
- M. hik egingo dek rejimena
ordu guzietan
- L. Tx. jan fuerte xamarra al da
Oiartzun honetan.
- L. Tx. Pertsona batek zertan
horrenbeste grasa?
- M. ni ez nauk oraindikan
neurritikan pasa
- L. Tx. zer egiten dun ez dakit
ta ez dago eskasa
- M. hori zer den ongi neurtzen
etziok erraza.
- M. Lazkano alde horretan
zer belar ote da
- L. Tx. indarra galtzen ari da
urtetik urtera
- M. pruebetako aski degu
noski hau bera
- L. Tx. neuri begiratuta
kontuak atera.

- L. Tx. Baina pixu handiak
egiten du traba
- M. hori esaten Lazkano
hik hobe dek laga
- L. Tx. neretzat erdiak utzi
inondik ahal bada
- M. traba dala jakiteko
probatu behar da.
- M. Barrogeitamarretik
pasatu ote haiz
- L. Tx. hirurogeita gehia-
go ere ni banaiz
- M. bai, zenbaitetan bezela
kargatutzen bahaiz
- L. Tx. halare hau haina pisu
ni izango ez naiz.



Mattin eta Mitxelenarekin umorea gainezka.

Oiartzun, 1971-VIII-14

Lexotik, aurrena Uztapiderekin egin zuen saioa.
Ondoren, Koxme Lizasorekin.

Eta honekin bukatzen ari zela, Mitxelena azaldu omen zen, kantari ari ziren elkartera. Noski, bi isilerazi ondoren, hirugarrenari erasotzen dio Lexotik.

Sarrerako, honoko hau bota omen zion:

-Hik ere nere mendean geratu beharko duk,
besteak hala gelditu dituk eta-

Saio librean, beraz, elkarri zeinek handiagoak bota.

Lex.: Ai, Mitxelena, egik esanda
serio ez jarri kopeta,
batek besteai faltatu beharrik
ez zedukagu ezer ta
esplikatukoit lehenago hemen
zer egin zaigun gerta,
hik e ne mendin geatu beharko duk
besteak hala ituk eta.

- Mitx.: Erantzuna ere ekarritzen dik
horrenbeste hitzegitek
gure Lexotin kategoria
zer dan leheno bazekitek,
hire mendean egon beharra
baldin izaten baditek
hirezat ari badira jornal
hori kobratuko ditek.
- Lex.: Hik zertarako etorri ordu
ein dek diruaren galde?
interes piskat badaukakela
bazekiau alde-alde
gu berriz, moteil, ibiltzen gaituk
behar den tokian debalde
pozaren pozez lanean ai nauk
gaur-e jornalikan gabe.
- Mitx.: Lexoti honek benetan hartu
ez al du nere zipoa?
Hik orain deken joera hori
daukak bizi guzikoa,
bazekiagu ez haizela izan
hi lanaren grazikoa
kobratu gabe aitzea hori
ez dek lehendabizikoa.
- Lex.: Edozer gauza ondo dalako
esaten du Mitxelenak
kobratu gabe horrek aitzeko
falta bait ditu kemenak,
nik emangoizkat argi ta garbi
hemendik ere ordenak
auzo guztiak serbitzen dizkik
bihotz onekoa denak.

- Mitx.: Aizak, Lexoti, hire bertsoai
bilatu diok babesa,
orain kantatu dekena hori
ez al huan aldrebesa?
Akaso igual edukiko dek
serbitutzeko promesa,
baina, ez dagon lekutik eiten
ez dek izaten erreza.
- Lex.: Ai, Mitxelena, ez dek bilauko
Lexotiren pekatua
nahi baldik baduk entenditu nik
gaur esangoit predikua
nik baino gehio hik ez dekela
jarriko nitek lepua
gaztetandikan, moteil, Lexotik
etxean badik nahikua.
- Mitx.: Lexoti honek gaztetandikan
hartuta zuen izena
garbiro asko esangoizuet
ni akordatzen naizena:
Lanari ihes sarri eginda
festara altxa maizena,
zahartuta ere oaindik eiten du
orduan eiten zuena.
- Lex.: Mitxelena hau langile ona
egiten zaigu azaldu
nik holakoak aldamenetik
egiten ditut bialdu
ez bada ibili ni bezain gusto
hain leial eta ondradu
honek ere jai egingo luke
nik hainbat juizio balu.

Mitx.: Gure Lexotik leheno esan ditu
izandu ditun promesak,
hau behin ere ez du kezkatu izan
lanarik eduki ezak,
nondik edo handik non pasakoitun
ahal bada egun errezak
aurrera ere intentzio hoi
urte askoan gorde zak.

Lex.: Berrogei eta sei bat urtean
nik izan ditut kemenak
lanik ein gabe nola nabilen
harriturik daude denak
bate bururik ez duten hoiek
hartutzen dituzte penak
aurrera ere ez al du ingo
oain arte egin ez duenak.

Mitx.: Orain artean pasatu dana
aurrera pasatu laike
berrogei eta sei urte hontan
lanik ez dek izan maite,
aurrera ere sasoi hoberik
ez dek bilauko nonbaite
honez aurrera errukalduta
emango ditek zerbaite.

Lex.: Orain bitarte alper kontuan
izango dizkit afanak
buelbaka hortxe ibilitzen nauk
bazterrera utzita lanak
batez bezela hartutzen dizkit
auzokuaren esanak
baldin premian tokatzen banaiz
lan pixkat emango al nak?

Mitx.: Lehenago ere behin baino gehio
hi haiz lan-tokira joana
baina han ere agertu izan dek
txit mobimentu baldana
aurrera ere hiregatikan
hor geldituko dek lana,
hik bera baino nahiago baidek
lanak ematen duana.

Lex.: Oain hogei urte arkitu nintzan
Pasaiko muelin galako
denbora haietan pulstun ibili
nuen ehun kilo pranko,
zakuk harrika ibiltzen nitun
hori garbi dek kantako
lantegi hura nik utzi nuen
berau alperra zelako.

Mitx.: Bueno, Lexoti alper konturik
ez zazu sobra hitzegin
bestela gure enfermedadez
zenbait kutsatu ez dedin
batzuek poza hartuko ditek
eta beste batzuek min,
hik aurrera ere lehen bezelaxe
al dekena hortik egin.

Lex.: Eskolik bate ez daukat eta
ez naike izan abila
baina zertako joan behar det
bizitza hobian bila?
Miloiak ez ttut sobrante baina
pezetak baditut mila,
nere inbiriz inor badago
nahi badu izorra dedila.



Mixelena Kantari. Atzean. Lexoiti eta Garmendia, zain.

AZPEITIA 1973-XII-15

Txapel zenaren omenez
Gaiak: J. Mari IRIONDO

-Gogoa bai eta lanik ez, ala lana bai eta gogorik ez-

Gai honetan, Lazkao txikik lehenengo aukera egi-ten du. Mitxelenak, berriz, oso ongi arrazoitzen dio, kontrako bidea aukeratuz. Lana izatearena, alegia. Eta gogorik bada egin, eta ez bada gogorik, egin ez.

* * *

Futbolari buruzko bertsoetan, Mitxelenaren bigarrena aipatuko genuke. Lazkanori nahiko zuzen erantzuten diolako. Futbolzaleak ere pertsona helduak eta libreak direla adieraziz, eta horretan zorazten denak, berak dituela kulpak. Begira bertso horretako lehenengo oina edo errima: BULKA.

* * *

-Nor da benetako laguna?

Gai honetaz ere ederki baliatuko da, bere sermoi pusketa botatzeko. Eta gainera, hainbeste gustatzen zitzaizkion bertso luze horietakoak aukeratuz.

Agurra, Mitxelenak

Etortzea ta ez etortzea
ez du inork galerazten
baina Azpeitiko herria honek
asko ez nau ba ni pozten
kanpo herritako mordo bat ditut
ne begiakin ikusten
bertakuk bakarrik izan balira
zenbat izango zinazten?

* * *

Gaia: Gogoia bai ta lanik ez, ala lana bai eta gogorik ez. Zer ote hobe edo txarrago.

Bertsolariak: Mitxelena eta L. Txiki.

Mitx.: Hi, Joxe Migel, hau dek galdera orain egiten digutena, gauza horretan ia dudetan jarri ditek Mitxelena, aukera danin zernahi egiten dek hoi dek esaten dutena hiretzako hoitan bietatik zein hartutzen dek onena?

L. Tx.: Biak berdintsu dirade eta aukeratzen ez da errez hi, Mitxelena, ni biekin hor gelditu niok beldurrez aspalditxotik asperturikan nola nabilen ni nekez nik kasik aukeratuko nuke gogoia bai ta lanik ez.

Mitx.: Hi, Joxe Migel, hire bertsua
ez dek intentzio finez
ez al da hobe egon deiela
bazterretan lana gainez,
beti pezeta etortzen baita
lana eginan ordainez,
gogoia dunean egin dezala
ta ez duenean egin ez.

L. Tx.: Guk dadukagun gaia ez leike
inolaz ondo zuzendu,
lana ugari gauza ona dela
Mitxelenak esaten du,
nik daukadana nahiago nuke
norbaitek baledi kendu
ta zu-re etzeunde horren lodia
asko egingo bazendu.

Mitx.: Nik asko egiten ez detela-re
nabari zait bai lepuan,
neregatikan etzaitez egon
behintzat begiak malkuan,
lanaren ihesi ibiltzen naiz
etxean eta kanpuan,
gizonak zernahi egiten baitu
aukera dagon lekuan.

L. Tx.: Lanarengatik Mitxelenari
etzaio asko inporta
bestela ere behine ez du izan
zenbaitek hainbat gogo-ta,
Lazkao Txiki hain nekatua
aspalditik nago jota,
gehio golperik ez det egin behar
lehen ere sobra dago-ta.

Mitx.: Hik ez al dakik gorputzai nola
ematen zaion mejora,
gizonak goizin jeikitzean-e
jakin behar dik irten nora,
ta ohean dagon denboran ere
alperrikan ez denbora,
Mitxelenak-e lan egiten dik
baina lepotikan gora.

L. Tx.: Ohetik kanpora irten behar da,
Mitxelenaren esana,
baina sinistu ez ta behin ere
hau langilea izana,
bestela nola hartuko zuen
honek pixu edo zama
hau egoten den oheak-e noski
izango du nahiko lana.

* * *

Gaia: Futbola gustatzen al zaizue?

Bertsolariak: Lazkano, L.Txiki eta Mitxelena.

Lazk.: Kirol hontatik makina batek
gaurkoz iristen du jaten,
denak itsutuak gaudelako
halako zurrunbil baten,
hori zergatik jarritzen duten
errexka da antzematen,
hari begira guziak jarri
ta pentsatu ez dezaten.

L. Tx.: Mendi goieko semea naiz ni
kalean ez bainaiz bizi,
nere denboran futbol askorik
hargatik ez det ikusi,
zer joku klase dan horregatik
ezin nezake berexi,
zenbat lagunek jokatzen duten
oraindik ez det ikasi.

Mitx.: Gaurko telebisioetan hor
daduzkagun ispiluak,
futbol kanpora bilduta daude
jendearen istiluak
horren bitartez etxetan ere
gau iluntzetan billuak
hoiek dirade gaurko jendeai
jartzeizkaten jostailuak.

Lazk.: Ikusi leike gure herriak
gaur dadukan egoera
denok onartzen dakigulako
goiko maixuen joera
hamar bat ordu asteen lana
eta jaiari futbolera,
eta begirik zabaldu gabe
ia aitontzen ai gera.

L. Tx.: Zenbaitu jende engainatzen du,
lehendik nago antzemana
horrek kentzen du makinatxo bat
gizon haundi hoiari lana,
baloi bat eta danak ostikoz
hori da ikusten dana
orain batere ez daukat penik
gaztetan hara ez joana.

Mitx.: Haruntz joateko-re ez litake
kristauari noski bulka,
hogei urte berekin dauzkanak
zerbait buru ez al dauka?
gauz batzuk aitortu ditzagun ta
beste batzuek hor uka,
alde hontara zoratzen danak
berak badu aski kulpa.

* * *

Gaia: Mitxelena, Beldurtia
Gorrotxategi, ausarta

Mitx.: Hemen esan behar degun gauzakin
esplikazio xamurra
lehenago izan zan gerrari ere
ikusi nion muturra
handikan izan genduan gure
ekaitza edo elurra
orain hargatik sentitutzen det
eraso txarren beldurra.

Gor.: Ai, Mitxelena! esan dituzu
lehenagoko kontu *onak*
baita ere aitatu dituzu
gerra tristearen sonak
baino begira zazu aurrera
eta ikusi gauz *onak*
sekula ez du zorionikan
bildurrez dagon gizonak.

- Mitx.: Gerra sortu zan egunetikan
handik zortzi egun alde
ez ginan geure etxeko ohe ta
hango sukaldien jabe,
orain bizirik baldin bagera
bestek lagundurik gaude,
zu ere hortik pasa ezkeru
bai beldurtuko zerade.
- Gor.: Sarritan erronka jotzen digu
sendo dagola indarrez
ehunda hoge kilo daduzka baino
orain-e dago dardarrez
kontrabandoko denboran hau-re
dana estali zan urrez
orain etxetik ez du ertetzen
sekuestruan bildurrez.
- Mitx.: Gure kontrabandoko kontuak
izan hituen orduan
zerbait behar da gosearekin
jaunak, hara jo genduan
gero beroiek kendu zizkiten
neuk zerbait ein da onduan,
handikan ere beldur hartzeko
motibua izan nuan.
- Gor.: Horra, bildurrez bizi zerala
egun hartatik aurrera
baino lau egunekoa ez da
munduko gure karrera,
bildur guztiak alde bat utzi
beso zabal ein harrera,
berriz-e hola bizi behar deu
bildurrez bizi bagera.

Mitx.: Beldurrik, motel, nik etzeukiat
esatezkeroz egirik
gure lurra hau baldin balego
kristau onakin beterik,
bera ona danak ez du pentsatzen
ein beiotenik kalterik,
Mitxelenak-e pentsamentu hoi
barruan edukitzen dik.

* * *

GAIA: Nor da benetako laguna?

Mitx.: Zerbait esan nahi nuke nik, jaunak,
ta nahi duanak aditu
gure benetako lagun izateak
asko kezkatutzen gaitu,
bide horrerri zeinek diogu
mundu honetan jarraitu
igual hasten baldin bada ere
gero aguro amaitu,
horretarako behar genduke
bat besteakin anaitu,
ta auzoan dagon behartsuakin
baitare pixkat ekuitu,
danori behar diguena da
bihotza ere mugitu
auzoko harek penazko malko
asko botatzen baditu,
nik galdetzen det nor ote geran
horrenbeste errukitu,
beste aldera beira ta parra
eginda nonahira abitu,

gaurko jendeak desgrazi txarrez
holako akatsak ditu,
hoi jakiteko proba hobeak
batek eman behar ditu.

Ni neroni ere ez naiz santua
ta ez naiz joango inona
ta ez det esango neroni ere
naizenikan kristau ona,
lehen esan degu jakin behar dala
laguntzeko nor *dagona*
ongi pentsatzen jarri ezkeru
gauza hori ez da broma,
hori egiten duen kristaua
juzgatu leike gizona,
zoritarrez hor denok daukagu
noski zerbaite sakona,
ez det bereizten galtzadun eta
ez det berexitzen gona
kristau bakoitzai bere barrutik
hoi da sortutzen zaiona,
ikusirikan negar malkotan
bat premiturik *dagona*
hari lagundutzea bai degu
mundu hontan beharrena,
ta esan liteke lagun bezela
bat kontatu behar dena,
hitz batean nik juzgatutzeko
hor lagundutzen duena.



Gogoan al dizue Mitxelena-ren kantatzeko modu hura?

ANOETA 1974-XI-17

Zaharren omenez

-Gizona tximinotik omen dator-

Mitxelenak ere, denbora izanez gero, bertsoa prestatzen zuen, eta ez, bukaera pentsatu gabe hasi eta segi, berak esaten zuen bezela. Lehenengo bertsoan, 4.puntua ez ezik, 3.a ere ongi lotzen du 4.goa-rekin.

. . .

Gaurko jende askoi begiratuta
aurpegi edo burura,
makina bati hartutzen zaio
tximinoaren itxura.

* * *

Gaia: Batzuk diotenez, Gizona tximinotik omen dator.

Bertsolariak: Egileor, L.Txiki eta Mitxelena.

Egil.: Itxura danez, gaurko gai honek
agindutzen du honela,
nere ustetan ez dute jarri
oso lanbide motela,
esan digute gizonai ere
tximinotik datorrela,
hiru gizon ta diferenteak
uste det bertan gaudela.

L. Tx.: Ene anaiak, hau erantzuten
ez digute jarri txantxa,
ez det egitan juzgatzen behintzat
nik askoren esperantza,
jakintsu hoiek aski dakite
ta hau da komeri latza,
nik galdetzen det hemen hirutan
nork degun tximino antza.

Mitx.: Kristaua nondikan heldu zaigun
hori omen degu duda,
zer edo hura esateko ere
jaunak, denbora heldu da,
gaurko jende askori beiratuta
aurpegi edo burura
makina bati hartutzen zaio
tximinoaren itxura.

Egil.: Bi haundi xamarrak gaude eta
beste bat oso txikia,
tximino honek ez du zabaldu
arraza bat egokia,
ta Mitxelena baldin badegu
tximinotik etorria
tximino harrek hartuko zuen
beraz deskantsu handia.

- L. Tx.: Jakinduriko gauzak etzuen
hortaratzerik merezi,
hemen nork daki gizasemea
nondik sortu zan lehenbizi,
tximinoan behin ere ez det
antiajukin ikusi,
horregaitikan gaur etorri da
betaurreko eta guzi
- Mitx.: Beraz horrela mundu honetan
degu mila gora-behera
tximino ta kristauan kontutan
hizketan hasiak gera,
orain erabaki behar genduke
hartutako gauza bera,
kristau izanik munduratuta
asko animaldu gera.
- Egil.: Tximinoaren gaia sarturik
degu geure barrenean
ta gehientsunak parra egingo dezu
hau aditzen dezunean,
Lazkao Txikik berrogei kilo
dauzka bere barrenean
gose urten bat izango zuten
hori egin zutenean.
- L. Tx.: Nahi dezuena zuk bota zazu
batere ez dit inporta
esandakoak aditutzeko
lasaitasunez nago-ta
tximino bada, hau zaharra dala
nik dadukat buruz jota
goi aldetikan ile gehienak
aldeginikan dago-ta.

Mitx.: Tximinoak baino txarragoko
animaliak badare,
ta Laxkano horrek hartutzen du
gaur tximino baten pare
kontrako animali horiek
etorriko balirade,
gu baino hobeto dago arbolan
behetik gora joateko ere.

Egil.: Gaia honela jarri dute ta
dantzatu behar mingaina,
ta berriz ere Lazkao Txiki
dantzatu nahi det ahalegina,
gorputzez ere ikusten zaitut
zaudela oso arina,
gu hirurotan zuk dadukazu
tximino trazaik haundina.

L. Tx.: Hara azkenean, ohi dan bezela
txikiari kargak tira,
beldurrik gabe edozer gauza
esaten du aurpegira,
selba aldera zuk egin zazu
ikasi arteko jira,
eta pentsatu tximino haundi
xamarrak ere badira.

Mitx.: Egileor, zu, ari zerade
Joxe Migelen jipoiez,
esanaz txikia da berori
ote dagoen doi-doez,
ni nabil animalia guztien
izenak gaur eman nahiez,
hoi tximinotan kontatzezkeru
gu egin gintezke lehoiez.

EIBAR 1974-V-25

Uztapideren omenez

Ofizio honetan, gusto-gustoko papera tokatu zitzaion Mitxelenari (dibortzioaren kontrakoa). Eta baita ederki aprobetxatu ere, bere ikastalditxo emateko.

Lehenengo bertsoan, kontzientziaren kargak, juramenduak, fedetak eta bete beharrak aipatuko dizkio Mugartegiri.

Bigarrenean, gizontasunak, sufrimentuak eta zerua irabazteko bete beharrak.

Hirugarrengoan, berriz, beste Mitxelena bat agertzen zaigu. Mitxelena zorrotza eta erantzule abila. Bestela, kantatu sail honetako azken bi bertsoak (Bakarrik bizi bazera ez dezu separatu beharrik).

* * *

Gaia: Mugartegi, dibortzioaren alde.
 Mitxelena, “ kontra.

Mug.: Mundu honetan zereginikan
asko sortua da gaurko,
nik dadukaten eginkizuna
ez det ondo negurtuko
hau entzutean Mitxelena hau
ez ote da bildurtuko,
ni ezkontzari uztera nua
aspertua naizelako.

Mitx.: Pentsamentu hoik hartu baituzu,
zure buruan kaltean
fedea on hori galdu behar dezu
munduarekin batean
kontzientzian kargik etzazu
gero hemendik joatean,
juramentu hoi kunplitu zazu
arnasa dezun artean.

Mug.: Ni ere gogor uztartu nintzen
baina berehala bigundu
sinistu zazu emaztiakin
ezin naiz ondo konpondu
bide txarrean aurkitzen gera
bide onik ezin atondu,
zu-re aspertuko zinan andrea
gaiztoa hartu bazendu.

Mitx.: Nahiz ta hura bera txarra izanda
zu porta zaitez ondradu,
gizontasunak izaten baitu
beste ezerk hainbeste gradu
nahi dan bezela bizitutzeko
suerterik inork bai al du?
Eta zerua irabazteko
hemen sufritu behar du.

Mug.: Zuk, Mitxelena, nere esanak
hartu itzazu gogotan
ni ezkondua oso aspertu
izana bait naiz askotan,
beti bakarrik, laguntzarik ez
horrela egoten naiz lotan
bakar-bakarrik askoz da hobe
horrela izatekotan.

Mitx.: Zu, Mugartegi kontu horrekin
badezu zerbait gezurrik
zuk bota dezun arrazoiari
ez diot bilatu itxurik,
zenbait egun ta gau nola hor zuk
pasatzen dezun bakarrik,
hola bazaude ez dadukazu
zuk separatu beharrik.

* * *

Puntua jarrita.

Iriondo: Zestuan jaio eta
Oiartzunen bizi

Mitxel.: Hori denei diegu
guk adierazi
euskaldun danak degu
Uztapide ikusi,
gure gizaldian degu
guztien nagusi,
horrek hiltzerik ere
ez luke merezi.

* * *

Mitx.: Gaurko eguna euskaldun danok
izango degu goguan
ta badakigu motibotako
gizona ere nor *duan*
bere eskeini bat egin behar zaio
merezi duan orduan
gure Uztapide euskaldun danok
nola maitea deguan
ez da Eibarren bakarrik hori,
hemendik mila leguan
burutik nahasten ez dan gizona
udaran eta neguan,
txori moduan ibilia da
erdi kantari, heguan
orain ez dauka behar hainbat indar
sasoia zaiola juan,
osasunez-e suerte gehiegi
apenas izana *duan*,
garai batean kantatzen zuen
bai aski sasoi senduan;
Jaungoiko harek eman ta kendu
nola berak eiten *duan*,
Uztapideren omenaldi hau
egin beharra genduan.

Gure gaurko egun eder hau
lehendik gendun aditzera
gizon batzuek jarri ziraden
festa honekin agintzera,
ta bertsolaia maite dun batek
nola egingo du atzera
ta batez ere gizon batek hor
egindakoa zahartzera
gaur etorri da merezi zuen
sari eder bat hartzera

lehendik sartua nola dagoen
euskadunen bihotzera,
bertsolaririk ez da sartutzen
erdaldun odol hotzera,
guk euskaldunak egiten dugu
elkarri lagundutzero,
gaur ere garbi agertu zaigu
lehengoetako antzera
Eibar hontara etorri dira
maitasun bat eskaintzera.



Lazkano, K. Lizaso, Mendizabal eta Mitxelena.

KARMELO BALDA

(Donostia) - 1976-I-25

Lazkao Txikiren omenaldia

Gaia: Flakatzeko errezeta eman behar dio Xal-badorrek Mitxelenari.

Mitx.: Beira Xalbador, ni zuregana
nator gaur txoraturikan
erremedio on batzuk ere
dauzkazula jakinikan,
zerorri ere nola bai zauden
hainbeste argaldurikan
neri emango al zenidake
flakatzeko botikikan.

Xal.: Ni hain argala nagoelako
eta Mitxelena lodi,
zer egin behar den jakin nahian
etorri da gizon hori,
uko egin nahi baldin badiozu
zure gizentasun horri
ene andreakin bizitzera
gure etxerat etorri.

- Mitx.: Ez didazu ez erremedio
eskasena bilatuta,
ni nago hemen gizenegi ta
zu gehiegi flakatuta,
zu nereakin, ni zureakin
hortxe andreak batuta,
zu-re pixka bat gizen zindezke
andreak kanbiatuta.
- Xal.: Bertso hontako ene errezeta
izango da nahiko labur
baina jarraitzen baldin badezu
mehetuko zara segur,
baso bat ardoren lekuan zuk
edan beti bi baso ur
eta aste bakoitzean egin
hiru egunetan baru.
- Mitx.: Beira Xalbador, etzazu ekarri
hain errezeta grabia,
flakatu erreza berea du, bai
jan ta edanik gabia,
gure etxean behar diranak
aurrean izaten dia,
kondizio hoitan nik nahiago det
lehen daukaten andria.
- Xal.: Mitxelena hau aspertua da
berak dadukan gurinaz,
ez da gizona argal egoiten
hoinbertze festa eginaz,
baldin zu inbidian bazaude
daukadan gorputz arinaz,
gorputzaz baino gehiago orain
ardura zaitez arimaz.

Mitx.: Zuk ez didazu erremedioik
eman gorputzarendako,
hau badakigu bera zergatik
dagon argal edo flako,
gure etxean baldin balego
loditu litake bapo,
gizon meharra daukagu baina
andre zuhurra dualako.

Xal.: Etzen andreaz hitzegiteko
gai sakon hau guri eman,
baina Joakinek nonbait horretan
irtenbidea hauteman,
engoitik orain zuk hasi zaila
inhaute hautan eraman,
baina nik esandakoz oroitu
zu datorren garizuman.

* * *

Gaia: Aberatsak, geroz eta aberatsago.
Pobreak, geroz eta pobreago.

Bertsolariak: Lopategi
Mitxelena

Lop.: Klase ezberdinak etorri ginan
gizon klase bi mundura
eta bakoitza defenditzen da
berak ahal duen modura,
Mitxelena hoi turistarekin
jaten emate kontura,
aspaldi hontan hartua dago
aberatsaren itxura.

Mitx.: Zuk diozunez aberatsaren
itxura dadukat, beraz,
baino itxurak joaten dira
inoiz etxean galeraz,
hor alper xamar zabiltzatenok
ta munduan bizi erraz,
ni lan asko egin eta pobre
eta besteak aberats.

Lop.: Aberasteko okasioak
izaten bait ditu aunitz
Mitxelenaren neurriak ongi
hartu gurarikan gabiltz
aberatsaren itsura dauka
tripa ta ipurdi haundiz,
prezio ona egingo luke
pisura salduko balitz.

Mitx.: Zuk dadukazun bizimoduai
bota litzazke bertsuak,
lurperatuta utzi dituzu
baserritar kementsuak,
janari ona dezula esanez
engainature batzuak,
nere ipurdiak ez ttu loditu
Lopategiren pentsuak.

Lop.: Diru bilatzen zenbiltzan eta
etzaude gizon erkina
goitik beheruntza begiratuta
gizon haundi ta gordina,
aberats eta pobreentzako
ez dauka tratu berdina
gurea baino hobea baita
aberats hoiien propina.

Mitx.: Zue berdintsua daukat nik ere
etxeko eginkizuna,
eroatera datorrenai eman
mahaiean behar dezuna,
baino zuk ere pisuan behinik
bauzu pekatu lizuna
baserritar gutxi izango da
zuekin indartukoizuna.



Lazkao Txiki eta Mitxelena. Biak ere bertsolari handiak.

OLARTZUN - 1978-II-5

Mitxelenari omenaldia

Agurrak:

Xanp.: Oiartzunerat urrats batzuek
egin derauzkat eginak
zuen artean kausitzeak nau
gaindiz bete atseginak
anai maitea egun guziak
ez dauzkazu ez berdinak
onartu zazu Iparraldeko
haurridien eskuminak.

Etxeb.: Egun-on Jainkoak lehenen (bir.)
eskeintzen dizuet hemen
gaur Mitxelena herri osoa
dago zure aldamenen
besarkada hau eskeintzen dizut
Gipuzkoaren izenen (bir.)

J. Enb.: Egun on zuri Oiartzun dizu
gaur Bizkaitik etorriak
barriro ere gaur bildu gaitu
bertsoaren egarriak

bere omena egin nahi dio
Mitxelenari herriak
merezi zuen hainbeste bertso
eman duen iturriak.

* * *

Uztapidek bidalitako bertsoa Mitxelenarentzat:

Zu, Mitxelena, gazterik zinan
bertso lanian hasia
omenaldi hau izango zendun
aspaldi irabazia
nik berriz daukat nahi detanikan
ezin adierazia
Jaungoikuaren eskuan dago
gure izate guzia
eman daizula zahartzaro on bat
igarotzeko grazia.

Lexotik bidalia:

Mitxelena hau zer kristau degun
azkar egingo dut kanta
beraren berri jakingo zute
dakien batek esanta
bihotza ere emango luke
norbaitek baluke falta
bertsolai ona, euskaldun fina
borondatia galanta
herri guztiak maite zaitugu
maitagarria zera-ta.

Azken agurrak

Garmendia:

Azken agurra eman behar dala
anai-arrebak orain entzun
Euskal Herriak badu oraindik
ez dakit zenbat ondasun
bertsolarion artean bada
nahiko indar ta osasun
berandu behinik egun jator bat
hemen etorri behar zun
oso pozikan egon litezke
Mitxelena ta Oiartzun.

Egileor:

Azken agur hau eskeinitzeko
sortuko al zait indarra
beti bezela gaur-e poztu nau
zuek bixita beharrak
azkenez haxe agindutzen dit
maitasunaren sugarrak
ondo bizi ta nahi dezun arte
adio oiartzuarrak.

Lazkano:

Ai! Mitxelenak badu berekin
bertsozko hainbat birtute
horrek ta horren antzeko batzuk
guri erakutsi digute
hau ikusita bere herriak
oso-osorik du maite
ta orain dagon aulki zabal hau
horrenbeste norrek bete
neurritz-ta gizon iristen da ta
jarri zazute alkate.

Jon Enbeita:

Ez zaitu laster ahaztuko Joakin
gaur egina zun omena
baina ez pentsa egun hau danik
zure bertsoen azkena
urte askotan izan daizula
jarraitutzeko kemena;
Agur Oiartzun nahi dezun arte
zorionak Mitxelena.

Agirre:

O! Mitxelena bihotza lehertu
behar zaitu azkenerako
herririk-herri zu hasi zinan
mutiko zinanerako
gu ere lagun egin ginaden
alkartu ginanerako
aurrera ere pronto gaude gu
alkarrekin lanerako
Jaunak luzaro gorde zaitzala
Euskadiren onerako.

Etxeberria:

Mitxelena, ez dakit
nik nola erantzun
bainan egun haundi hau
etorri behar zun
zuhaitz arbol haundiak
badu hainbat zentzun
ea herri maitea
ongi zaintzen dezun
hori hiltzen danean
hilko da Oiartzun.

Amuriza:

Atamitxeko ugazabari
mila agur ta ohore
Lazkanok zion bezala alkate
gingo luke dotore
lehen Donostian hartu zituen
hainbat sari eta lore
orain Elizan nonbratzen degu
santu-santen senadore
Madrilen ere berau balego
ez ote litzake hobe.

Xanpun:

Mitxelenari Euskal Herriak
eskainia ohorea
zeren bait daki zer den umeak
duen talentu o donea
estimatua haizela Joakin
hau duk ba ezin gordea
zeruko Aita, eman gaitzazu
beti horren umorea
eta begira zazu Oiartzun
eta hau haren lorea.

Mitxelenaren agurra:

Goiz partetikan hartu naute gaur
txistu ta tanbolin hotsez
lehenago triste banegoan-e
hoiek jarri naute pozez
gero herriko launik haundinak
nere inguruan daudezez
maite nazutela nabari da
gaurko zuen aitortzez
beste gauzikan ezin det esan
eskerrik asko bihotzez.

Nik esaten det zenbat neurriko
haundi ta txiki gizonik
ez det pentsatzen leku hauetan
inor umiltzen ez danik
zuen eskeiniak ikusi eta
bihotza larri daukat nik
ba nekian bai lagun maiteak
inguruan banitunik
baino ez nuen sekula uste
hainbeste maite zidatenik.

Lehengo kontua esangout berriz
malkotuta begitikan
osatu naute bai txalo eta
baita erregalitikan
batzuk herrian bertakuk eta
bestik Errenteritikan
milaka esker esateizutet
zuen bihotz haunditikan
berriz esango-ut pixkat bai baino
horrenbeste zergatikan?

DONOSTIAN - 1979-IX-7

Gaia: "Sekulan ez da sartu izandu donostiarrik zeruan ..."

Bertsolariak: Lazkao Txiki, J.Lizaso, Xalbador II, Mitxelena, Lazkano, Lasarte.

L.Tx.: "Donostiarrik ez da zeruan"
zaigu hoi esaten hasi,
baina ez diot gauza egia
danikan, jaunak, iritzi
ikusirik hain, gauza eder ta
hemen dagon hainbat pitxi,
Donosti hontan bizitzen dana
zeruan ez al da bizi?

J. Liz.: Jakingo nuke nolakoa dan
Aranalden iritzia
Donosti zahar hau aspaldi hontan
ondo daukat ikusia,
euskaldun batek berekin dauka
negarra eta antsia,
urte hauetan donostiarrak
zerua du irabazia.

Xal. II: Bertzerik ezin eta hasten naiz
hauen hitz berak berritzen,
donostiarrik zeruan ez da-
gola ez det gogoan hartzen,
ta Aranalde apaiza izanda
nola ez zera ohartzen
donostiarrek egun hauetan
nahikoa dutela sufritzen.

Mitx.: Zerbait esan nahi nuke nik ere
donostiarren goguan
lehen esana da nola jendea
hemen gaixtua daguan,
penitentziak balio badu
zerbait eginda munduan
urte hauekin sufri dutenak
sartuko dira zeruan.

Lazk.: Hamaika kontu entzuten degu
jaio ginanak lurrean
ahal bada denok bizi nahi degu
zorianetik hurrean
nahiz ta apaizak zeruan fama
guri esan indarrean
nik nahiago det zeruan baino
Donostin, parte zaharrean.

Las.: Jaunak ez al zun donostiarrik
zeruraino eramango,
nik hainbat ez nuke hitzegingo
ezjakinean banengo,
zerua ez da Donostitikan
oso urruti izango,
gaur behintzat bertan ez dagoenik
ere ez nuke esango.

- L.Tx.: Donostiarrik zeru goian
ez al da esaten dute
hemendik joanik ez dagoela
hala esango nuke neuk-e,
hau baino askoz ederragoa
zerua danik ez uste,
ederra izango da baina gaurtik
hemen firmatuko nuke.
- J. Liz.: Agertu nahi det nola izan zan
guzi honen aditzera
nik-e sermoi bat egin nahi nuke
lehengo Bilintxen antzera
donostiarrik ez baita jeitxi
behin ere linbo beltzera
hil da gerore aldatzen dira
zeru batetik bestera.
- Xal. II: Herri hunentzat Xalbador zenak
zuen maitasunagatik
ote det herri hau haren gisa
maitatzen nik bihotzetik,
berare orain beha badoke
donostiarrei zerutik,
ni Donostira etorritzen naiz
zerura bezain gogotik.
- Mitx.: Lehengo esaera: -Donostiarrik
ez da zerura sekula-
baina uste det horren buelta
orain bilatu degula,
esaten dute zeruratzeko
hemen sufri behar dula
donostiarrak uste dut atea
ederki ireki dula.

Lazk.: Nik konseju bat Donostiako
seme on eta alaba:
Euskadirentzat eman eguna
ta Euskadirentzat gaba.
Ta heriotzak jotzen dunean
bere azkeneko aldaba
zorion hori seguru degu
zerurikan baldin bada

Las.: Ekaitz gogorren aterpean ta
haize txarren babesean
ene Donosti zu etzaude ez
paraje aldrebesean,
gaur bezelaxe holaxe segi
ahal bai denbora luzean
mundu honetan ez da zerurik
Donostin izan ezean.

* * *

Puntutan.

Gaia: Donostiako Udaletxeak enterradore bat
behar du.

Bertsolariak: Lizaso, Lasarte eta Mitxelena.

Li. Beraz hemen falta da
enterradorea

La. Nik daukat hortarako
taila dotorea

Mi. hiltzen den edozeinek
dauka faborea

Li. Hau dago aitzurrean
aritu gabea.

- La. Garai batean bazan
nahikoa aitzurra
- Mi. orain hilentzat ez dute
ikuitu nahi lurra
- Li. Mitxelenek aitzurrai
hartu dio bildurra
- La. hau aitzurrean jartzen
ez dago xamurra.
- Mi. Aitzurrean ez al naiz
egongo bikaina?
- Li. Zolua egin behar balu
beretzako aina
- La. Oraindik zuk daukazu
sasoia bikaina
- Mi. zolua bestentzat hobe
neretzako baina.
- Li. Gogor xamarra izan da
gaur esan duana
- La. neuk ere ez dadukat
burutik juana
- Mi. Nor da beretzat zulo
egin zale dana?
- Li. guk igual egingougu
biak erdi bana.
- La. Lana hartuko dugu
egun guztirako
- Mi. nitzat egin gabe dira
mundutik jirako
- Li. lurra besterik behintzat
ez diot botako
- La. lur azpian sartuko
degu betirako.

- Mi. Gauz hoiek aber gero
aldrebesten diran
- Li. danak kontauko dira
nor bere segiran
- La. nik azkar jan nun honek
zer esan nahi zidan
- Mi. aber nere aurretik
biok joaten diran.
- Li. Nonbait ikusi gaitu
hemen ezinian
- La. ni hala ikusitzen
naiz pini-pinian
- Mi. zu zaude grasik gabe
ta gorputz finian
- Li. belarra irtengo dek
bai honen gainean,
- La. Lizasok esan duna
polita izan da
- Mi. ni hara joanda ere
probetxu galanta
- Li. hau da enterradoreak
daukan propaganda
- La. belarrik ez da nere
haragia janda.
- Mi. Beraz ni banihoa
kontentu lurpekuk
- Li. hil da berehalaxe
tapatuko diguk
- La. beraz izan behar du
nahikoa kastigu

- Mi. han lurpeko zatorrak
 indartukoizkiguk.
- Li. Hau da enterradore
 honen historia
- La. oraindik gogor dago
 honen memoria
- Mi. eskoikua trakets ta
 ezkerra eria
- Li. honekin agurtzen det
 agur, Donostia!

MARTINI OME OARRIZUNEN



Lazkao txiki, Mitxelena eta Garmendia.

DONOSTIAN - 1979-XII-16

Manuel lekuonari omenaldia

Disfrazaren gaiari ez dio behar bezela heltzen. Disfrazarena ez bait du aipatu ere egiten. Baina hartutako bidea, oso ongi eramaten du bi bertsoetan.

1.- ...

baina neurrian zetorrenikan
bate ez nuen bilatu.

2.- ...

han zen trajea jantzita behintzat
ni kaleratu banintzan
bateonbategen pentsatuko zun
torero bat ote nintzan.

Ez dago dudarik, Mitxelena zenak zuen itxura ikusita, 2. bertsoa irudiak kolpe gaitza, efektu ona lortu zuela entzulegoarengan.

Mitxelena: Manuel Lekuonaren omenez, 4 bertso.

- 1.- Gure Don Manuel gizon bat degu
burutsua ta sakona
Euskal Herrian gure artean
ezagaturik dagona
berrogei eta hamar urtian
ez da geldirik egona
joan berrogeita hamar urte-re
honek egin zuan lana
bertso lanare jaso ziguan
baztertu eta zegona

- 2.- Ondoreneko bizimodua
izandu zuan tristea
iritxi baizan Euskal Herriai
bere ateak ixtea
gizon onakin pentsatu zuten
hoiei lepua moztea
bera-re joan zan Euskal Herriai
pixkat bazterrin uztea
orduan nahi zan momentua zan
bizia salbatutzea.

- 3.- Lau bat urtian gordeta egon zan
hori da bere aitorra
etsaien bildur txokoratuta
holako gizon jatorra,
ta bazirudin handik gero-re
bai ote zedukan zorra
berari eman ziotena zan
jaunak, holako zigorra
desterratuta hamalau urtez
biali zuten Kalahorra.

4.- Gaur esker pixkat eskeni nahi da
dago gehio merezirik
inor ote dan lanakin berak
baino gehio irabazirik
Manuel Deuna hau laster joango da
gure mundua utzirik
baino obra on asko bai daduzka
euskeran erakutsirik
Don Manuel hau hilko da baino
bere izena bizirik.

* * *

Gaia: Atzo Donostian disfrazta erosten omen
zinen.

- 1.- Atzo egunez Donosti hontan
nitzan, jaunak, abiatu
denda batian erropa mordo
bat zien aurrin pilatu
han zegoanak nere soinean
sartzen ziraden saiatu
baina neurrian zetorrenikan
bate ez nuan bilatu.
- 2.- Nere denboran gaizki ibiltzen naiz
oain arte erropa langintzan
gauza horiekin sufritutzen det
mundu hontako bizitzan
han zan trajia jantzita behintzat
ni kaleratu banitzan
bateonbatek pentsatuko zun
torero bat ote nintzan.



Hernani Txikia eta Mitxelena. Hura Sasoia!

DONOSTIAN - 1981-I-18

Loidisaletxe eta Paulo Txikiaren omena

Agirre - Mitxelena

Gaia: Zer prezio ote dauka Mitxelenak?

Agi.: Zerbait esaten hasi behar det
nahiz eta duda eduki
ahal dan bezala gaurko auzi hau
beharko degu ebaki
Mitxelenak zenbat balio dun
behar dala erabaki
honen pixua urrea balitz
balio luke galanki.

Mitx.: Nere pixua urrea balitz
gure Agirrek esan du
nere pixuaz ote litazke
oker guztiak zuzendu
hoinbeste urre kiloz eukita
asko litazke mantendu
hobe zenduke zeure erdia
zeuretzat baldin bazendu.

- Agi.: Erdiarekin kapaz nitzake
betiko ondo jartzeko
baina Mitxelena ez degu fina
gaur urrez konparatzeko
ta zer prezio egin behar dan
nik ez dakit honentzako
txekorra balitz balio luke
haragitara saltzeko.
- Mitx.: Nere balioa zenbatsu dan
honek hartu nahi du notan
eta entzuten zaudeten hoiek
hartu zazute gogotan
badakizute honen aldian
asko naizela kilotan
honen ginarrez hainbat balio
nik badadukat sebotan.
- Agi.: Hobeko degu ahal baldin bada
lanari txukun helduta
petralkeria aritu gabe
altura hortan azalduta
ikusten zaitut hain gizendua
ta lehenaz gain makalduta
zeutzat bentaja ederra noski
hogeï bat kilo galduta.
- Mitx.: Neronek ez det mesederikan
haundiegi eginake
neuk sufritzen det nere kargakin
Jaunak makina bat neke
baino zu zeran tamainatikan
bajatuko bazinake
hogeï bat kilo kendu ezkerro
zu zer izango zinake?

Bazkalondoan.

URBIA jatetxean.

Mitxelena: Euskal Herriko lehengo zainez-e
asko dago gaur igarra
ez degu egiten garai batean
gendukagun irriparra
etxe askotan sartuta dago
lutua eta negarra
gure herria alaitutzeko
ba da zerbaiten beharra.

Euskal Herrian holaxe, Jaunak,
damazkigu zenbait urte
gure herriari erori zaio
ez dakit zenbat elurte
ekaitz txarra honek galdu gaitu
ta ez dakigu noiz arte
gure laguntzik ez da faltako
guria behar badute.



Mitxelena: Olalde, Telleria eta Peñagarikanoekin. Gazteak frogaiztea gustuko lana zuen.

OLARTZUN - 1981-VI-7

Gaiak: Kaxka

Mattini omenaldia

Zirujanoaren gaian, Mitxelenak ongi eramaten du bere papera, lehenengoan, berari, sobran zuena kentzeko eskatuz, nahiz eta Lazkao Txikiri erantsi ez.

Bigarren goan bere ironia puntua azaltzen da, baina, lehengo bidetik jarraituz. Lazkao Txikiri ez eransteke ezer, lehengo pixuarekin ere, zutik nahiko juxtuan zegoela eta.

Eta hirugarren goan bere ironia areagotzen da, Lazkao Txikik Hego haizetan nola ibili behar lukeen galdetuz, Mitxelenaren buruarekin.

* * *

Zardin zaharrekin, berriro ere pareko gaia aurkitzen du, bere lezio edo ikasgaitxo emateko.

Zardin zaharrari burlarik ez egiteko, kristau askoren bizia salbatu duen janaria dela, pobreen salbatzailea ...

* * *

Garmendia: zirujanoa.

Mitxelena: biekin bi gizon berdintsu egin behar

L. Txiki: ditu, Garmendiaren moduko bi kozkor.

L. Tx.: Badakizute mediku eta
Mixelena ta ne berri
erreparoa une batean
jarri beharko alkarri
neri zeozer ipini behar
ta kendu beharko horri
une batean pentsatuko det
zer kendu eta zer jarri.

Mitx.: Mediko jauna, gaurko egunez
zuk zer diozu iritzi?
nik alperrikan sobra badaukat
nik ez dakit zenbat txitxi
puska bat kenduko bazenida
ez nuke mesede gutxi
neri kendutzen saiatu zaitez
nahiz honeri ez erantsi.

Garm.: Badakizute sendagilean
kategorian nagona
aurrerapenan bidek zabaldu
nahi nukena zoriona
gaur eguardean hemen bi gizon
etorri zaizkida hona
gizon txikiak emango diot
haundiari sobra zaiona.

L. Tx.: Mediku jauna, entzun zaidazu
egindako erregua
ongi dakizu lagun hau dala
ni baino haundiagua
baina kargatik nahikua det-eta
gauz bat eskatzera nua:
lehengo lekuan utzi itzazu
ipurdia ta burua.

Mitx.: Gizon txikiak hemen eman du
berak sentitzen dun nota
karga haundiak bait lezake hau
azkar hor lurrera bota
etzaiozula puskik erantsi
bere gorputzaren kontra
lehenon dituan kiluakin-e
zutik juxtuan dago-ta.

Garm.: Lazkao txiki, pentsamentu bat
nola dan nere goguan
zuk esan dezun aitormen hori
bete beharko det orduan
honen bururik ez dala egongo
Lazkao Txikin lepuan
ipurdia-re zure hankantzat
haundiago da orduan.

L. Tx.: Beste aldetik ez nago pozik
medikuangan jua-da
nik bezelaxe ikusiko da
berak zer planta duan-da
ez det pentsatzen eingo duenik
medikuen propaganda
bi bastoiekin etorri zaigu
bera mediku izanda.

Mitx.: Zu, medikua, kontu eduki
ein behar dezun gauzetan
gizon txiki hau utzi gabe hor
geroko ezerezetan
nik gauz bat zuri jarriko dizut
hasitzeko errezetan:
nere burua erantsita nola
ibilko da hegoaizetan.

Garm.: Alde batera sendagile kon-
tu hontan ez naiz arrotza
azkenerako neri lehertuko
zait arrazoi zorrotza
hemen bakoitzak bere gorputzaz
noski izango du poza
nik kanbiatuko nukena da
bi gizon hauen bihotza.

* * *

Mitxelenari: Bi zardin zahar eskuan zintzilik.

Ekarri nauten zardin pare hau
hain degu gauza gazia
gaurko egunez kristu gutxiri
egiten dio grazia
garai batean etzan betetzen
gaur daukagun kutizia
zenbat kristauri janari honek
salbatu dion bizia.

Honek ez dauka zenbaitek hainbat
sabore eta kolore
baina uste det hau jan behara
etorko dala gerore
gaur ez daukagu oain hamar urte
hainbat broma ta umore
hau ez da gero burla eitekua
burla eiten bazaiore.

Zerbait lezaken beste moduko
hau botzen du itzalea
garai batean mantentzen zitun
baserri eta kalea
ez gero uste bera danikan
janari ajolagabea
hitz baterako esan litake
pobrien salbatzailea.



Sardina zaharrak eskutik zintzilik dituela.

OLARTZUN

1982-VII-13

Bertsolariak: LEXOTI ETA MITXELENA

Lekua: Altzibarko Anixeta tabernan.

Urte horretan, Ikasturte bukaera zela eta, Ikastolako irakasle bazkarira gonbidatu genituen Mitxelena eta Lexoti, bazkalondoren umore pixkat jartzeko asmotan. Bazkariaren truke aritu ziren eta nola aritu ere!

Hiru bat ordutan ihardun zuten jo eta ke batak besteari zeinek baino zeinek handiagoak bota.

Doinuak eta neurriak tarkeka aldatzen zituzten, eta aurrera.

Lexoti tarteko izanik, gaiak ezagunak ziren: andregaiak, diruak... Baina, batez ere lehenengoari ekin zioten.

Izan ere Lexoti gizarajoa andereñoz inguratua gozen, eta hark ez zuen besterik ikusten.

Batez ere Arantxa Sarasti andereño oiartzuarra gustatu zitzaion, eta harentzat ziren gonbite guztiak:

Lex.: Jendea hemen aurkitutzen da
oso kontentu ta parrez,
pentsatuko-zu ari naizela
orain hizketan aldrebes,
zuk nahi badezu ezkontza hori
zerratu leiteke errez,
karikan kara esan zaidazu
konforme zeran ala ez.

Mitxelena ere tentatzeko zegoen, eta honela
jarraitu zuten:

Mitx.: Hiri begira, baina ez ditek
bihotzez egiten farrik,
hik ez al dakik ez daukakela
sasoi oneko izarrik.
Heuri gogoak eman behar tzin
ez huen galdetu beharrik,
hoin maitasuna gaur eukiko dek
pixka batean bakarrik.

Lex.: Gertatu zait gaur hiru hoiekin
mahai honetan biltzia,
Lexoti gizon jatorra dela
lehen ez al duk aditzia?
Bate pentsatu-re egin gabe
ailegatu zait zahartzia,
baina esan dit hartuko naula
neria bada etxia.

Mitx.: Holako batek molda dezake
euneroko potajia,
gure Lexotik ere ba dauka
oraindikan korajia,
berari kentzeagatik, zuek
mutil zaharraren ajia,
neuk pagatuko nituzke boda
eta bodako trajia

Lex.: Aizu neskatxa zuk nahi badezu
egingo degu tratua,
ni izango naiz beti zurekin
oso ondo portatua;
andre bezela egun batean
izango zaitut hartua,
hartzen banauzu gizona duzu
herriko enpleatua.

Eta berrio ere Lexotik kantatzen du hurrengo bertsoa, Arantxari bere eskaintzak eta eskaerak luzatuaz:

Lex.: Zure atzetik hontaz aurrera
emango-itut zenbait pauso,
izango zera gure etxean
famiako guraso;
dudarik ez dut gaur hemen jartzen
formala zerala oso,
izango zara zu maixtra eta
ni izango nauzu maiso.

Mitx.: Lexoti honek egiten digu
gaur bihotzezko nigarra,
baina, sinistatu ezinikan
nik egiten diot parra,
parranderoa izandu dala
fallu hori du bakarra,
ezkondutzeko izango du bai
maixtra on baten beharra.

Gauzak horrela, azkenean behintzat Lexotiri hor joaten zaio eskua eta ikuitu txikiren bat egiten dio andereño bati.

Baita Mitxelenak azkar asko eraso ere:

Mitx.: Lexoti jarri zaigu
neskatxekin minez,
eskuak geldirikan
eduki ezinez,
ez zaitezte izutu
hain kolpe zikinez,
asko ikuitu baina
ezertxo egin ez.

Lex.: Lexoti hemen ai dek
neskekin lanian,
ikuitzea tokatu
zait derrigorrian;
ta hiri hauxe negok
esan beharrian:
Aukera hau ez huen
sasoi huenian.

Handik berrogei bertso tara edo, Lexotik andrea hartzezkotan ere kategori handikoa nahi duela dio. Eta Mitxelenak hara zer nolako bertsoa kantatzen dion:


Mitx.: Orain esan dituenak
astakeri nabarmenak,
zirikote bat sartuko
dio orain Mitxelenak:
Honek nahi ditun gradu denak
kategoria dutenak;
berdin pentsatu ezingo dik hi
hartu behar hauenak.

Mitxelenak, izan zuen aukera azken urte honetan Lexotiri bertso pare bat kantatzeko.

Aduriz Sagardotegian izan zen, 1988ko Bertso Astearen barruan. Kaxkak honela jarri zion gaia: «Euskal Herrian urtero bertsolari bat omentzen da. Datorren urterako ere aukeraketa egina dago, eta Mitxelenak ba daki bertsolari hori nor den. Bi bertso bertsolari horri».

Lexoti da gizon hoi
ez dago auzuan,
baina bilatu leike
lehenengo pausuan.
Pixkat gaixotu zan ta
arrebana jo zuan,
bizitzeko laguntza
izango bazuan;
zein dan aitortutzen det
lehenengo bertsoan.

Hurrengo urterako
zioten deitu
Lexotirentzat ziren
nonbait errukitu;
pentsatu zutena-etzait
gaizki iruditu
hark ere bertsoetan
lana egin baitu,
eskaintzen zaizkionak
mereziak ditu.



Garmendia, Lexoti, Uztapide, Mitxelena, Agirre, Lazkao txiki eta Xanpun.

ERRENTERIA

1982-VIII-28

Bertsolariak: LEXOTI eta MITXELENA

Lekua: Errenteriako Goiko Kalean

Gaiak: Antton Kazabon

Agurrak egiterakoan, ez ziren banarekin konformatu, eta laister hasi ziren bertatik elkarri zirika:

– Lexotik andregai eder bat baduela esaten du eta...

Mitx.: Neska polita ezkontzekoan
hori ez da gaurko moda,
nik ez dut ezagututzen eta
neskatx hoi nor izango da?
Bientzako iritxiko al da
Lexoti honen eskoba *
Lehen ederra baldin badare
laister aldrebestuko da.

* Garai hartan Lexoti Oiartzungo kalegarbitzailea zen.

Lex.: Neretzako den lore eder hoi
eun batin mundura jaio,
hura kuidatzen nik egingo dut,
jaunak makina bat saio,
laneko ere nola nagoen
kurajetsu eta iaio, *
ni hartzen banau edertuko da
lehen ederra dala baino.

Gaia: «Lexotik Mitxelenaren alabarekin ezkondu nahi du, baina Mitxelenak, aitak, ez dio alabari Lexotirekin ezkontzen uzten».

Mitx.: Nik alabari egingo diot
behar dun alibioa,
baino hobe du atzera utzi
dadukan amorioa,
hau baztertuta hartu dezala
gizon on ta serioa,
nahi ez badu hor bizi guztiko
bere purgatorioa.

Lex.: Alabak asko maite nau eta
aitak gorroto fuertia,
gizon gaixtua ez izan arren
falta du borondatia;
ta ez luke nahi alaba er hoi
gure etxera joatia,
galeraztia baino hobe duk
dote ona ematia.

Ondoren gai librean jarri genituen:

* Oso gaixorik zegoen arren....

Mitx.: Beste hiru edo launa dauzkagu
elkarren berri emanez,
Lexoti hau-re tentatu nahi det
bere eunoroko lanez:
Asko egiten duela dabil
herri danari esanez,
nahiz ta askotan hamaiketako
lan tokira iritsi ez.

Lex.: Lexotik dauka berrenderotzan
Oiartzun harretan gala,
eta defenditu egiten naiz
jaunak nola edo hala,
Mitxelena honek hartuko luke
nik daukadan martingala:
Gutxi egindare kobratzen det
egun guztiko jornala.

Mitx.: Batzuentzako ordu lasaiak
besteentzako estuak,
Lexoti honek gezur batekin
garbitzen ditu eskuak
honek kobratzen ditu ederki
baina ez hain legezkuak,
berriz Mitxelenari etorko
zaizkio inpuestuak.

Lex.: Gaurkoan jaunak ez dadukagu
hemen bertsoan atsegin,
ta berak nahi ez duela ere
egiten baitu hutsegin,
ta ezagutzen ez nauelako
neri ematen bait dit min,
autoridade baten aurrean
edukazioz hitzegin.

Mitx.: Herrian jarririkan daukagu
eskobari eragiten
zenbaitek hori nola ibili
ere ez baitu jakiten,
eta badaki zutik igual
zazpi ordu itxogiten,
bentaja bat du: erremintetan
ez du gasturik egiten.

Lex.: Lanik ein gabe bizitzen dira
zenbait markes eta duke,
haiek bezela ibilitzeko
deretxua berdin guk-e
ta arrazoi bat danan aurrean
orain kantatu nahi nuke:
Mitxelenakin nork aguantatu
nire puestua baluke?

Mitx.: Gezurra ustez esan du baina
nago egitaz jakinda,
Lexoti baino hobekiago
gaur bizitzea ezin da,
honena hartuko baldin banu
neuretikan aldeginda,
neure biziko nintzake noski
lan gutxiago eginda.

Lex.: Arrazoietan segituko dit
kontuak ez dik balio,
ta Mitxelena behin behar eta
gora egingo nauk igo,
Atamitxen jornal ona dela
ni ez niok oso fio
enpleatu bat behar duk eta
hasi nahi al duk sozio?

Mitx.: Eskerrak hemen esaten dena
guztia dugula broma,
hik ere lanerako kemena
ederki dadukak jona,
nere moduan etorri zaio
zutikan ezin egona, *
honekin jaso liteke gora
lehen juxtuan dagona.

Lex.: Gaizki esaten Mitxelena honek
gaur ematen du dotore,
holakorikan ez esatea
Joxakin eintzak mesede,
oraindikan nere ergelean
ba dit hik hainbat indar-e,
Lexoti zutik ibiliko dek
hi mundutikan joanta-re.

Mitx. Esan ez beharreko moduan
esango nizkion bi hitz,
nik botatako bertsoarekin
nonbait nik egin diot gaitz,
lehenago esan det ni neu larri ta
biok-e juxtuan gabiltz;
nahiago nuke ni hil da gero
oraindik biziko balitz.

Lex. Honen bertsoa entzundakoan
Lexoti dago gustuan,
lagun handi bat hementxe daukat
nik egindako juzguan,

* Lehen esan bezala, Lexoti nahiko gaixo aurkitzen zen eta tarteka balantzekoren bat ere egiten zuen.

denak dakigu ni baino lehen
hau egingo dala jua
baina lutua betiko netzat
honek aldeginakuan.

Saioa hasi orduko, tabladura gizon bat hurbildu zitzaigun. «Makatza» izengoitiz eta bi bertsolarien oso laguna. Betekada politarekin azaldu zen eta han izan genuen saioan zehar bere botila ardotik ardoa eskaini eta ardoa eskaini.

Saio bukaeran eta legea jarraituz, puntutan jarri genituen biak, eta gai librean, noski. Hala ere, han ez zegoen gai librerik, gaia aurrekaldean zeukaten, eta baita azkar heldu ere gure «Makatz» gizajoari:

- L. Beste batzuek orain
puntu jarrita
- M. halako gaia zaigu
orain etorrita
- L. Makatz kaxkar hau ere
hemen aurrin baita
- M. hau omen dek hemengo
golfo danen aita.

- M. Gaztetatik sortu zen
horrelakoxia
- L. gizona jaio bai zan
txit txarra klasia
- M. tripa galanta eta
buruan haizia
- L. gainera sasoiare
daduka pasia.

- L. Deporterako ez haiz
mundura jaioa
- M. Lan hortarako ez dek
izandu iaioa
- L. seizak etxera motel
eskas arraioa
- M. zurrutan egingo dik
gaur ere saioa.
- M. Lehen Mondragonen huen
bera geratutzen
- L. hango enfermerekin
omen huen ibiltzen
- M. haik ibilko zuten hau
neri iruditzen
- L. han erotu zela hau
bate-ez nauk harritzen.
- L. Mojak-e ibiltzen ttuk
holakoen bila
- M. haiek ere nahi ditek
holako mutila
- L. Mondragonen eon bada
izorra dadila
- M. nonbaite hori ez dek
hi bezain abila.
- M. Gure Makatzai zertan
egin hainbat kalte
- L. ondo kantatzeko-re
badut borondate
- M. mutil onaskoa dek
lehenagotik mote
- L. Agur anai arrebak
hurrengo-urte arte.

Mitxelenaren agurra

Gaur ere hemen heldu gerade
lanerako ahaleginez,
Goiko Kaleko euskaldunari
bertsoik nahi dun galdeginez,
ez dut pentsatzen gure lan honek
jarriko ditunik minez,
guk euskeraren aldeko lana
degu intentzio finez,
nahiz gure hizkuntza honetaz eta
behar badegu dotrinez
gauz onak asko esangoitugu
lehengo txarraren ordainez
zoritxarrean gaurko munduan
txarra-re badegu gainez,
era hortako bide gaixtoak
hartu bait digute lainez
nik ez dakit ba zer pentsatzen dan
gaur buru askoren muinez
mingaina legun dadukatenak
baina ez bihotz biguinez
asko dabilta beren bidetik
urrutira aldeginenez;
nik galdetzen det: hoiek al dira
euskaldunen krabelinez?
Jarri gerade batak bestea
jaunak, ikusi ezinez...
Hau konpondu nahi genuke eta
nola konpondu jakin ez.

OLARTZUN - 1983-VI-28

Pikoketa jatetxean. Mitxelena - Lazkao Txiki

Saio honetan ikus daiteke argi eta garbi, Mitxelenaren bertsogintzaren eredu zuzen eta parekoa.

Horretarako baldintzak ere, denak betetzen dira, noski.

1.- Denbora: Aspertu arte. Mitxelena ez zen hiru bertso kantatu eta isiltzeko bertsolaria.

2.- Giroa, lekua: Bazkalondoren eta eserita. Entzulegoa berriz, urri, baina gertu eta arretaz.

4.- Laguna: Lazkao Txiki. Aparteko bikotea osatzen zuten.

Saio honetan zehar ikusten da Mitxelenaren ironia eta lagunari erantzuteko modua. Azkar eta zuzen. Hartu eta eman. Bertsoa hasi eta segi, eta azkenean kolpea gainera.

Bestalde, Mitxelenaren bizitzari erreparu on bat emateko bidea ere izan daiteke bertso sorta hau. Hasi bere itxura fisikoarekin, soldaduska, neska kontuak, maskuriko arazoak, diru kontuak, Atamitx jatetxea, Portuko lanak, aberastasunak ...

Ikastolako irakasleekin bazkaldu ondoren, han hasi ziren jo eta ke, elkarri nork handiagoak bota.

L. Tx.: Gutxieneko izango haiz hi
hogeitamar bat erralde,
pixu konturik etzekit baina
esan diat alde-alde,
nola ez leiken inor juzgatu
garbiro ikusi gabe,
animaliak ere hau baino
arinagoak ba daude.

Mitx.: Ni erraldetan hartzen nau honek
jaunak pisutako notan,
honek dun baino mordua gehio
nola neronekin dotan,
hau berriz nola den hain exkaxa
egia esatekotan,
erraldetara ez da iristen ta
kontatu behar kilotan.

L. Tx.: Asko ez nian irabazi ta
nik gutxi zeukat galtzeko
baina pentsatu ez nagoela
erralde kontun saltzeko,
zuek juzkatu hemen nor geran
animalien antzeko,
honen aldean polita naiz ni
traje-bainoan jartzeko.

Mit.: Beraz horrela eman diozue
bera polita den antza,
traje-bainoan sartzeko ere
ba daduka konfiantza,
nolanahi ere ez da izango
mutil lodia ta latza,
ume moduan neskameakin
bialdu leike hondartza.

- L.Tx.: Hirurogeita hiru-lau kilo
pisatzen dizkiat kasi,
pertsone normal batentzat gero
ez dago oso itsusi,
ta hondartzan gure Joxe Joakin
nik ez nuke nahi ikusi
kosta aldeko tiboroi danak
joango lirake ihesi.
- Mit.: Hirurogeita kilo batzuez
aritu haiz hitzegiten
zer esango huen emakumeak
egon dituk itxoiten,
hi bezelako gizon arinak
ez ziek onik egiten,
hik esan deken momentutikan
hoik farra egiten ziten.
- L.Tx.: Nigatik farra egin dutela
ez izan horren usterik,
pixu arinez ez dek kejatzen
andre ta neska gazterik
moda-re orain arina zegok
ta ez haragiz beterik;
hik daukakena gaur ez dek motel
karga alperra besterik.
- Mit.: Honek-e bazun bere garaian
ezkondutzeko kasua
maitatu nahirik neska mordo bat
ibili zuen auzuan,
baina haik ere probetxu pixkat
nahi nonbait gizon gozuan,
bateon batek hartuko zuan
itxurik izan bazuan.

L. Tx.: Gizon osatzeko behar al dira
ipurdia ta lepua?
Ta emakume guztia ez da
pixu handi zalekua,
gorputz handia ta tripa dira
gizonaren kaltekua,
beste traste bat izan behar du
behatza bezelakua.

Mit.: Emakumeen artean ez dek
inoiz gauza errezikan
hoiek aukera eta ona hoi
nahi izateitek baizikan,
urre kontuan izan ezean
txikiak ez dik pozikan
ta emakumeak ez ditek nahi ez
hi bezelako gauzikan.

L. Tx. Handiak ere izan litzake
probetxu hainbat endredo,
pixu handia ona danikan
ez ezazue espero,
giza tamaina ba nuen lehen
eta izango det gero,
gizonen taila ez al da osatzen
soldadu izan ezkeru?

Halakoren batean, karga kontuak utzita, gaiaz
aldatu zute: Inguruan eserita zeuzkaten andere-
ñoak.

L. Tx. Aldi gutxitan gu Mitxelena
aurkitzen gaituk horrela
pentsatzen diat lore usaizko
toki goxoan gaudela,
antzeman diat ni ezezikan
hi ere pozten haizela,
kontentu gaudek jardin batetan
erlea ohi dan bezela.

Mit.: Hi Joxe Migel nere bertsoa
sartu behar dek patrikan
zerbait esan nahi diat bertsotan
ta ba dakik zergatikan,
gure jardina ondo osatzen
bai zaigu loretikan
galdetu kiek ea baduten
jardineruen faltikan.

L. Tx.: Nere laguna aritu arren
hemen loreak apaintzen
gu bezelako gizonezkoak
ote dituzten maitatzen,
ni ezin egonikan nengoen
ez al zera konturatzen,
esku handi hoi zer ari zera
nere besoan pasatzen

Mitx.: Hoiek ihesi joan dituk hor
beren sasoiko bizitzan,
gu ere garai batean ginan
geldirik egon ezintzan
sasoia hori ez daukagu gaur
lehen ba dakigu zein tzan,
hi ere hoi en urte garaitan
berdintsu ibilko hintzan.

L. Tx. Lehengo berriak aspaldi dituk
hoiek ez diztek jakingo,
orduan ere ez hintzen hi ez
ibiltzen salto ta brinko,
hanka herrentzen zitzaionean
beti egiten zun txingo,
honen azpian gelditzen zanak
ez zuen ez aldegingo.

Mitx.: Beira zazute konfesio bat
gaur nola ematen dezun
hitzeginikan zuen artean
hoinbeste pekatu lizun
nereganaikan ezin ihesi
gaur horixe esan nahi zun
portsiakaso noizpait zedonei
ihesi egin al zizun?

L. Tx.: Napar aldean lehengo batean
gauza bat neukan goguan:
soldaduxkara ere zu nola
egin ote zinen juan
batek esan zin: Joxe Joakinek
hemen neska bat ba zuan
ta zure antzeko mutil buru motz bat
han ikusi nun lehenguan.

Mitx.: Gezur galanta kantatu dezu
noski oraingo bertsuari,
bestela ez zaude oso ongi
zure buruko zentzuan
soldaduxkako gorabeherakin
gertatu izan bahuan
mutil koskorra ez dakit baino
aita ere behar tzuan.

L. Tx.: Aita zanikan ez det esango
baina bai mutiko latza,
zuk bezelaxe ba zun sebua
ta ba zuen nahiko gantza,
alde danetan ezagutzen da
zabaldutzen da erraza,
antiajurik ez zuen baina
ba zuen Joakinen antza.

Une orretan Mitxelena komunera doa. Gizarajoak
hamaika buelta egiten zuen, eta egun horretan ere
berdin. Bueltan, Lazkao txikik:

L. Tx.: Askotan dudalako
hola ikusia
gizon handi batentzat
gauza itsusia,
dena ez haiz handia
nago iritzia,
gorputz galanta baina
maskuri txikia.

Mitx.: Maskuria zedukat
ne konformidatez
janda edan eiten dit
ondo eta errez
sartu bezela hoiek
joaten dituk legez
mundura jaio ginenak
hortarako gaudez.

L. Tx.: Ez diat konprenitzen
garbiro esanda:
nola hainbat biaje
handia izanda,
nik hainbeste ez jan arren
hik hainbeste edanda,
ni hemen natxiok behin
bakarrik joanda.

Mitxelenak sukaldera joan eta txanpaina ekar-
tzen du. Hemendik aurrera, Mitxelenaren bizi
tzari errepasu ososa ematen diote.

Mitx.: Ni ez niok munduan
gizon txanpakua
neure izerditikan
nago nekatua,
ta gaurko txanpaina-re
ezin ukatua,
hik edan dukena-re
neonek pagatua.

L. Tx.: Harritzen negok motel
hik hoi pagatzera
begira gehientsunak
hemen egon gera
batek-edo bik zabaldu
diagu kartera,
hik eukiko dek baina
gaur ez dek atera.

Mitx.: Nik bazekit egiten
obra oneko gauzak
hik-e tarteka eskua
pixkat luzatu zak
zerbaitan hasitzeko
garaia heldu zak,
neria jakiteko
joan ta galdetu zak.

L. Tx.: Honen berri lagunak
ongi jakiten du
hutsa lehendik ezautu
ez baldin bagendu,

Mitxelenak sarritan
hori egiten du:
Esku batekin eman,
besteakin kendu.

Mitx.: Gauza batekin hasi
gerade gu teman
orain hau sartu zaigu
etxeko tabernan*
esanez Mitxelenak
zer egiten dun han:
Batekin kendu eta
besteakin eman.

L. Tx.: Pentsatzen niok motel
gutxi gora behera
Mitxelena bueltaka
zertako ote da?
Gauza horregatikan
joan nahi sukaldera:
bokadu onenari
kozka egitera.

Mitx.: Berriketa bakarrik
ez zaukagu baizik
lagunai eman behar
zaio zerbait pozik
hemen inor ez zegok
gaur edan nahi ezik
hik-e joan da lau botila
honuntz bidali tzik.

* Atamitx jatetxeaz ari da.

L. Tx.: Ematen dunak badu
bai nahiko meritu
hortan ez zera oso
aldrebes aritu
honek baldin badu gaur
txanpaina serbitu
Atamitxen norbaitek
pagatuko ditu.

Mitx.: Atamitxen pagatuko
dituztela berez
nik badet lehenokoa
hoinbeste interes
borondatekoa naiz
jaiotzetik neurez
gaur eman ditudanak
kobratuta daudez.

L. Tx.: Behin lau botila emanda
ari da esaten
borondatekoa ez da
horrela izaten
bazekiat gu biok
nolakoak geraden
kostako zaik hartu baino
gehiago ematen.

Mitx. Zu txarragoa zera
nik uste dedanez
nahiz ta zuk ni jarri ez
behar dedan famez
zuk nahiz ardoz, sagardoz
edo ta txanpane
ematen dana hartuta
sekulan eman ez.

L. Tx.: Izerdia badaukala
entzunez gabiltza
baina ez da egia
esan dezun hitza,
honek aterako luke
izerdi ta bitsa
kaldera handi batean
sartuko balitza.

Mitx.: Nik etxean dadukat
eunero kaldera
eiten banaute bixigu
batzuen galdera
ta arrimatu behar
suaren aldera
nahi ez degula ere
izerditzen gera.

L. Tx.: Izerditzen da baina
baita-re kobratu
ta hola ezin leike
kilorik sobratu;
Portuan ez al hintzen
batere nekatu?
Hango lanekin ez hintzen
asko aberastu.

Mitx.: Portuan hogeit hamar urte
bat eta bestian,
aurreneko hamarrak
nekien azpian,
gero sartu nahi nian
bizitza ez tian,
lehenbiziko pezetak
han egin nizkian.

L. Tx.: Portuan Mitxelena
ibiltzen zan tranpan,
nik ba dakit han ere
zer eginak dauzkan:
Zigarro rubioak
pasaturik kajan,
bi hilabetez lana
eta hamar bajan.

Mitx.: Ni ez naizela diok
bizi izarditik
Mitxelenak Atamitxen
hamazazpi urte ttik
ta lana egunero
hamabitik goitik,
eta andriak ere
nahiko lanak dizkik.

L. Tx.: Inor ez dek aberasten
ibilita zuzen,
hik ba dakik nor naizen
ta nik hi nor haizen,
ni ttiki ta pobrea
hi aberats ta gizen.
ezagutzen gaituk eta
ixildu gaitezen.

Mitx.: Hamazazpi urtetan
bizimodu latza,
andreak gona estu
ta gizonak galtzak
horregatik bagera
orain aberatsak
jai ta aste lan egin da
harritutzen al tzak.

L. Tx.: Arrazoi dek egin dek
hik lana ugari,
denetara ez dek txarra
hire buru hori,
baina nahikoa badek
zertarako ari?
Hiretzat haina ba dek
jubilatu hadi.

* * *

Uztapide zenaren hileta-elizkizunetara zihoazela, Lazkao Txikik automobileko atea isterakoan, Mitxelenari eskuko behatz lodia harrapatu zion atearekin, Ekainaren 9an. Mitxelenak, artean behatz lodia bendaz eta trapuz estalita zeukan.

Hortik ere ekin zioten egun horretan, eta ondorengo saio hau osatu zuten:

Mitx.: Nonbait behatza nik ez dadukat
lehen zegon bezain mamitsu,
honek zer egin ziraden noski
gehienak zenuten entzun
eta behatzak handituzteko
lehen bezela haragitsu
ea zuk ere gehio jaten-tzun
eta handitzen zaizkizun.

L. Tx.: Gizajoari hara zer kaso
sarri gertatzen zaizkion
Uztapideren entierruak
on asko egin ez zion
azkazal hori moztu gabe ta
zun urte bete ta gehion
piska batean ez da haziko
ondotik moztu bait nion.

Mitx.: Mundu hontara sortutzen dira
hamaika nolabaiteko
ta hamarretatik zortzitan gauzak
hor gaizki eragiteko
lehen laguna zinudan, baina,
gehio ez zaitut maiteko,
gizon haundian beharrik ez da
oker haundiak eiteko.

L. Tx.: Atzazal horren kulpa guztia
neretzako da orduan,
Uztapideren entierrua
izango dezu goguan,
atera eta ohitura dan lez
atea itsi nahi nuan,
zuk zertarako itsi baino lehen
behatza jarri zenduan?

Mitx.: Hori zergatik egin zenduan
ez nion ondo iritzi
honek nahi zidan entierrora
joan gabe kanpoan utzi,
honek nahi zitun Mitxelenaren
atzapar pizarrok hautsi
Uztapidentzat nork egin zuen
nik hainbeste penitentzi?

L. Tx.: Zuk badakizu zure kotxeko
atea itsi nahi nuan
hori pasea pentsatu zazu
neu naukazula damuan,
honek behatza tartean sartu
nik bultzatu nun orduan
atea ez zan ondo itsiko
burua sartu bazuan.

Mitx.: Zu, Joxe Migel, petrala zera
ta hala zera izango
gutxiorikan etzu merezi
ta hori dizut esango,
nere kotxean eraman nuan
launai eitiatik ondo
jakin banu zer egingo zuan
ez zen nerekin joango.

L. Tx.: Zuen etxean kotxe handia
ta zurekin joan nahi nuan,
baina, ez nuen atea itsi
hoi egiteko asmuan;
parrez lehertutzen egondu nintzan
elizan sartutakoan,
auto-stop-a egiten zuen
frantsesa ematen zuan.



Pikoketan ez genuen bertso faltarik izan.

ANDOAIN - 1988-II-21

Sebastian Lizaso
J.Joakin Mitxelena

Gaia: Zein ote zarete handiena?

Liz.: Ehun ta sei kilokin
ni hemen naukazu,
Mitxelena, ba al zera
horrenbeste pisu?
Gizonan ia traza
guztiak daukazu,
pisuz eta bestela
astunagoa zu.

Mitx.: Hemen gizonak badizkik
kiloakin lanak,
batez-e flako zaleak
izandu geranak,
alperrik neke asko
gaude eramanak,
oraindik bizi arte
eman behar diranak.

Liz.: Tranpak ere zahar denak
bait ditu jakiten,
disimuluan badaki
honek hitzegiten,
zein geran astunena
galdetzen ziguten,
zerbaiteatik bererik
ez digu esaten.

Mitx.: Astunena nor geran
esateko biok
guk hainbeste karga ere
ez daukagu inork,
nik nahikoa bazeukat,
heorrek zer diok?
mesede izango dek
kendutzen badiok.

Liz.: Astunena nor geran
ez al da nabarmen?
Mitxelenak jaten badu
nik hainbeste kemen,
abiatzean atzetik
jarri errepatzen,
hankak Lasarten eta
ipurdiak hemen.

Mitx.: Garbi esango diat
pentsatzen detena,
hik ezagutzen al dek
heorrek daukakena?
Nertzako heu haiz
hemen astunena,
hobeto esateko
bitan astuena.

USURBIL - 1988-VII-1

Txomin Garmendia
J. Joakin Mitxelena

Gaia: Zahartu egin gaituk!

Garm.: Ai, Mitxelena, behin behar ta ere
hau da jarri digutena!
Komeni zaigu kantatutzea
ahal liteken ondoena,
aspalditxoko lagun zahar bi
hemen bildu geradena,
zahartutzen gogor ari gera ta
horrek ematen du pena.

Mitx.: Pena txiki bat badeguala
hasi haiz gogoan hartzen,
zahardadearen berri ez nauk ni
hainbestearaino negartzen,
gu zahartuta ere oraindik gera
pesta batzutan alkartzen,
eta mundura sortutakoak
denak ez bait dira zahartzen.

Garm.: Egia da bai, bizi naizela
ezkontza baten peskisan,
bizi berri bat hartu nahi nuke
mundu hontako bizitzan,
gazterik ni ez nintzen ezkondu
zu ezkondu zinan gisan,
oain ere ez nintzan ezkonduko, ez,
gaztea egon banintzan.

Mitx.: Beraz, arreta etorri zaizu
nonbait bakarrik ezina,
zahartu ezkeru leku askotan
hori da gauza jakina,
ezkondutzeko ez dezu gero
zahardadeak dun mina,
hobe zenuan oain hogeitaz urte
aurretik egin bazina

Garm.: Gaur arratsalde agurtu gera
biok maitasun betean,
galdetutzen det euskaldunentzat
gauza hoberik ote dan,
urte batzuek joan dira baina
kontzientzitik pakean,
guk ez daukagu zertan estutu
hola gabiltzan artean.

Mitx.: Urte batzuek badituzu ta
ez daukazu zahar kutsurik,
oraindik ere amoriotan
zaude begiak itsurik
sasoi antzean bizi zerala
nik ez det egiten dudik,
aurten ezkondutzen dan gizonak
ez daduka zahar itxurik.

Garm.: Gazte denboko uztartze hori
zuretzat ez zan arrotza,
baina, zertako jaulki didazu
horren arrazoi zorrotza,
nik pentsatu det alde bat utzi
mutil zaharren morrontza,
andre polit bat aurki izango det
horrek ematen dit poza.

Mitx.: Alde batera poza liteke,
bestera berriz, tristura,
oain nahi dituzun gauza guztiak
ezin ekarri eskura
lanerako ere ez dezu eukiko
garai bateko postura,
ez det pentsatzen bizitzerikan
gaztetan bezain gustura.

Garm.: Nik ongi dakit bentaja danak
ez dira nere alderdira,
ondo dakit nik, asko gazterik
lotzen dira uztarrira,
hori dala ta hamaika oker
sortzen ai da famelira,
askok hobe zuten nere antzera
ezkondu izan balira.

Mitx.: Aizak, Domingo, ezkontza danak
badizkik bere arantzak,
hik ere noski eukiko dituk
hor kezak edo zalantzak,
gauz bat eskeinitzen detena dek
eta pozez eramantzak,
etortzen dana etor dedila
suerte on bat izan tzak.

Garm.: Nik ere atea kax-kax jo nitun
maitasunaren atera,
ta oraingotik sartu nahi nuke
zorion eta pakera,
ta zure eta neregatikan
zenbatzu alde ote da?
Gaur bezelaxe hitzeingo degu
hemendik urte batera.

Mitx.: Zuk esan dezu urte batera
genezakela berdintsu,
ni aspaldiko ezkontzan nago
neri holako jakintsu,
zurea berriz aldatu behar
igual liteke samintsu
gaur bezela berriz esaten
ederki kostatzen behar zaizu.

Garm.: Bakoitzak ditun asmo bakoitza
ez nago galerazteko,
Mitxelenari bertso kontuan
ez nago erakusteko,
saia gaitezen jatortasunez
bateko eta besteko,
sarri denbora gutxi aski da
grazitan aberasteko.

Mitx.: Mandatutxo bat nik emango dit
ez zait faltako zalantzirik,
baina, ezkontza zer dan aurretik
ez diok emango antzirik,
sekula ez zaik moteil faltako
larrosik eta arantzirik,
hauxe bihotzez eskatzen diat:
pazientzirik eramantzirik.

Garm.: Garmendiaren etorkizuna
izan liteke jokoan
nork daki zer gertako zaigun
bizi geraden txokoan,
askok diote Txomin ere hortxe
eroriko dek zepoan,
zer gertatzen dan esango dizut
zepoa itsitakoan.



Amuriza, Mitxelena eta Lazkao txkiren erdian. Txapelaldin berria frogatu beharra zegoen.

ERRENTERIAN, 1988-VII-25

Xabier Zeberio
J. Joakin Mitxelena

Gaia: Mitxelena ez da agertzen telebistako saioetan, eta erreklamatzera joan da. Zeberio, E.T.B.ko programaren arduraduna.

Mitx.: Aizak, hi, Zeberio
niok harriturik,
erantzungo al didak
orain galdeturik,
neronek ez zedukat
beste errenkurik,
ni baino txarragoak
hortik kantaturik,
nitzat egun bateko
ez al dek lekurik?

Zeb.: Esan du kantatzen dula
haundiaren mailan,
galtzak sesenta y cinco
honek dauzka tailan
reklamatzera etorri da
nigana abailan,
baina, Mitxelena ez zera
kabitzen pantailan.

Mitx.: Ez naizela kabitzen
eman nau ordaina,
bere defentsarako
dabilki mingaina,
pantaila txiki xamarra
eukiko du baina,
ne gorputz erdia badek
hire osoa haina.

Zeb.: Kamarista berriz
da nahiko kaikua,
ta haundia eskatzen du
gaur honek lekua,
asma det sistema bat
kategorikua:
aurrena goia egin
gero beherakua

Mitx.: Zuek beste tranpikan
badik zuen gauzak,
aitzakian jarritzen
dituzte gorputzak,
batzuk gera beteak
bestik erdi hutsak,
gero konponduko gaituk
lehenengo deitu zak.

Zeb.: Ez zaitut bialduko
hemendik ihesi,
bertsolariai zertan
jarri behar diot hesi,
nahi badezu burua
telebistan ikusi
deituko dizut eta
rejimenean hasi.

Mitx.: Hau era askotako
jarri zaigu juez,
baina honen esanetan
gu errenditu ez,
lehen bezelaxe nahi dit
hain gorputz ederrez,
rejimena ein baino nahio
bate kantatu ez.



Mitxelena, Aduriz sagardotegian.

OIARTZUN - 1988-V-28

Aduriz Sagardotegian - Gaiak: KAXKA

Ondorengo saio hau, Mitxelenaren azkenekotakoa dugu. Bertan ginenez, entzun eta grabatu bezelaxe, oso-osorik jasoko dugu, irakurlearentzat gustokoa izango delakoan.

Mitxelenak, saio honetan Oiartzungo garai bateko sagardotegiak gogoratzen dizkigu eta historia piska bat egin ere bai (52 baserritan ba zela sagardotegia, denak etxeko sagarrez hornitzen zirela ...)

Baina, askotan, gaiak, berak agindu gabe ere, bertsolaria zulora eramaten du, eta gero zail egiten zaie irtetea.

Gure ustez, bertsolariak kantari ari direnean, lizentzia baten babesean ari dira, eta beraz, ia dena esan dezakete, dena literatura baita. Baina, hala ere, honek bere mugak baditu, eta badira gauzak, bertsoan ere kontatu ezin direnak. Arazo edo bizitza pertsonalak, norbaiten dramak ...

Azken bertsoak, aurrekoak konpontzeko dira, eta Mitxelenak ongi aprobetxatzen du bere on paperean kantatzeko.

. . .

bihotz oneko gizona naiz ta
denak barkatzen dizkizut.

* * *

Bertsolariak: Mitxelena, Agirre, Lazkao Txiki eta
Lazkano.

Bertako entzuleak, epai-mahai lanetan. Kopa,
Joxe Agirrerentzat izan zen.

Mitx. agur. Gaur herriaren gorabeherako
honera bilduta gaude,
hemen jendeai piztuko zaio
bertsoakin zenbait labe,
gure artean ez det sentitzen
leikenik hainbat ahuldade
daukagunakin gustu ematen
ahaleginduko gerade.

Gai librean, Agirre eta Mitxelena.

Agirre Joxe Joakin gogoan dezu
Kaxka horri gaur entzuna
ta guk zer esan zai dadukagu
jenderikan gehientsuna
nahi dan bidetik hasi nahi bada
badegu askatasuna
bastante argi nago ni-re ta
bota etortzen zaizuna.

Mitx.: Pentsatzen nuan etzenidala
hortik gaizki hitzegingo,
neuk-e ahal bada bide onetik
gaur ez dizut hutsegingo,
zuk-e zeurerik ein gabetanik
gaur ez dezu aldegingo
eta neria badakizu: nik
ez det tongorik egingo.

Agirre Beraz tongoak baztertu eta
saia gaitezen honela,
zuk badakizu Joxe Joakin
leku ederrean gaudela,
hemen badago sagardoa ta
hemen badago upela,
esango nuke pinua kenduta
sagarra sartu behar lukela.

Mitx.: Kupelategi kontu hoietan
asko ditugu esango,
Oiartzun lehendik-e gauz hoietan
ondo jantzita bait dago,
garai batean egin izan zan
gaur ez hainbeste sagardo
ta izen hoi ez baldin baluke-re
etzan Oiartzun izango.

Agirre Beraz Oiartzun aspalditikan
indartsu da sagarduan
eta gaur baino hobeagoak
bai ote ziran orduan,
hemen bertan-e berdindu gera
komeni zaigun moduan
eta gehiago izan ezkerro
kalteko izango genduan.

Mitx.: Garai bateko sagardoteiak
gaurko ohituran etzian
orduan sagardotegiak-e
atero izaten tzian,
aitona bati entzun niona
orain akordatzen tzian
berrogei eta hamabi etxe
sagarduaren txotxian.

Agirre Zuk ez dituzu kontatzen hemen
lehengo alderdi flakuak
ta aitortzen det, izango ziran
sagardotegi bapauk
baina berrogeita hainbeste etxe
al ziran aukerakuak?
Baleike baina etziran izango
Aduriz bezelakuak.

Mitx.: Aduriz honen mailakoik etzan
hori-re behar degu esan,
baina bakoitzak be sagarrakin
sagardua egiten zan,
eta gero goxi koxkor bat
hor etxeratuko bazan
bakoitzak berak zuen kupela
txotxean hortxe jartzen zan.

Agirre Ai, Mitxelena!etzazu bota
horrenbeste disparate
oraingo gauzan kontra hasita
zuretzat bait dezu kalte,
gaur behar bada sagarra akaso
urrutitikan dakarte,
baina berena dute hura-re
ordaindutzen badute.

Mitx.: Ez gera ari ordaindu edo ez,
bakoitza nolakoa zan,
eta Oiartzun zer izan gendun
hori nahi nizuke esan,
hemen etxeak salbatzen ziran
sagardoaren babesan
orduan hua zan ogia eta
gauz hoberikan ote zan?

Agirre Zu lehengo gauzak famatzen hemen,
gaur dadukazun gustua
esan liteke berriarekin
zaude kopetez beztua
lan gehiagore egongo zera
zu honezkero ahaztua,
zuk ere upela bikaina dezu
baina zipotza moztua.

Mitx.: Beira Agirre, nere gorputzak
dadukala asko pisu,
urteetan-e nolatsu nagon
zeronek-e badakizu,
eta zipotzan kontua hori
etxetik juzgatu zazu
nere moduko neurritan zaude
eta kezka emangoizu.

Agirre Beraz ni ere ez naiz izango
zipotz bikainaren jabe,
zu baino zerbait gazteo baina
badaukat nahiko edade,
bosna bertso edo agindu du ta
zerbait izango dirade,
hobeko degu isildutzea
neurrian pasatu gabe.

Mitx.: Lehen ere zeoni atera zera
hor negurritik kanpora,
zuk nahi zenduan zere burua
bertso horiekin lora,
eta kantatzen hasten daneko
jakin behar luke nora,
zu-re ez al zaude askoz hobeto
hemen lepotikan gora.

Agirre Isildutzeko asmoa nuen
baina bide bat bapua
segitutzeko ere badaukat
Joakinek jarritakua,
asunto hortan ni izandu naiz
edozeinen parekua,
zu zaude hemen gizon galanta
demostratu gabekua.

Mitx.: Beira Agirre, hasi zerade
nahiko joera senduan,
zuk eta nik-e ezkontzatxo bat
hor biok egin genduan,
zorioneko famili danak
ez dira izaten munduan,
eta behar zan zoritxar hori
pasa behar izan genduan.

Agirre Barka zaidazu, zu, Mitxelena,
nik esan dizudan broma,
zuk badakizu ni familian
jabe eginda nagona,
baina tarteka gauza asko naiz
ni-re pentsatzen egona:
Gaur familia dutenak ere
danak ez due zoriona.

Mitx.: Beira, Agirre, jarri didazu
orain biontzat peskitzan
lehenago zeonek esan ezean
ni atrebitzen ez nintzan,
zuk badituzu gorabeherak, bai
mundu hontako bizitzan,
famili asko eukizu baino
suerte danik etzu izan.

Agirre Pentsatzen nago neurritz kanpora
aurrera ote goazen,
probatu arte ez da jakiten
zer suerteak datozen,
zuk baterez ta nik-e ez ditut
guziak sanoak izen,
mutikoen gisan aritu gabe
orain isildu gaitezen.

Mitx.: Mundu triste hau honela dala
akordatuko bagina
etxe danetan nola ez degun
izaten zori berdina,
inor gutxi da gauza hoi en berri
lur honetan ez dakina;
bata bestea ondo gozatzen
egin zagun ahalegina.

Agirre Oso pozikan hartua det nik
Joakinen erabakia
behar baldin bada okerren bat gaur
izango det edukia,
elkarren faltak agertutzea
ez da gauza egokia,
Lazkao Txiki ta Lazkanorentzat
egin dezagun tokia.



Zenbat saio elkarrekin!

Mitx.: Beira, Agirre, hasieratik
biok ginaden berdintsuk
ta hemen ahal bada bota nahiean
gabiltza bertso mamitsuk
eta tartean ateraituzu
petralak edo berritsuk
bihotz oneko gizona naiz ta
denak barkatzen dizkizut.

Lazkao Txikirekin saio alaiagoa burutzen du eta ironia finagoa erabili ere. Mitxelenak, hemen ere, irakaslearen eta gizon onaren papera hartzen du “Jesukristoren Gurutzea” eta gainontzekoak aipatuz. Baina Lazkao Txikik ederki erantzuten dio: “Mitxelena hartu duenak nahiko gurutzea badu” ela boteaz.

Azkenean, Mitxelenak bere sententziak bota zituen behintzat

- baina gaur hemen kantatzen ditu lehenago egindakuak.
- zuk ein dituzu pekatuzkoak ta nik kontzientzizkoak.
- hau da mendiko txekor artean ibili den betixua.

* * *

Gai librean, Lazkao Txiki eta Mitxelena.

L. Tx.: Berriro ere eman digute
kantatutzeko ordena
ta badakizu agindu hori
egin behar deguena,
beraz kantari hasi zaitea
adixkide Mitxelena
beldurrik gabe bota zaidazu
burura etortzen dena.

Mitx.: Orain pixka bat tenta behar det
bilatu bait det bidia,
bertsolarien artean orain
mutilzaharrak-e bi dia:
Bat degu hemen Lazkao Txiki
ta bestia Garmendia,
ta haren preoiak hurrengo astean
hastekoak omen dia.

L. Tx.: Beraz Garmendiaren preoiak
laster hasitzeko dago,
ta Mitxelenak bihar goizean
hasiko balitz nahiago;
Lazkao Txiki nahiz ta jaio zan
Txomin hura baino lehenago
ni oraindikan patxaran nabil
eta presarik ez dago.

Mitx.: Hemen danentzat egina dago
daukagun mundu zabal hau
hogeitatik hamasei ezkontzen dira
gabe gelditzen dira lau,
ta Joxe Migel, hik ere motel
egin behar al dek barau?
Hire lagun bat maitu dek eta
pozik ematen ez al hau?

L. Tx.: Zuk, Joxe Joakin, zertan hitzegin
hitzegin dezun moduan?
zu bezelako mila ezjakin
oraindik badaude munduan,
nahiz andre edo emakumerik
egunero ez det onduan
sinista zazu bijili hori
nik aspaldi hautsi nuan.

Mitx.: Zu, Joxe Migel, matrimonioz
hori ez da luzitzea,
hoi da auzotan lapurkerian
inoizik ibilitzea,
lehendabiziko hartu behar dezu
Jesukriston gurutzea,
hoi bitarteko dala hobe da
dotrinakin jokatzear.

L.Tx.: Lazkao Txiki mutil zahar dago,
mutil zahar baina ondradu
hala ta guztiz ez ote dauka
Mitxelenak hainbat gradu?
Andrerik ez det erosi baina
ez det nik inortxo saldu,
ta Mitxelena hartu duenak
nahiko gurutzea badu.

Mitx.: Nere andrea hartzeko sartu
zitzaidan ba bihotzea,
sekulan ez det pentsatu izan
hor bazterrera botzea,
pozaren pozez hor egunero
biok elkarganatzea,
makina batek hartuko luke
nere andrean gurutzea.

- L. Tx.: Lazkao Txiki etzan ezkondu
horregatik dago aske
bakar-bakarrik dago etxean
ez kerida ta ez emazte,
baina inguruan badaduzkat
makina bat neska gazte,
ezkondu gabe egiten det nik
zuk ezkondata hainbeste.
- Mitx.: Joxe Migelek kantatzen ditu
gauzak hain afanekuak,
baina honeri-re urte hauetan
oker jo behar kukuak,
ez det esango lan hoiek honek
ez ditula gogokuak,
baina gaur hemen kantatzen ditu
lehenago egindakuak.
- L. Tx.: Zuk esan dezu bukatu dala
Lazkao Txikiren karrera,
halakoa zan zure buru ta
mingainak zuen jarrera,
nere adixkide, zu, Joxe Joakin
harrotzen hasi bazera
zuk-e ez dezu asko egingo
ia hemendik aurrera.
- Mitx.: Gu ez gerade hemen erronkan
jo gendaken idixkuak
eta ez gera noski egongo
gauza horren premizkuak
gainetik beira daudenak ere
bai daudeze begizkuak,
zuk ein dituzu pekatuzkuak
ta nik kontzientzizkuak.



Imanol Lazkano ez zen lagun txarra Mitxelenarentzat.

L. Tx.: Zu, Joxe Joakin, ni aspertu naiz
disparate hoiek aitzen
ez dan gauzarik santa sekulan
etzazula esan hemen
lanbide hortan txikia bada
zu zeran hainbeste zezen,
jende guztia aspertzerako
orain eseri gaitezen.

Mitx.: Esan dit neri tonto naizela
ta bera dela maixua,
lan hortarako azkarra dala
nahiz arin euki pixua,
kontuan hartu ezazute honek
eman duan abixua,
hau da mendiko txekor artean
ibili dan betixua.

* * *

Gai librean, Lazkano eta Mitxelena

Lazk: Bi handienak borrokatzeko
eman digute ordena
eta egitan mintzatutzeko
eman zaikiak baimena,
gaur afaltzera hogeit lagunez
etorri da Mitxelena
hoien botoak seguru ditu
eta hau berau aurrena.

Mitx. Gure herrian gizonik ez dek
Imanol saldutzen nunahi
eta jendea begira zegok
bertsotan eiten degunai,

nik berdin opatzen ziot motel
kantatzen dauden lagunai
eta botua eman zaiozute
gehien merezi duanai.

Lazk.: Hala ta guztiz jarri gerade
hemen nahiko komerian
ta Joakinek jarraituko du
bertso zuzenen harian,
gaur Oiartzuna etortzerako
aurrez ere banekian,
zakurra ere harrotutzen da
bere etxe atarian.

Mitx.: Hemen txakurrak egin lezazke
bere sangikan haundinak
baina gero etorri behar dute
nere zaunkaren propinak;
ta hauek daude hemen beldurrak,
hala daude hitzeginak,
gainetik beira zaudeten hoiek
ez ote zeraten finak.

Lazk: Bere onduan ekarri arren
honuntza lagun mordoska
etsaiarekin beldurrez dago
eta hortan dago koska
ta urrutiko zakurrak igual
egin lezaioke kozka
holakoren bat gertatzen bada
ez hadi hasi dioska.

Mitx.: Lazkano beti izandu haut nik
lagun bat oso maitea,
pena emango lirake izenak
herritik aldegitia,

nahi al dek sentitutzen dedana
hor garbiro jakitea,
bate ez lidake harrituko
gaur hauek kozka egitea.

Lazk.: Eskerrak hala ere zakurrak
gu ez gaudela katean,
ahal bada zaunka egingo degu
libre gauden bitartean,
nahiz galduta nahiz irabazi gaur
ez da bertsoen kaltean,
ta galtzen ere guk badakigu
bertsolarien tartean.

Mitx.: Zure moduan mintzatzen dana
badago jende mordoska,
disimuluan ari zerade
hemen bazterretik hoska,
ta ahal baldin bada pasa nahiean
bazterrekoaren kroska,
ta honek gaur ere nahiago luke
egingo baligu kozka.

Lazk.: Era hortako giro mardula
nonahi ez diteke topa,
hemen errexa degu bertsoa,
hemen errexa da kopa,
berdintsu dio bat edo bestek
eramaten duen kopa,
giro eder hau mantendutzea
besterik ez degu opa.

Mitx.: Jende artean egongo dira
gure arteko zalantzak,
kontzientziz emango dutela
konfiantza hori izan zak

gure bertsoak danak dizkitek
larrosak eta arantzak,
ta irabazten baldin badek gaur
poza handiz eraman zak.

Lazk.: Euskal giroak nolabait ere
indizio bat behar zun
eta ahal bada giro horrer
guk nahi genion erantzun,
ez dakit portatuko geran gu
baina zuek zintzo entzun,
aurrera ere bide hontatik
jarraitu zazu Oiartzun.

Mitx.: Bertsoan hauxe esango nuke
hemendik egi ta egiz
gauzak hartu behar dituzute
bakoitzak zeuren iritziz,
ta etzazutela meritoik eman
eginetako lan gutxiz,
mundu hontan fin behar degu ta
eman hori kontzientziz.

* * *

Gai honetan, diru kontuak eta aberastasunak
ateratzen dira berriro ere. Eta Mitxelenak, hasieran
Agirrerri karitatea eskatzen badio ere, aurrerantzean
eskuzabal eta kristau on bezela kantatuko du behin
eta berriro.

. . .

behartzen bazera ez da faltako
neronen borondaterik.

. . .
nere faltikan etzu izango
horretarako bazina.

Mitxelenaren saio amaierako desioa ez zen ordea denbora luzez beteko, gure artetik urte berean joan bait zitzaigun.

. . .
orain daukagun zorionakin
luzaro segi dezagun.

* * *

Gaia: Mitxelena, bi txuleta hartuta etorri zera afaltzera.

Agirre, zu berriz, lau zardin zahar hartuta.

Agirre Joxe Joakin munduko gauzak
gertatzen dira honela,
behartsu naiz ta nik ez dadukat
zure antzeko sakela,
nik pentsatzen det hau partituta
hobe izango gendukela,
gainera nahastuta onak dira
arraia eta okela.

Mitx: Gaur garestiak izaten dituk
motel arraien arrantzak,
ta zardin zaharrak ez dizkik noski
berak eukiko arantzak,
jenero hori nolakoa den
heronek kontua izantzak
txuletarekin konparatuta
merkea atera behar zak

Agirre Badakit asko balio dula
arrai on eta freskuak
behartsuari tokatzen zaizka
hori jan ezinezkuak,
zuk ere egin nahi badituzu
obra karidadezkuak,
lagunik maite baldin badezu
orain luzatu eskuak.

Mitx.: Karidadeak behin-e etzeukak
etxetik ezin ertenik
lagundu gabe uztea horrek
ez daukat nik beste penik,
baino bide bat bakarrik motel
beti edukitzen dek hik,
heronek ez al dek inoiz pentsatzen
hori egin behar dekenik.

Agirre Ez dit nei kezka gehiegi jarri
orain esan dezuanak,
zer pentsatua jarriko dizu
erantzutera noanak,
nere urteak orain artean
holaxe dira joanak
karidaderik ez leike egin
beretzat falta duanak.

Mitx.: Gure Agirre eman kontuan
beti egoten da minez,
baino ez dakit jokutzen duan
oso intentzio finez;
eskatzekuan badauka berriz
inorek ez hainbat lainez
ta emateko ametsa hori
ez du sentitutzen behinez.

Agirre Lehen esan dizut, etxean daukat
nahikoa estuasuna,
eta ez daukanak ez lezake
eskuzabaldutasuna,
nik, Mitxelena, libra nezake
daukadan estuasuna
zuk partituko baldin bazenu
sobrean dadukazuna.

Mitx.: Ekerrik asko, Agirre, baino
neuk-e ez det sobranterik,
sobra detela ta ez dizut ba
nik irekiko aterik,
baino premian baldin bazaude
ez dizut eingo kalterik,
behartzen bazera ez da faltako
neronen borondaterik.

Agirre Mitxelena honek arrazoi onak
lehen-e bota ohi dituta
bastante zeken ari zan eta
gaur nengoen harrituta,
berak sobrerik ez dadukala
da esatera abituta,
hori ederki igartzen zaio
gerrira begiratuta.

Mitx.: Gizonarentzat gerritik eiten
al da jaunak esamina,
bihotza dezu gizonarentzat
leiken gauzikan haundina,
besteren premiz dagon batentzat
errukaldutzen dakina,
nere faltikan etzu izango
hortaratuko bazina.

Agirre Nik banekian zu etzinala
borondatez hain flakua
eta gaur ere azkenerako
azaldu zera bapua;
zure bihotzak Joxe Joakin
beharko du bere lekua
baldin badezu haundi tamainan
petxua bezelakua.

Mitx.: Nere bihotza kanpora ez da gaur
noski ertengo kolkotik,
eta bandoak jo behar al ditut
etxetik edo kanpotik;
Agirrek ere aitortu nahi ez
pixkabat hoiek badizkit,
nere obra hoiek nolakuak diran
hik badakik lehenagotik.

Agirre Bai, zure berri ondo daki, bai,
aspaldiko lagun zaharrak,
zuk badakizu, laino tartetik
inoiz ateratzen izarrak,
utzi ditzagun elkarrentzako
gaurko arrazoi zakarrak,
pake santuan pasa ditzagun
dauzkagun urte bakarrak.

Mitx.: Anaitasun bat badeguala
hemen ez al da ezagun,
burrukan hasi gerade baino,
hemen egin gera lagun,
gu ez ginazke bat besteakin
burruka haundian jardun,
orain daukagun zorionakin
luzaro segi dezagun.

Puntua jarrita

Kaxka Zer moduz bizi zera
lagun Mitxelena?

Mitx.: Zertan esango dit motel
denok dakitena,
inor gutxik sentitzen dik
neretzako pena,
hoi dek alibiua
neukin daukatena.

Kaxka Joxe Agirre, Lazkano.
ta Lazkao Txiki

Mitx.: Hoiek-e badizkitek
ehun mila aitzaki,
hoben potajia zer dan
hemen zeinek daki?
gero zuek beharko zute
sariz erabaki.

Kaxka Bertsotan gozo-gozo
sagardoz aseta

Mitx.: Hori dek lehenagotik
degun errezeta
gaztetandik holaxe
ohiturik gaudezeta
aurrera-re manten zagun
gaztetako seta.

* * *

Gaia: Lazkano, langilea, bingon 20 miloi tokatu.
Mitxelena: Nagusia, bingon 20 miloi galdu.

Lazk.: Diru zaleak biok ginala
zegoen nahiko nabarmen,
uste gabean horregatikan
elkartu gerade hemen,
baina badaukat arrazoi bat nik
kontatutzeko lehenbailehen,
gaur kendutako hoge milioiak
lehen-e nereak ziraden.

Mitx.: Gaur daduzkigun mutil hauekin
nago ni ezin egonez,
hauekin egun bat nagusiak
ez baitauka zorionez,
ez dira iristen langilez eta
ez dira iristen gizonez,
hauek nahi dute hartzekoa ta
pagatzekorik inonez.

Lazk.: Harrapatzeko gaztetatikan
izan du honek ohitura
horregatikan igoa dago
gaur egun dagon altura,
lantokiraino gutxitan doa,
sarri dihoa bankura,
diru mordua egina dauka
inoxentien kontura

Mitx.: Zu zerrori-re egoten zera
inoxentien antzinan,
pobreago ta miserizkoa
zu lehenagotikan zinan,
gaur ez gaudeze zu ta ni ere
munduan bizi ezinan,
inoxenterik bildu ez balitz
zu nola izango zinan?

Lazk.: Jaiotzetikan izandu degu
zekena eta bastua
gure kontura beti kargatzen
joan zaikigun astua,
bingora joanda aurki nahi zuen
gehiago aberastua,
uste gaberikan pagatu du
zor zuen inpestua.

Mitx.: Beira, daukadan mutil honekin
ni nagoala arretan,
berau irrifarrez dago gaur ta
nagusia negarretan,
ez det esango biziera nik
zilarrez eta urretan,
ni nondikan zer bilduko duten
ta hau neri lapurretan.

Lazk.: Halaz ta guztiz bere ustetan
badauka nahiko meritu,
bera ahal duen ondoen bizi
eta bajuak eritu,
mundu hontako suerte honek
golfoak ditu saritu,
bere gorputzak ezagun digu
ez dula asko sufritu

Mitx.: Nik ez dakit ba, hoi hemen zeinek
hartuko duen honentzat,
hor nagusia hartuta dago
karga danen gurutzetzat
gaur ere hogeï miloiren zorrak
jarri dituzte neretzat
eta dirurik goxoen hoiek
neronen mutilarentzat.

- Laz.: Lapur eginda miloi mordo bat
honek badauka gordian
berehalaxe monta behar du
beste munduko gurdian,
ta Satanasek arrazoiakin
han hartuko du sardian
eta orduan ikasiko du
lapur kontuak zer dian.
- Mitx.: Nik mundu hontan duten kargakin
bukatuko det kituan
eta uste det nere mutila
daukatela delituan
nik daduzkaten txanponak nola
berak eraman dituan,
lehen esan dezun etsaiak ea
zerone hartzen zaituan.
- Lazk.: Heriotz hori aitaturzen du
hasitzen den bakoitzeko,
bildur pixkan bat ba dio horri
eta ez da harritzeko,
zeruan ere kezkatan daude
Mitxelena hau hiltzeko,
hamar aingeru atera behar
hau barrura sartutzeko
- Mitx.: Aizak, Lazkano, entzun behar dek
ta ez dek izango alperrik,
ez dezakela pake lekuan
gaur hemen ipini gerrik,
lehen-e munduan ez baidek egin
sekulan obra ederrik,
hi sartutzeko ez dek izango
aingeruk kendu beharrik.

* * *

Puntutan, Lazkano
Mitxelena

- L. Bejondaikela Joakin
hori duk sasoia
- M. hirurogeitalaukin
hor nabil doi-doia
- L. sobran daukak bertsoa,
sobran arrazoia
- M. baina hartuko diat
gaur ere jipoia.

- M. Ni ez nauk iritxitzen
gaur garai batekoz
- L. oraindik saiatzean
gehiago haiz askoz
- M. hori entzuteak-e
ematen baitu poz
- L. holako giro on bat
etzak busti malkoz.

- L. Umore ona diau
hemen prezisua
- M. asko estimatzen dit
hire abisua
- L. nolabait jaso behar
hizkuntza gaixua
- M. bazedukak bai nondik
ta zeinek jasua.

- M. Nahiko erorita dabil
erdi baldartuta

- L. Oraindik jarri leike
geurea deguta
- M. baino euskaldun danok
ongi alkartuta
- L. hortako utzi behar
daukagun disputa.
-
- L. Nahiko zaila bazegok
elkar hartze hori
- M. gure Euskal Herria
hortan dabil eri
- L. hoinbeste partidu ta
hoinbeste histori
- M. euskaldunak izanda
gezurra dirudi.
-
- M. Horren sendagilerik
bilatuko al da?
- L. Hori geure artean
beharko da galda
- M. ez al daukagu ezin
berdindu dan malda
- L. bertsoa izan leike
pixtuko dun salda.
-
- L. Hortarako jarraitu
behar da aurrera
- M. badakigu zer degun
euskeran karrera
- L. saiatutze horretan
geuk degu aukera
- M. ta ez bagera elkartzen
alperrik ai gera.

- M. Euskal Herria dago
sobra puskatuta
- L. Hori ez da etorri
ez guk eskatuta
- M. baino gaizki dagola
nago juzgatuta
- L. ez zaitezela bildur
salbako deguta.
- L. Itxaropenik behintzat
ez liteke galdu
- M. baina pakeak ere
etorri behar du
- L. herri hau ezin leike
inori ere saldu
- M. ta ez dakigu zeinei
hartu leiken kargu.
- M. Euskaldunak nahi degu
etxean agindu
- L. saiatutzen da baina
Euskadik ezin du
- M. eta eskubide hoi
nork emango digu?
- L. Gure koska guztia
ezin da berdindu.
- L. Atzekoei utziko
al diegu txanda?
- M. Hoiek ederki daude
guk bertasuk esanda
- L. iraungo lukete
alboan etzanda

M. berez jaiotzetikan
alperrak izanda.



MITXELENA. 50 urte kantari.

AURKIBIDEA

Mitxelena bertsolaria gogoan	7
Argibide pare bat	21
Zapiain sagardotegian (1963).	23
Tolosan (1963)	27
Zizurkil (1965)	31
Anoetan (1968).	41
Tolosan (Zepairen omenez)	47
Oiartzun (1963)	59
Txapelketa nagusia (1960)	61
Txapelketa Nagusia (1962)	69
Txapelketa Nagusia (1965)	83
Donostia (1969)	101
Oiartzun (1971)	105
Oiartzun (1971)	115
Azpeitia (1973)	121
Anoeta (1974).	131
Eibar (1974).	135
Karmelo Balda (1976)	141
Oiartzun (1978)	147
Donostia (1979)	153
Donostia (1979)	161

Donostia (1981)	165
Oiartzun (1981)	169
Oiartzun (1982)	175
Errenteria (1982)	181
Oiartzun (1983)	189
Andoain (1988).	205
Usurbil (1988)	207
Errenteria (1988)	213
Oiartzun (1988)	217



1051081
G-128/98



JOSE JOAKIN MITXELENA

Herrian eskuratua zeukan kantuzko zeregina. Herriko bertsolari ofizala itzan dugu denbora luzean. Berrogeita hamar urte kantuzko zerbitzuan herri barruan jardunez.

Jaietan, omenalditan, ospakizunetan, lagunartean... han genuen Jose Joakin, gizartea sendotuz, jantzia eta edertuz.

Herritik Kanpora izen bat eta leku bat irabazi zuenean ere, berdin zerbitzatu zuen eta bete oiartzuarren bertsozko eskea. Gustagarria zen benetan haren arrazoiaketa luzea eta sakona, harren baliabide - ugaritasuna, haren...



Oiartzungo Udalaren
laguntzarekin argitaratua

ISBN 84-89080-45-3



9 788489 080454